

## X. Jardunaldiak

Garapenerako Estrategia Positiboak

# Emakumeak Erresistentzian: indarkeria matxistari aurre egiteko esperientziak, Afrika eta Asiakoak

Bilbo, 2015eko apirilaren 15 eta 16a  
Bizkaia Aretoa UPV/EHU- Baroja Aretoa



Garapenerako Estrategia Positiboen X. Jardunaldiak

## Emakumeak Erresistentzian: indarkeria matxistari aurre egiteko esperientziak, Afrika eta Asiakoak

Bilbo, 2015eko apirilaren 15 eta 16a  
Bizkaia Aretoa UPV/EHU- Baroja Aretoa

### Asteazkena, apirilaren 15a

19:00

#### Aurkezpen instituzionala

**Oihane Agirregoitia Martínez**

Bilboko Udalaren Berdintasun, Lankidetzeta eta Hiritarrak Saileko  
zinegotzi-ordezkarria.

**Paul Ortega Etcheverry**

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Zuzendaria

#### Inaugurazio-hitzaldia:

### Emakumeen aurkako indarkeria fenomeno kultural eta sistemiko gisa. Testuinguruen araberako adierazpideak

Corinne Kumar. Vimochana, Forum for Women`s Rights, India

### Osteguna, apirilaren 16a

09:45

#### Erregistratzea

10:00

### Indarkeria emakumeen mugimendu-askatasunaren disuasio-estrategia gisa

**Amal Khreishah**

Palestinian Working Women Society for Development

**Leire Lasa Fernández**

CEAR Euskadiko Eragin eta Parte-hartze saila

12:00

### **Atsedenaldia – kafea**

12:30

### **Sexu-indarkeria arma politiko eta gerra-arma gisa**

**Caddy Adzuba**

Association des Femmes des Médias du Sud Kivu, Kongoko Errepublika Demokratikoa

### **Elkarrizketa-eztabaida**

### **Atsedenaldia – bazkaria**

15:30

### **Kultura, zapalketa patriarkalaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren tresna moduan erabilita**

**Sophia Abdi Noor**

Kenyako 10. Parlamentuko partaidea

**Fátima Djarra**

Asociación de Mujeres Africanas Flor de África, Nafarroa

**Neelavalli**

Initiatives Women in Development – IWID, India

### **Elkarrizketa-eztabaida**

18:00

### **Konklusioak: Graphic Recording**

**Miryam Artola**

Muxote Potolo Bat [www.muxotepotolobat.com](http://www.muxotepotolobat.com)

18:15

### **Amaiera**

- 1 I. Emakumeen Auzitegiak. El Taller International eta Asiako Emakumeen Giza Eskubideen Kontseilua**

**Corinne Kumar**  
Emakumeen Auzitegien Nazioarteko Koordinatzailea.  
Vimochana, Forum for women`s rights, India. 7

---
- II. Justizia berrimajinatu beharra**

**Corinne Kumar**  
Emakumeen Auzitegien Nazioarteko Koordinatzailea.  
Vimochana, Forum for women`s rights, India 19

---
- 2 Emakumeak eta erresistentzia: emakumeen aurkako indarkeria matxistako esperientziak Afrikan eta Asian**

**Amal Khreishah**  
Palestinian Working Woman Society for Development 34

---
- 3 Emakume errefuxiatuak genero-arrazoiengatik: indarkeriak jatorrian, igarotzan eta helmugan**

**Leire Lasa**  
CEAR Euskadiko Eragin eta Parte-hartze saila 50

---
- 4 Kongoko Errepublika Demokratiko**

**Caddy Adzuba**  
Association des Femmes des Médias du Sud, Kivu,  
Kongoko Errepublika Demokratiko 66

---
- 5 Kulturak Afrikako komunitateetan emakumeen menderatze patriarkalerako eta emakume horien aurkako indarkeriarako tresna gisa betetzen duen zeregina testuinguruan kokatzea: Kenyako iparraldeko esperientzia**

**Sophia Abdi Noor**  
Kenyako 10. Parlamentuko kide ohia 73

---
- 6 Kultura emakumeen menderatze patriarkalaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren tresna gisa**

**Fátima Djarra**  
Asociación de Mujeres Africanas Flor de África, Nafarroa 98

---
- 7 Kultura menderatze patriarkaleko eta emakumeen aurkako indarkeriako tresna gisa – Indiako testuingurua eta aurrerapenak**

**Neelavalli Prabhakar**  
Initiatives Women in Development – IWID, India 104

---

## Garapenerako Estrategia Positiboen X. Jardunaldiak

# Emakumeak Erresistentzian: indarkeria matxistari aurre egiteko esperientziak, Afrika eta Asiakoak

**Bilbo, 2015eko apirilaren 15 eta 16a**  
**Bizkaia Aretoa UPV/EHU- Baroja Aretoa**

Jardunaldien X. edizioak gogoeta egin nahi du emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpen espezifikoki jakin batzuez, alegia, Afrika eta Asiako testuinguruan agertzen diren adierazpenez. Helburua da sakonago ezagutzea testuinguru horietako emakumeen errealitateak; horri lotuta, bistaratu nahi dira emakumeen eta feministen erakundeak garatzen ari diren borrokek, emakumeen aurkako indarkeria estrukturalaren adierazpide horiei aurre egiteko.

Jardunaldien edukiak 3 puntu nagusitatik abiatuta egituratzen dira:

- **Indarkeria emakumeen autonomia eta mugimenduaskatasunaren disuasio-estrategia gisa, espazio publikoan.**
- **Kultura, zapalketa patriarkalaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren tresna gisa.**
- **Sexu-indarkeria, arma politiko eta gerra-arma moduan erabilia.**

Jardunaldiaren ikuspegiaren abiapuntua da emakumeen aurkako indarkeria fenomeno estruktural eta sistemikotzat hartzea. Ez da kultura, eskualde edo herrialde espezifikoki batean soilik gertatzen, ezta emakumeen talde partikularretan ere; aitzitik, bere sustraia berdina da leku guztietan: balio androzentrikoak, gizona "gauzen neurri" gisa kokatzen dutenak eta emakumea "bestea" dela kontsideratzen dutenak; balio horiek, gainera, bi sexuen arteko botere-harreman desorekatuak legitimatzen dituzte. Nazio Batuen Erakundearen datuen arabera, kalkulatzen da emakumeen ehuneko 70 inguruk indarkeria jasaten duela bere bizitzan.

Nolanahi ere, indarkeriaren kausak berdinak izan arren, testuinguru eta gizarte bakoitzak kode kultural espezifikoki maneiatzen ditu, eta indarkeria kode horien arabera azaleratu eta ezartzen da. Hala, emakume helduen eta nesken bortxaketa eta sexu-esplotazioa emakumeen aurkako indarkeria mota espezifikoki bat da Afrikan, gatazkan dauden eskualdeetan; emakumezkoen mutilazio genitala, berriz, Afrikan eta Erdialdeko Ekialdean hedatutako praktika bat da, eta derrigo-

rezko ezkontzak, dohaintzek eragindako hilketak eta "ohoreak" eragindakoak Asiako hegoaldean gertatzen dira gehienbat.

Errealitate horietatik abiatuta, Jardunaldiek urrun utzi nahi dute emakumeak biktimatzat hartzen dituen ikuspegia, horren ordez transmititzeko emakumeek modu antolatuan eta feministan erantzun behar diotela indarkeria matxistari. Azken baten, beraz, jardunaldiek hurrengo helburuak lortu nahi dituzte:

- **Emakumeen aurkako indarkeria estrategia globalizatu gisa ulertzeko gakoak ezartzea, gogoan izanda estrategia horrek emakumeen askatasun eta eskubideak mugatu nahi dituela.**
- **Emakumeen eta feministen erakundeen borroka eta erresistentzia esperientziak bistaratzea; eta aztertzea zer eragin duten borroka horiek haien ahalduntze-prozesuetan.**
- **Ezagutza, truke eta eraikuntza kolektiborako esparru bat sortzea, horren bidez itunak eraiki ahal izateko Afrikako, Asiako eta Euskal Herriko proposamen feministen artean, garapenerako euskal lankidetzaren eragile aktiboa izanik.**

# I. Emakumeen Auzitegiak El Taller International eta Asiako Emakumeen Giza Eskubideen Kontseilua

**Corinne Kumar**

Emakumeen Auzitegien Nazioarteko Koordinatzailea.  
Vimochana, Forum for women`s rights, India.

<http://www.vimochana.net.in/home.html>

[www.womeninblack.in](http://www.womeninblack.in)



## Ikuspegia:

*Begi hau  
ez zen negar egiteko sortu  
lauso ikusten du, eta hori konpondu egin behar da,  
aurpegia malkoz beteta badaukat ere,  
argia ikusi nahi du,  
ez du ezer ahaztu behar*

## Inporta ez bazaizue, **Emakumeen Auzitegien historia kontakuko dizuet:**

Aspaldiko ametsa zen. Indarkeria inguratzen duen isiltasuna urratzeko ametsa, emakumeen historiak berridazteko ametsa, gure oroimena berreskuratzeko ametsa, ikasteko modu berriak eta justizia modu berriak bilatzeko ametsa, etorkizunari begira ikuspegi berriak aurkitzeko ametsa. Gure oinaze-istorioak ez ezik, gure ausardia- eta biziraupen-istorioak ere kontatzeko, beste logika bat, beste jakintza modu bat aurkitzeko.

Asian sortu zen Asiako Emakumeen Giza Eskubideen Kontseiluari eta Vimochanari esker, eta azken erakunde horrek, Asian eta Ozeano Barean giza eskubideen alorrean diharduten beste hainbat talderekin batera, bederatzi Auzitegi eratu dituzte eskualdean. Tunisian kokatutako El Taller International erakunde elkar-tuak munduko beste eskualde batzuetara eramanez Auzitegi horiek, hala nola Afrikara, herrialde arabiarretara, Amerikako Erdialdera eta Latinoamerikara.

*Emakumeen Auzitegiek* espazio bat zabaldu dute gure aurrean, *imajinario bat*: gogoeta egitera, sentitzera, erronka egitera, konektatzera, ospatzera, dantzatzera eta amets egitera gonbidatzen gaituen aukera bat. Emakumearentzat espazio berri bat zehazteko eta espazio horri ikuspegi berri bat, politika berri bat ezartzeko ahalegina da. *Hego globaleko* ahots eta ikuspegi topagunea da, eta desadostasunaren diskurtsoan kokatzen da. Nolanahi ere, jatorrizko kokagunea gainditu nahi duen jardunbidea ere bada, globalizazioaren orden global berria zalantzan jarriz lerroak gainditu eta bide berriak urratu nahi dituen, bazterretako ahots eta mugimenduak entzuteko.

*Emakumeen Auzitegiek* arazoak aztertu behar dituzte, eta, ahalegin horretan, errealitate *objektiboa* emakumeen testigantza *subjektiboekin* uztartu nahi dute, pertsonal eta politikoeekin, *logiko eta lirikoekin* (testigantza-bideoak, arte-irudiak



eta poesia), arrazional eta intuitiboekin, pertzepzio berriez jabetzeko eskatzen digute, beste jakintza modu batzuk eskaintzen dizkigute, eta jakintzaren sakontasunean murgiltzeko gonbita egiten digute, jakintzaren paradigma berria sor dezagun. *Emakumeen Auzitegiak* entzunaldi publikoak dira. Auzitegia sinboliko ki erabiltzen da. Auzitegietan, biktimen eta bizirik atera direnen ahotsak entzuten dira. Emakumeek beren indarkeria-testigantza pertsonalak kontatzen dituzte Auzitegiaren aurrean. Auzitegiak *gune sakratuak* dira, eta bertan emakumeek, sufrimenduaren hizkuntzan, hainbat krimenen berri ematen dute, erreparazioa jasotzeko helburuarekin.

*Emakumeen Auzitegiek* biktimen eta bizirik atera direnen ahotsak entzuten dituzte, baina baita borrokatu eta matxinatzen diren emakumeen, beren ametsak kosta ahala kosta bete nahi dituzten emakumeen ahotsak ere. Emakumeen eta giza eskubideen mugimenduetako emakumeen ahotsak entzuten dituzte. *Bizitzaren egunerokotasunari* lotutako biziraupen-istorioak entzuten dituzte, indarkeria mota guztiei (gerra, etnizitatea, fundamentalismoa) aurre egiteko, lan eta soldada duin bat edukitzeko, lurren gaineko eskubideen eta etxebizitza bat edukitzeko eskubidea aldarrikatzeko borrokan diharduten emakumeen eta mugimenduen testigantzak entzuten dituzte. Nola bizirauten duten, bakoitzak zer dakien entzuten dute, entzunezin eta *ikusezin* bihurtutako jakituria entzuten dute. Giza eskubideei buruzko diskurtso nagusiak emakumeen jakintza baztertu du, eta emakumeek diskurtso horri jotzen dizkieten erronkak entzuten dituzte. *Emakumeen Auzitegiek*, diskurtsoa zabaltzeko premiari erantzunez, emakumeen esanahiak, ikurrak eta ikuspegiak aintzat hartu nahi dituzte.

## Emakumeen giza eskubideen belaunaldi berri bat aipatzen du.

Imajinario berri baten adierazpena diren heinean, *botereari egia* kontatzeko modu berriak aurkitzen ari dira, botereari aurre egiteko modu berriak, garai honetako ideia eta erakundeen azpiko kontzeptu eta kategoriak indarkeria kontrolatzeko gauza ez direla onartuta. Indarkeria hori areagotzen ari da gainera, eta gero eta gordinagoa da.

*Emakumeen Auzitegiek babesgabeen egia* ere proposatzen dute mundua kontzientziatzeko, eta erreferentzia berriak sortzen dituzte zuzenbide-estatuaz hara- tago, *politikaren etikara* itzuliz. Gure egiturak, gure adimenak eta gure *irudimenak deskolonizatzeko* gonbita egiten digute. Subsumitutako kulturek, menderatutako herriek eta isilarazitako emakumeek ahots politikoa eskatzen dute, eta,

isiltasuna urratuz, botereak bere kontrol patriarkalari eusteko jarritako baldintzei uko egiten diete.

*Beste justizia-nozio bat ere hartzen du hizpide, hain zuzen ere, justizia eta erreparazio indibidualak lortuz guztiok eraldatzeko baliagarri izango den jurisprudentzia. Jurisprudentzia horrek baliagarri izan behar du krimenak testuinguruan jarri eta historian kokatzeko, zigorretan, mendekuan eta ordainetan oinarritutako justizia batetik urrunduz erreparazioa bilatzeko, egian eta adiskidetzan oinarritutako justizia izan behar du, justizia indargarria, pertsonak eta komunitateak adiskidetzeko gai izango dena. Emakumeen Auzitegiek aurrerapauso bat egin dute, justizia hori gizarte zibilean eta mugimendu sozialetan kokatuz. Sormen-arloan mugimendu horiekin bat egin dezakegu, gure pertzepzio kolektiboetan sakontzeko eta gure eguneroko errealitateen testua zer testuingurutan idazten ari den hobeto ulertzeko.*

Askotariko ahotsen bitartez, *Emakumeen Auzitegiek berdintasuna* hartu nahi dute hizpide, baina ez berdin egiten gaituenaren ikuspegitik, *bereizi* egiten gaituenaren ikuspegitik baizik, eta desberdintasun hori pertsonen duintasunean, desjabetutako, baztertutako eta gutxietsitako emakumeen duintasunean sustraitzen da.

## ***Emakumeen Auzitegiek beste historia bat idaztea proposatzen digute:***

Hegemoniaren aurkako historia, bazterretako historia. *Emakumeen Auzitegiak* bazterretarako bidaia dira, bidaia bat imajinatutako helmuga bat baino gehiago, eta, bidaia horretan, gure bizitzen egunerokotasunak hainbat aukera jartzen ditu gure imajinarioaren, gure biziraupenaren eta gure mantenuaren eskura, emakumeok konektatuta mantentzeko eta komunitate bat sortzeko lagungarri. Imajinarioaren ideia eta komunitatearen eta nortasunaren dimentsio pertsonal, politiko eta historikoak estu lotuta daudelako. Talde sozial jakin batzuek adierazitako kokapenik ezak bide eman du imajinario berriak eratzeko. Talde sozial horiek, bazterrekoak, hego globalekoak, iparreko hegokoak, hegoko hegokoak, indigenak, beltzak, ukiezinak, emakumeak *imajinario berri horiek* eratzen hasi dira.

Mexikoko Chiapaseko nekazariak, beren *imajinario* berria deskribatzean, mantenuaren borrokan eta beren bizi-munduaren kontserbazioan jartzen dute ardatza. Ongi zaindutako antolamendu sakona dute, eta haien imajinario eta ikuspegi politikoek ez dute egia argi, zurrun edo unibertsalik eskaintzen. Horrenbestez, bidaia oso preziatua dela jakinik, beren ikuspegia bi hitzetan laburtzen dute:

*Galdezka, aurrera goaz.*

Galderak kontakizun nagusiari erronka jotzen dio zuzenean, nagusiaren etxeari, arrazoimenaren etxeari, egia unibertsalei, boterearen, politikaren, etekinaren eta patriarkatuaren egiei. *Emakumeen Auzitegiek* nagusiaren etxea eraisteko gonbita egiten digute. Audre Lorde poetak esan duenez: *nagusiaren tresnek ez dute inoiz nagusiaren etxea botako*. Premiazkoa da klaseko, kastako, generoko eta arrazako diskurtso nagusiaren berezko kontakizunaren logika zentralizatzaileari aurre egitea. Logika nagusi hori indarkeriaren eta bazterketaren logika da, zibilizatuen eta zibilizatu gabeen logika, goi-mailakoaren eta behe-mailakoaren logika.

## Logika zentralizatu hori deszentralizatu egin behar da. Eten egin behar da.

*Emakumeen Auzitegiek* etete hori, inbasio hori hartzen dute hizpide. *Emakumeen Auzitegiek* lerroak gainditzen dituzte, bide berriak urratzen dituzte, jakintza- eta politika-paradigma berriak aurkitzen dituzte.

Emakumeen Auzitegiak gure *inbasio-ametsak* dira.

### Praxia:

*Nire begien argia zalantzan jartzen badut  
soilik lortuko dut  
zureen gezurraren distiratik ihes egitea*

Auzitegi bakoitzak gizon eta emakume jakintsuez osatutako Auzitegi baten ahotik entzuten ditu testigantzak. *Emakumeen Auzitegietan* planteatzen diren testigantza eta iritziak balio handikoak dira indarkeria mota guztien (gerra eta militarizazioa, monokulturalizazioa eta pobreziaren feminizazioa) aurka tokian-tokian, nazio bakoitzean eta nazioartean antolatzen diren kanpainei laguntzeko. Goraka ari den jakintza sorta bati beren ekarpena eskaintzen diote, pentsamendu, erakunde eta tresna zaharkituak zalantzan jarri eta eraldatzeko eta berriak sortzeko, emakumeen giza eskubideen urraketei heltzeko eskualdeetan, nazioetan eta nazioartean. Emakumeen eta eskualdeetako giza eskubideen talde eta erakundeen artean elkartrukatzeko aukerak sortzen dituzte.

*Emakumeen Auzitegiak* toki-erakundeei esker sortu eta sendotu direlako. Haien kontzeptualizatu eta mantentzeko gurekin elkarlanean diharduten toki-erakundeak dira. *Emakumeen Auzitegiek distira* handia sortzen dute antolatzen diren eskualde guztietan, eskualdeko emakumeen kultura, jakintza eta jakiturien arteko elkarrizketak ahalbidetzen dituztelako eraldatze-elkarrizketa batean barneratuz mundu-ikuskerari aurre egiteko, diskurtso berri bat sortzeko eta emakumeen giza eskubideen belaunaldi berri baterantz aurrera egiteko.

Hortaz, Auzitegi bakoitzak izaera desberdin bat dauka, ikuspegi desberdin bat, batzuetan toki-erakundeen eta erakunde laguntzaileen arabera, beste batzuetan munduko eta eskualdeko foro sozialetan aztertutako gaien arabera, eta noizbehinka, ondoren Auzitegiaren azterketa eta perspektibak aurrera daramatzen talde koordinatzailearen baldintzapean.

*Emakumeen Auzitegi* horiek guztiak lotzen dituena *metodologia* da, jakintza modu nagusi guztiak zalantzan jartzen dituena. Hainbat gizarte-erakunderen lehentasun eta ikusmoldeen arabera eraturako metodologia da. Esaterako, Palestinako, Kolonbiako, Hego Afrikako eta Ipar Koreako hainbat talde, tokian-tokian, Auzitegiak prestatzen eta antolatzen ari dira gatazkak eta sufrimenduak kalte-tutako eskualdeetan, entzuteko eta adiskidetzeko guneak sortuz erreparazioa bilatzeko. Gainera, *Emakumeen Auzitegiak* gune aproposak dira foro globaletan harremanetarako sareak sortzeko prozesuan sakontzeko. Latinoamerikako, Asiako eta Afrikako Munduko Foro Sozialeko topaketetan adibidez, Auzitegiak zenbait erakunderekin elkarlanean eratu dira, gerrekin, pobrezia-gerrekin eta emakumeen aurkako gerrekin lotutako gaiak aztertzeko.

Urteek aurrera egin ahala, *Emakumeen Auzitegiak* hazi eta indartu egin dira 1992an abitu zirenez geroztik. Hego globalean berrogei Auzitegitik gora eratu dira, politikaren eta boterearen, justiziaren eta eraldatzearen ikuspegi sakontzeko, eta horri esker, emakumeen aurkako indarkeria zerbait *pentsaezin* gisa hartzea lortu da.

## Orain arte antolatutako *Emakumeen Auzitegiak* (1992 – 2013)

### ■ Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Emakumeen Asiako Auzitegia

1993ko abendua - 1994ko urtarrila; Lahore (Pakistan); Simorgh Women's Collective erakundearekin.

- **Emakumeen aurkako Gerra Krimenei buruzko Asiako Auzitegia**  
1994ko martxoa; Tokio (Japonia); Japoniako hirurogeita lau emakume talderekin elkarlanean.
- **Emakume Ukiezinen aurkako Krimenei buruzko Emakumeen Indiako Auzitegia**  
1994ko martxoa; Bangalore (India); Indiako Women's Voice erakundearekin.
- **Emakumeei eta Ugalketa Teknologiai buruzko Emakumeen Nazioarteko Auzitegia**  
1994ko iraila; Kairo (Egipto), Bangladesheko UBINIGekin.
- **Zuhaitz hiztuna: Emakumeen hitza. Emakumeen aurkako Krimenei eta Garapenaren Indarkeriari buruzko Emakumeen Asiako Auzitegia**  
1995eko urtarrila; Indiako Vimochanarekin.
- **Pertsonen Trafikoari eta Turismoari buruzko Emakumeen Asiako Auzitegia**  
1995eko ekaina; Katmandu (Nepal); Nepalen pertsonen trafikoari lotutako gaietan diharduten berrehun GKErekin.
- **Mahkamet El Nissa. Emakumeen Auzitegi Iraunkorra Mundu Arabiarrean**  
1995eko ekaina; Beirut (Libano); Tunisiako eta Libanoko emakumeen eta giza eskubideen erakundeekin.
- **Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Emakumeen Munduko Auzitegia**  
1995eko iraila; Pekin (Txina); mundu osoko emakumeen giza eskubideen ehun talde baino gehiagorekin.
- **Mahkamet El Nissa. Emakumeak eta Legeak**  
1998ko martxoa; Beirut (Libano).
- **Mahakama Ya Wa Mama Wa Africa. Emakumeen Afrikako Auzitegia**  
1999ko iraila; Aotearoa (Zeelanda Berria), Maori Women's Network erakundearekin.

- **Nga Wahine Pasifika. Uranio-meatzaritzari, proba nuklearrei eta Lurrari buruzko Ozeano Bareko Emakumeen Auzitegia**  
Septiembre de 1999; Aotearoa (Nueva Zelanda), con la Maori Women's Network.
- **Emakumeen Indarkeriari buruzko Mediterraneoko Foroa**  
1999ko azaroa; Casablanca (Maroko), Amalekin (Maroko) eta Crinalirekin (Italia).
- **Blokeo Ekonomikoari buruzko Emakumeen Nazioarteko Auzitegia**  
1999ko azaroa; Habana, El Taller-ekin (Amerikako Erdialdea), Kubako Emakumeen Federazioarekin eta Filosofia Institutuarekin; 2. edizioa, 2003ko urtarrilean Porto Alegreko Munduko Foru Sozialean antolatua.
- **Gerraren aurkako eta Bakearen aldeko Emakumeen Munduko Auzitegia**  
2001eko martxoaren 8a, Lurmutur Hiria, Hego Afrika; Nazioarteko Batzorde Koordinatzaile batekin eta emakume eta giza eskubideen toki-erakundeekin sarearekin elkarlanean.
- **Arrazakeriaren aurkako Emakumeen Munduko Auzitegia**  
2001eko abuztuaren 30a; Durban (Hego Afrika); Institute for Black Research erakundearekin (Natalgo Unibertsitatea), Lurmutur Hiriko Mendebaldeko Probintziako Unibertsitatearekin, Women's Support Network (Lurmutur Hiria), Durban Social Forum, Sangoco erakundeekin eta nazioko eta nazioarteko beste GKE batzuekin.
- **Emakume Indigena eta Errefuxiatuen Australiako Auzitegia**  
2001eko abenduaren 4a; Hegoaldeko Gales Berriko Unibertsitatea, ANCORW erakundearekin (Sydney, Australia).
- **Pertsonen Trafikoaren Indarkeriari eta GIB/HIESari buruzko Asiako Hegoaldeko Emakumeen Auzitegia**  
2003ko abuztuaren 11-13; Dhaka (Bangladesh); Nazio Batuen Garapen Programarekin eta UBINIG (Bangladesh) erakundearekin.
- **Gerra Krimen gisa aintzat hartzeari buruzko Emakumeen Munduko Auzitegia (WTI-Bombay)**  
2004ko urtarrilaren 18a, International Action Center (AEB), Arab and Africa

Research Center (Egipto), Institute for Black Research (Hego Afrika), Center for development studies (India) erakundeekin eta tokiko eta nazioarteko beste GKE batzuekin, Munduko Foro Sozialaren esparruan (Mumbai, India).

■ **Emakume Indigena eta Errefuxiatuen Australiako Auzitegia**

2004ko apirila; Hegoaldeko Gales Berriko Unibertsitatea, ANCORW erakundearekin (Sydney, Australia).

■ **Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Emakumeen Afrikako Auzitegia**

2004ko abenduaren 10a. Afrikako Foro Sozialarekin eta tokiko eta eskualdeko beste GKE batzuekin, Afrikako Foro Sozialean (Lusaka, Zambia).

■ **Emakumeen Afrikako Auzitegia: bizitzak, mantenuak, bizi-munduak**

2005eko urtarrilaren 29a. Afrikako Foro Sozialarekin eta eskualdeko eta nazioarteko beste GKE batzuekin elkarlanean, Munduko Foro Sozialaren esparruan (Porto Alegre, Brasil).

■ **Latinoamerikako politika neoliberalen aurkako Emakumeen Nazioarteko Auzitegia**

2005eko otsaila, Habana (Kuba); Filosofia Institutuarekin, Galfisarekin eta Emakumeen Kubako Federazioarekin elkarlanean.

■ **Iraki buruzko Munduko Auzitegia – Bilkura arabiarra**

2005eko ekainaren 15etik 18ra bitarte Tunisian (Tunisia); Irakerako eta Palestinarako Elkartasun Batzordea.

■ **Gerrei, Globalizazio Gerrei eta Emakumeen aurkako Gerrei aurre egiteko Erresistentziari buruzko Emakumeen Munduko Auzitegia**

2006ko urtarrilaren 22a, Munduko Foro Sozial Polizentrikoa (Bamako), Maliko hainbat toki-erakunderekin; Forum for another Mali (Mali); Women in Black India, Filipinak, Nepal; Forum for African Women for Solidarity Economy (Senegal); Institute of Black Research (Hego Afrika); Enda, Senegal, Etiopia; Lurmutur Hiriko (Hego Afrika) Mendebaldeko Probintziako Unibertsitateko Genero berdintasuneko Unitatea; Asafe, Kamerun; Widows of Rwanda (Ruanda); Kenya Debt Relief Network (Kenya); Femnet, Zambia, Tanzania; Genta (Hego Afrika); Filosofia Institutua (Kuba); Kubako Emakumeen Federazioa (Kuba); Martin Luther King Zentroa (Kuba).

■ **Gerrei, Globalizazio Gerrei eta Emakumeen aurkako Gerrei aurre egiteko Erresistentziari buruzko Emakumeen Munduko Auzitegia**

2006ko urtarrilaren 27a, Munduko Foro Sozial Polizentrikoa (Caracas, Venezuela), Venezuelako hainbat toki-erakunderekin; Gizateriaren aldeko intelektualak eta artistak, Venezuela; Kubako Emakumeen Federazioa; Pratec, Peru; Embacorpaz, Kontsentsuaren aldeko Emakumeak (Kolonbia); Martin Luther King Zentroa (Kuba); Madres de Plaza Mayo (Argentina); Zapatistak (Mexiko); Asiako Emakumeen Giza Eskubideen Kontseilua; Cieds Collective (India); Elkartasunaren Ekonomiarako Afrikako Emakumeen Foroa (Senegal); Institute of Black Research, Natalgo Unibertsitatea (Hego Afrika).

■ **Gerrei, Globalizazio Gerrei eta Emakumeen aurkako Gerrei aurre egiteko Erresistentziari buruzko Emakumeen Munduko Auzitegia**

2006ko martxoaren 22a, Munduko Foro Sozial Polizentrikoa, Karachi (Pakistan); Cieds Collective (India); Vimochana (India); El Taller International (Tunisia); Institute of Black Research, Natalgo Unibertsitatea (Hego Afrika); Lurmutur Hiriko (Hego Afrika) Mendebaldeko Probintziako Unibertsitateko Genero Berdintasuneko Unitatea; Kenya Debt Relief Network (Kenya); Filosofia Institutua (Kuba); Women in Black India, Filipinak, Nepal; 2. edizioa 2006ko martxoaren 30ean Lahoren (Pakistan), Simorghekin.

■ **Pobreziari buruzko Emakumeen Munduko Auzitegia: Bizitzak, Mantenuak, Bizi Munduak**

2007ko urtarrilaren 22a, Munduko Foro Soziala, Nairobi; Cieds Collective-rekin (India); Lurmutur Hiriko (Hego Afrika) Mendebaldeko Probintziako Unibertsitateko Genero Berdintasuneko Unitatea; Kenya Debt Relief Network (Kenya).

■ **GIBari, Herentziari eta Jabetza Eskubideei buruzko Asia Pazifikoko Emakumeen Auzitegia: *Desjabetzetik Mantenu eta Gune Seguru*etara**

2007ko abuztuaren 18a, Kolonbo (Sri Lanka); Nazio Batuen Garapenerako Programari jarraiki, eta honako erakunde hauekin elkarlanean: UNAIDS, UNIFEM SARO, ICRW, Inform (Sri Lanka), Centre for Women's Research; CENWOR (Sri Lanka); Siyath Foundation (Sri Lanka); FWLD, (Sri Lanka); Lawyers Collective (India); PWN+ (India); Vimochana (India); Milana (India); Abhaya Action Aid (India); Lanka Plus (Sri Lanka); El Taller International.

■ **Doteari eta Emakumeen aurkako Antzeko Indarkeria Moduei buruzko Emakumeen Indiako Auzitegia**

2009ko uztailaren 27tik 30era bitarte; Vimochana, Asiako Emakumeen Giza



## I. Emakumeen Auzitegiak

El Taller International eta Asiako Emakumeen Giza Eskubideen Kontseilua

Corinne Kumar

Eskubideen Kontseiluarekin, El Taller International erakundearekin eta India osoko hogeita hamar emakume-erakunderekin elkarlanean.

### ■ GIBari, Pertsonen Trafikoari eta Migrazioari buruzko Asiako Hego-ekialdeko Emakumeen Auzitegia. *Kalteberatasunetik Zirkulazio Libre, Justu eta Segurura*

2009ko abuztuaren 4 - 6, Bali (Indonesia); Nazio Batuen Garapenerako Programa eta Asiako Emakumeen Giza Eskubideen Kontseilua, Asiako Hego-ekialdeko erakunde elkartuekin eta El Taller International erakundearekin elkarlanean.

### ■ Etxebizitza Gabeziari eta Pobreziari buruzko Estatu Batuetako Auzitegiak

2015erako programatu dira, eta alde zuzenetik eskualdeko lau Auzitegi antolatuko dira gure erakundearen eta gizarte-mugimendu elkartuen parte-hartzearekin. Auzitegi horrek Estatu Batuetako etxebizitza-gabeziari eta pobreziari helduko die. Eskualdeko lehen Auzitegia Oaklanden (Kalifornia) antolatu zen Women's Economic Agenda Project erakundearekin eta etxerik gabeko pertsonen beste erakunde eta sare batzuekin, 2012ko maiatzaren 10etik 14ra bitarte. Eskualdeko bigarren Auzitegia Filadelfian antolatu zen Poor People's Homeless and Economic Rights Project eta pobreziaz arduratzen diren beste zenbait erakunderen eskutik, 2013ko irailean.

## Antolatzen ari diren Emakumeen Auzitegiak

### ■ Ahazturaren aurkako eta Berrexistentziaren aldeko Kolonbiako Emakumeen Auzitegia

Kolonbiako emakume eta giza eskubideen aldeko hainbat erakunde eta mugimendurekin elkarlanean; Cartagenan eta Medellinen Auzitegi txikiagoak antolatuko dira. Gerra-krimenetan eta emakumeen aurkako gerretan zentratuko da.

### ■ Indiako Emakumeen Auzitegia

Beste Auzitegi txikiago batzuk antolatu edo planifikatu dira, gehienak landa-ingurunean, doterearen indarkeriarekin (2009an antolatu zen) eta emakumeen aurkako antzeko beste indarkeria mota batzuekin zerikusia duten gaien ingurukoak. Azken Auzitegia 2011ko abuztuan antolatu zen. Emakumeen Auzitegi guztiak gure erakunde/sare lokal (nazionalak, zenbait Auzitegitan) elkartuekin elkarlanean antolatzen dira, eta guztietan *prozesuei* ematen zaie lehentasuna ekitaldiaren aurretik.

I. Emakumeen  
Auzitegiak

El Taller International  
eta Asiako  
Emakumeen  
Giza Eskubideen  
Kontseilua

Corinne Kumar

**Informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan honako honekin:**

### Courts of Women

No. 40, MEG Colony,  
Banaswadi Road,  
Bangalore - 560 033,  
India  
Tel + 91-8861784194 (mugikorra)  
91-80-25472568 (finkoa)  
91-80-25492781/2/3 (bulegoa)  
Skype: south wind  
Helbide elektronikoa: [eltaller.international@gmail.com](mailto:eltaller.international@gmail.com)  
Webgunea: [www.eltaller.in](http://www.eltaller.in)

### Vimochana, Forum for Women's Right

Asian Women's Human Rights Council  
No. 33/1, 9 and 10, Thyagaraj Layout  
Jaibharath Nagar  
Maruthi Sevanagar PO  
Bangalore 560 033  
India  
Telefonoa 91 – 80 – 25492782 / 1 / 3  
Faxa 91 – 80 – 25492782  
Helbide elektronikoa: [vimochana79@gmail.com](mailto:vimochana79@gmail.com)  
Webgunea: [www.vimochana.in](http://www.vimochana.in)  
[www.womeninblack.in](http://www.womeninblack.in)  
[www.marmara.org.in](http://www.marmara.org.in)

## II. Justizia berrimajinatu beharra

### Corinne Kumar

Emakumeen Auzitegien Nazioarteko Koordinatzailea.  
Vimochana, Forum for Women`s Rights, India.

<http://www.vimochana.net.in/home.html>

[www.womeninblack.in](http://www.womeninblack.in)



*Gauean barneratu gara gure historiaren berri emateko  
hitz egiteko aukerarik izan ez dutenei entzuteko  
gure seme-alabak hilda ikusi ditugu goizean, eta horregatik,  
haien amak garen heinean, ozenki oihu egin nahi dugu:  
ulertu gabe begiratu diegu, haiek zauriak irekitzen zituzten bitartean*

*Egia esan, ezerk ere ez du axola seme-alaben mina ez bada  
haien malkoek desagertu behar dute  
haien barne-isiltasuna hitza bera baino ozenagoa da  
eta gizaki orok eta bizitza orok amorruez egiten du garrasi  
ez gaituzte estutu behar gure egietara iristeko*

*esan ez dugun guztia adimenean dugu ongi gordeta  
eta jende-andana erresumindu horiek guztiek  
gidari eduki gaituzte milaka aldiz  
historia behin eta berriz entzun dezakegu  
beste behin adimena isilarazi digute, tristeziatik haratago  
hortaz, ezin gintezke beste ezeren beldur egon.<sup>1</sup>*

---

<sup>1</sup> Ipuin-kontalarien topaketa Sowetoko Haurrentzako Jaialdian Mazise Kunene, Ancestors and the Sacred Mountains (Arbasoak eta mendi sakratua)..

## Justizia berrimajinatu beharra:

Istoriaa aspaldi hasi zen, gure amonekin, eta, lehenago, haien amona eta birramonekin, istorio horiek belaunaldiz belaunaldi kontatu dituzte, behin eta berriz kontatu ere! Istorio sutsuak dira, ahozko istorioak, min- eta sufrimendu-istorioak, biziraupen-eta itxaropen-istorioak, malko- eta barre-istorioak. Eta hala ere, beti aurkitzen dugu ospakizunetarako denbora, kantatu eta dantzatzeko denbora, irudiak, poemak eta ametsak egiteko denbora, eta, beti, beti, istorioa kontatzeko denbora.

*Zendutako urretxindorraren istorioa  
atsegin handiz kontatuko nizuekeen  
Ezpainak moztu ez balizkidate  
atsegin handiz kontatuko nizuekeen istorio hori<sup>2</sup>*

Istorioaren zati batzuk ebakitako ezpainen bitartez kontatzen hasi dira, isiluneen bitartez. Emakumeak sufrimenduan aurkitzen ari dira hitza, amorruan, eta orain arte oinaze pribatu izan dena krimen publiko bihurtzen ari dira. Emakumeen aurkako indarkeria, indarkeria pertsonal gisa ikusi izan da, etxeko arazoei lotutakoa, eta beraz, arazo indibidualizatu eta pribatizatuen ondorio gisa. Alabaina, gizateriaren erdiaren aurkako krimenak dira, gizakia izateko eskubidearen urraketak. Emakumeen aurkako krimenak esparru pertsonalera baztertu ohi dira, eta, horrela, jendaurrean ezkutatu dira eta garrantzi politikoa ukatu zaie, eremu politikotik desagertuta.

Erakundeak zehaztutako esparruek eta justizia-tresnek, generoari bizkarra emanez, emakumea diskriminatu eta degradatu egin dute, legearen babesarekin. Emakumeak baztertuak, desjabetuak, gutxietsiak izan dira. Emakumeak, ikusezin bihurturik, baztertuak eta deuseztatuak izan dira. Ikusezintasuna, desagertzeak, emakumeen fetizidioa, haur-hilketa, dotearengatiko erailketak Indian, bortxaketak mundu osoan, emakumeen sexu-organoen ebaketa Afrikan, ohorezko krimenak mundu arabiarrean, pertsonen salerosketa eta sexu-indarkeria Asian eta abar. Gai horiek guztiak hizpide hartuta, emakumeei eskaintzen diegu hitza, nork bere istorioa kontatzeko aukera izan dezan.

Baina ez dugu orririk gure historiak idazteko, orri horiek aurkitu behar ditugu, sortu egin behar ditugu. Guk gure orri berriak idatzi behar ditugu istorioan, bide

<sup>2</sup> *Savish-al-Qasim, Palestina.*

berriak urratzeko, gure egia esatea galarazi diguten oztopo patriarkalak gainditzeko: ikusezin eginarazten gaituen oro ezabatu behar dugu, horrela bakarrik lortuko dugulako indarkeria inguratzen duen isiltasuna urratzea. Historia berriz kontatzeko, oroimenaren ahalmena berriz aldarrikatzeko, ahotsaren boterea berriz aurkitzeko.

Gogora ekarri behar dugulako nola biziraun dugun, zer hazi gorde ditugun, zer sendabelar erein ditugun, zer hari ehundu ditugun eta gure azalean zer idatzi dugun. Eta, aldi berean, gure kontzientzian murgildu behar dugu, zer dakigun aztertzeko eta gure egiak aintzat hartu eta jakitera emateko, gure aroko istorio-kontalariak baikara.

Botereari egia kontatzen hasi behar dugu, boterea erabiltzen eta manipulatzeko dutenekin hitz egin behar dugu, baina boteretik ez dutenei ere egia kontatu behar diegu, indigenei, tribuei, emakumeei, baztertutako eta zapalduetako herriei, boteretik ez duten pertsonei, izenik, aurpegirik eta eskubiderik ez dutenei. Boterearen periferiarako bidaia da gurea, non boterea berriz ere ehuntzen ari den ezintasunaren bilbea erabiliz.

Beste *justizia-nozio* bat ere hartu behar dugu hizpide, hau da, justizia eta erreparazio indibidual eta kolektiboak lortuz guztiok eraldatzeko baliagarri izango den jurisprudenziaz ere hitz egin behar dugu. Jurisprudentzia horrek baliagarri izan behar du krimenak testuinguruan *jari eta historian kokatzeko*, zigorretan, mendekuan eta *ordainetan* oinarritutako justizia batetik urrunduz erreparazioa bilatzeko, egian eta adiskidetzearan oinarritutako justizia bat izan behar du, justizia *indargarri* bat, *adiskidetzearan aldeko justizia* bat, pertsonak eta komunitateak adiskidetzeko gai izango dena. Emakumeen malko eta kontakizun horiek, *oinazearen*, hondamenaren eta pobrezia *gune* horiek guztiak akuilu hartuta, *beste justizia modu* bat pentsatu eta irudikatzeko gauza izan gaitzke? Zer ideia eta zer sentibilitate behar dugu justiziaren irudimena arakatu eta zabaltzeko? Afektiboa eta arrazionala (juridikoa) bereizteari uko egiten badiogu, *gune berezi* bat sortuko dugu, non emozio-eskakizunak bideratzeko eta trauma kolektiboa ulertzeko aukera izango dugun. Hori urrats bat izan daiteke jurisprudentzia hori gizarte zibilaren barruan berrimajinatzeko bidean; hortik abiatuta, sormen-mailan konektatzeko, gure pertzepzio kolektiboetan sakontzeko eta gure eguneroko errealitateen *testua* zer *testuingurutan* idazten ari den hobeto ulertzeko aukera izango dugu.

*Justizia beste era batera imajinatu behar dugu.*

## Imajinario politiko berri baterantz:

Garai bortitzak dira hauek: gure komunitatea eta gure oroimen kolektiboak hiltzen ari dira; amets asko amesgaizto amaiezin bihurtzen ari dira, eta etorkizuna gero eta zatikatuagoa ageri da; bizitzaren ikuspegi ugariak urratzen ari dira, bere egia *unibertsalak* —berdintasuna, garapena, bakea— sortu dituen *kosmologia bakar* batera murrizteko; egia horiek berezkoa dute diskriminazioa, baita bortizkeria ere.

Garapen-eredu berria gehiengo desjabetzen ari da, natura desakralizatzen ari da, kultura eta zibilizazioak hondatzen ari da, eta emakumeak iraindu eta gutxien ari da; terrorismoaren aurkako gerrak zalantza bortitzaren garaia ekarri du berekin; gerra ankerrak; baliabideez, petrolioaz, lurraz, diamantez eta minezalez jabetzeko gerrak: okupazio-gerrak, terrorismoa, globalizazioa eta frankiziaz mundu osoan; esamolde berriak agertzen ari dira garai berri honetan: *prebenzio-erasoa*, *alboko kaltea*, *kazetaritza atxikia*, *aurkako borrokalariak*, *auzitegi militarrek*, *entregatzea*, hitz berriak guztiak, *odolez zikindutako hitzak*.

Garai berri honetan, pentsamendu politiko, erakunde eta justizia-tresna nagusiek ezer gutxi egin dezakete areagotzen ari den *indarkeriari* aurre egoteko, garai berri honetan *aurrerapenak* askoren *genozidioa* eskatzen du, baita emakumeen *generozidioa* ere; indarkeria adierazpide modernoagoak hartzen ari da, garai berri honetan giza eskubideak pribilegiatuen eskubideak, boteretsuen eskubideak dira, eta masek, beren askatasun eta giza eskubideei eusteko, giza eskubide funtsezkoenari uko egin behar diote ezinbestean, *gizaki bat izateko eskubideari* alegia. garai berri honetan, bestearen *espazio politikoak* murrizten ari dira, bazuetan *desagertzeraino*.

Garai berri honetan aniztasuna suntsitzen ari da, munduak garapen-eredu edo garapen-zientzia bakar baterantz aurrera egiten duen neurrian. Dirudienez, munduari irudimena amaitu zaio. Nork uka dezake beste imajinario baten beharrean gaudela? Agian esanahi berriak bilatzeko unea iritsi da, esanahi-sistemak zatikatu diren honetan.

Irudimena baino ez zaigu geratzen, hori eta beldurra: beldurraren eraginez, ar-dien antzera jokatzeko dugu, poeten antzera amets egin beharrean.

Zenbait izar bilduko ditut, zuentzat sute bat piztuko dut eta istorio bat kontatuko dizuet: lzu- eta itxaropen-istorio bat da, desagertuei buruzko istorio bat, benetako bada ere magikoa ere baden istorio bat: Lawrence Thorntonek jaso du *Imagining Argentina* eleberrian. Diktadoreen mendeko Argentinari buruzko istorio bat da. Heroia Carlos Rueda da, gizon atsegina, haur-antzerki bat gogo handiz

zuzentzen duena eta hurren munduan primeran sentitzen dena. Diktaduraren garaian, Carlos dohain zoragarri baten jabe dela ohartzen da. *Bere baitan amets bat gordetzen duela konturatzen da. Desagertuekin zer gertatzen ari den konta dezake. Etxera jende asko etortzen zaio, hainbat gizon eta emakume Argentinako bazter guztietatik etorriak. Lorategian eserita, Carlosek istorioak kontatzen dizkie: torturari, ausardiari, heriotzari buruzko istorioak dira, *desagertuei* buruzko istorioak.*

Halako batean, erregimenak Cecilia emaztea atxilotzen du, erreportaje ausart bat egiteagatik. Carlosi mundua gainera etortzen zaio, baina laster erreakzionatzen du, eta irudimenean istorioak bizirik eutsi behar dituela ikusten du. *Carlosen ustez, irudimena gu eta beldurraren arteko hesi moduko bat da. Beldurraren eraginez, ardien antzera jokatzeko dugu, poeten antzera amets egin beharrean.*

Erregimenaren indarkeria areagotu ahala, emakumeen erresistentzia orduan eta handiagoa da. Emazteak, amak eta alabak *Maiatzeko Plazan* biltzen dira, isil-isilik. Bakoitzak pankarta bat darama, desagertuari buruzko iragarpen edo galdera batekin. Emakumeak aurrera doaz, isil-isilik, batzuetan elkarri eskutik helduta.

Ez da protesta-ekitaldi soil bat. *Zaintzaren eta maitasunaren* drama da. Istorio pertsonalak kontatzen dizkiote elkarri, elkar ukituz segurtasuna sentitzen dute, benetako komunitate-zentzu bat eratzeraino. Komunitatea hazi egiten da, gizonek emakumeekin bat egin ahala. Bitartean, jeneralek leihotik begiratzen diete, zelatan.

Jendea konturatzen da ezin daitekeela behatzera, ikusle soila izatera mugatu, aldamentetik pasatzean ezin daitezke axolagabe geratu, ezta *aditua izatearekin* konformatu ere. Ez da nahikoa behatzaileek erregimenarekiko axolagabekeriaz jokatzeko. Lekukoak behar dira. Lekukoak ez dira ikusle soilak. *Ikusteaz gain, entzun* ere egiten dute. Eta *gogoratu* ere bai.

Dena gogoratu behar da. Ezer ere ahanzturan gera ez dadin. Oroimenetik abiatuta, historia berreskuratuta behar dugulako. *Imajinario berria aztertu behar dugu, ez aditu gisa, lekuko gisa baizik.*

### ■ Imajinario berri bat behar dugu:

Imajinario berria ezin daiteke diskurtso nagusiaren bilgunea izan, *aurkako diskurtso* baten isla baizik, gaur egungo menderatze- eta indarkeria-adierazpideen sakoneko kritika batetik abiatuta. Imajinario berria ezin daiteke geratu indarkerian eta bazterkerian oinarritutako diskurtso eta sistema nagusietan.



Argentinako Maiatzeko Plazako emakumeak imajinario berri horren adierazgarri dira, eta horrexek izan behar du *diskurtso alternatiboaren* abiapuntua.

Imajinario hori bereizi egingo da behaketan eta deskribapenean geratzen diren metodologia eurozentriko eta androzentrikoetatik, metodologia horiek kuantifikatzera, ehunekoak ezartzera edo sailkatzera mugatzen baitira, ezartzen dituzten mugekin lortu edo azaldu ezin daitezkeen fenomenoei bizkarra emanez. Mitologia nagusia desegin behar dugu, diskurtso nagusiaren oldarrari aurre eginez, *Hegoa* globalizazioaren agendan eta terrorismoaren kontrako gerran, gerra komunaletan, erlijioaren izeneko gerretan, baliabideen aldeko gerretan integratzeari uko eginez. Imajinario berriak metodo sorta berri bat sortzea proposatzen digu, pentsamendu eta pertzepzio modu linealetik abiatuta modu *integralago*, *holografikoago batera* iristeko. Ahozko istorioetan metodologia kualitatiboak bilatzeko eskatzen digu, esperientziak aztertzeke proposatzen digu, kategoria arinak erabiliz, *ñabardurei erreparatuz*, poesian, mitoan eta metaforan *itzala bilatuz*. Jakintza modu berri bat probatzera gonbidatzen gaitu, Natura kontrolatu eta ustiatu gabe eta *Naturarekin konektatuz*: puska horiek guztiak elkartzeko, esentziari balioa emateko, beste espazio batera, beste garai batera mugitzeko, ezkutuko jakintzak berreskuratzeke, ahaztutako espazioak onbideratzeko.

Agian aurkituko dugu arau nagusien legitimitatea bilatzen ez duten *erresistentzia*-adierazpideetan, jurisprudentzia-paradigma nagusi batean edo zuzenbide-estatuan, imajinario berri bat itxuratzen hasi direnak: Egiaren Batzordeak, Ikustaldi Publikoak, Herri Auzitegiak eta Emakumeen Auzitegiak imajinario berri baten adierazpideak dira, eta ildo horretan, giza eskubideak ezin daitezke paradigma hegemoniko nagusiaren arabera definitu, ezta hartara mugatu ere.

Argi dago aro baten amaieran gaudela, eta une honetan, lehengo kategoriak zaharkituta geratzen ari direnez, itsumustuka gabiltza iluntasunean, berria aurkitzeko lehian. Hitz berriak aurkitzeko, bide berriak urratzeko gauza izango al gara, giza espirituaren materialetik abiatuta, sortuko al ditugu gizartean indarrean dagoen ordena esplotatzailea eraldatzeko aukerak, giza ahalmen handiago bat bereizteke? Beste aldaketa-ikuspegi batzuk imajinatu behar ditugu; kulturen eta beste tradizio batzuen arteko elkarrizketatik bilakatutako ikuspegiak landu behar ditugu.

Kulturen arteko elkarrizketa horiek logotipo patriarkalen totalitarismoari aurre egin behar diote eta hura gainditu behar dute, diskurtso unibertsalaren nagusitasuna bitartekari gisa erabili gabe.

### ■ Giza eskubideak beste era batera imajinatu behar ditugu.

Jakintza modu unibertsal bat behar dugu, baita emakumeak baztertu dituen mundu patriarkalaren ikuspegi bat ere. Baztertze eta ikusezintasun horiek adierazpide desberdinak izan dituzte kultura bakoitzean. Iranen, *chadorraren* (beloa) atzetik ezkutatu gintuzten. Egipton, sexu-organoak ebaki zizkiguten. Europan, sutean erre gintuzten sorginak ginela leporatuta. Indian, oraindik ere, emazte-gaiak izateagatik erretzen gaituzte. Txinan oinak lotu zizkiguten, eta oraindik ere, zenbait kulturatan, *'adimena eta espirtua lotzen dizkigute'*.

### ■ Ikusteko eta ez ikusteko modu bat da.

Eta ezinezkoa da emakumeak egungo paradigma patriarkal unibertsalen bitartez ikustea. Jakintzari, kontzeptuei eta kategoriei dagokienez egun indarrean dagoen ikuspegiaren arabera, emakumearen tokia itzalpean dago, emakumeen lana itzalpean dago, emakumeen bizitza itzalpean dago. Baina guk horren atzean zer dagoen ikusi behar dugu. Pentsamolde eta balioespen patriarkalen egundoko zama altxatu behar dugu, eta emakumeen aurkako milaka urteko estatus instituzionala ezabatu. Besteari gizatasun osoa kentzea ekarri duen jarrerari aurre egin behar diogu. Jarrera nagusiak subjektiboa eta objektiboa polarizatu eta bereizten ditu, eta horrek errealitatea faltsutzea dakar. Objektibotasuna eta subjektibotasuna ezagutzeko eta ulertzeko bi modu dira. Ez daude bereizita, elkarri lotuta baizik. Holistikoak eta konplexuak dira. Bereizketa horren, pertzepzio modu dual eta disjuntibo horren arabera, errealitate soziala polaritate-sistema baten bitartez aurkezten zaigu: beltza edo zuria, gizona edo emakumea, adimena edo materia. "Dikotomia, dualitatea, linealtasuna, jarraitutasuna. Horiek ez dira Naturaren, giza bizitzaren edo esperientziaren propietateak, ikasitako pentsamolde baten propietateak baizik", eta ikuspegi horren arabera, errealitatea kategoria zurrun, aurkako eta hierarkikotan zatitzen da. "Dualismoaren, aurkako poloen eta disjuntiboaren araberrako kontzeptu patriarkal horrek ordena eta pentsamolde lineal eta hierarkikoak indartzen ditu. Aurkako poloen lehentasunak ezartzen ditu. Bata ona da, eta bestea, aldiz, txarra. Kultura patriarkalen eta modu dualen arabera, 'jakintza-arloa eta adimenari eta espirtuari lotutako mundua gizonarekin uztartzen dira, eta gorputzaren eta materiaren esparrua, berriz, emakumearekin. Ikusmolde nagusiak balio handiagoa ematen die gizonezkoen ezaugarriei, eta horren eraginez, emakumea gizonaren mendean dago maila guztietan, psikologikoan, sozialean, ekonomikoan eta politikoan.

Alabaina, arrazionala eta intuitiboa bi pertzepzio modu dira, ezagutzeko bi modu, holografoaren bi puntu. Ez daude bata bestearen mendean. Bi *kontzien-*

tzia modu dira, eta, oro har onetsita dagoenez, giza adimenaren propietate be-reziak dira. Munduaren beste ikuspegi horretan, itxuraz elkarren aurkakoak diren bi polo horiek ez dira aurkako kategoria desberdinak, *osotasun bakar baten bi puntu baizik*.

### ■ Ezer ere ez da yin soilik edo yang soilik.

Egin behar duguna da ezagutzeko modu subjektiboa eta objektiboa berrasma-tzea, eta pertzepzio- eta jakintza-egitura berriagoak, sakonagoak eta aberatsa-goak sortzea.

Kolonizazio-proiektu globalak *Beste unibertsala* sortu duen bezala, boterearen hierarkia kultural espezifikoek Beste hori sortu dute beste zenbait testuinguru-tan: Indiako ukiezinak, Japongo Burakuak, Europako ijitoak, Sintiak, Magrebeko Amazeegak, Tuaregak, gutxiengoak eta emakumeak. Ezin ukatuzkoa da hainba-tek pribilegioak eskuratu dituztela eta hierarkia kulturalak sendotu egin direla ko-lonizazioaren erregimenean. Eta argi dago, halaber, azpikoen aurkako indarkeria areagotzen ari dela globalizazioaren aro honetan. Kasta menderatzaileek Indiako ukiezinak jipoitzeko *antolatutako indarkeria*; talde etnikoen aurkako sarraskiak, Bosnian adibidez; *emakumeak sistematikoki* isilaraztea erakunde fundamenta-listen eskutik, talibanen eskutik esaterako; nazio-estatuaren emaitza ere badira horiek guztiak; intolerantzia areagotzen ari da han eta hemen; eta gizarteak gero eta agresiboagoak, lehiakorragoak, maskulinizatuagoak, *militarizatuagoak* eta arrazistagoak dira.

Izan ere, azken batean argi geratu da *adimenaren eta gauza gehiagoren koloni-zazioa, gure imajinarioen kolonizazioa* azken batean, gure ondarerik iraunkorrena eta suntsitzaileena dela.

Ivan Illichek adierazi zigun *hogei urte eskasetan lortu zela mila milioi pertso-na azpigaratutzat jotzea*, gerra ondoko hazkunde-ereduari, merkatu-ekonomiari eta Bretton Woodsen sortutako nazioarteko ordena ekonomikoari aurre eginez. Osotasun sozial guztiak eredu bakar batera murriztu zituen, sistema zientifiko guztiak megazientzia batera, medikuntza indigena osoa medikuntza inperial ba-tera, jakintza guztia ezarritako pentsamolde batera, garapen guztia barne-pro-dukту gordinera, kontsumo-ereduetara, industrializaziora, mendebaldeko *homo economicusen* autoirudira, eta *homo economicus* ez da inoiz neutrala izan gene-roari dagokionez.

Imajinario berriak giza eskubideei buruzko beste diskurtso bat proposatzen digu, merkatu-ekonomia bati monokulturalismo bati, etika materialista bati eta es-tatu-nazioaren politikari eta gobernuari lotutako pentsamolde nagusiaren *uni-*

*bertsalismoetan* harrapatuta geratu gabe. Baina diskurtso hori ez da *kultura-espezifikotasunaren* diskurtsoarekin nahastu behar, *zibilizazio* eta kulturen arteko *elkarrizketaren beste etika* bat ekarriko du berekin. Giza eskubideen unibertsaltasunari buruzko ikuspegi berriak aurkitu behar ditugu, *errealitatearen beste kultura-ikuspegi batzuekin solasean*, beste garapen- eta demokrazia-nozio batzuekin mintzatuz, kontrako iritziak ere aintzat hartuz eta gainerako botere- eta gobernu-kontzeptuak (ez kontrolatzeko boterea, nagusitasunaren boterea, errazteko eta hobetzeko boterea baizik) eta berdintasun-nozioak kontuan hartuz, berdintasun horrek distirarik gabeko herritar anonimo bihurtzen gaituelako estatu-nazioaren esparruan. Sakonetik, *sustraietatik* datorren *duintasunaren* nozioa diskurtsoa aldatzeko gai izan liteke. Askotariko ahotsen bitartez, Emakumeen Auzitegiek duintasuna hartzen dute hizpide, baina ez berdin egiten gaituenaren ikuspegitik, bereizi egiten gaituenaren ikuspegitik baizik, eta desberdintasun hori pertsonen duintasunean, baztertutako eta deuseztatutako emakumeen duintasunean sus-traitzen da. Eta beste justizia-kontzeptu batzuk ere aipatzen dituzte, *mendekurik gabeko justizia* adibidez, diskurtso-aukera ugariak eskaintzen dituena, eta aukera horiek hor daude ezbairik gabe, oraindik begi-bistan ez baditugu ere.

Har dezagun *demokraziari* buruzko diskurtso unibertsala: mundua eraldatzeko hitz magiko berria, demokraziaren kontzeptu gailena alegia, eskubide indibidualen, jabetza pribatuaren, patriarkatuaren, etekinen eta merkatu-ekonomiaren nozioei lotzen zaie, ezinbestean. Denak berdinak garela esaten digute baina merkatuak *desberdintasuna*, parekotasunik gabeko banaketa *bermatzen du*, hau da, gutxi batzuek bakarrik edukitzea *bermatzen du*, gehiengo ez edukitzea kon-denatuta. Demokrazia hori berdintasun politikoaren erretorikaren gainean eraiki da. Zer egingo dugu erretorika horrekin, gehiengo zabal batek gero eta gutxiago daukala, eta pobrezia-aren atalase-mailaren azpian bizi dela kontuan hartuta? Demokraziaren interpretazio berriak bilatu behar ditugu, ilustrazioak eta haren Merkatuak askatasunari buruz sortutako kontzeptuaz aparte. Premiazkoa da politikoa berrasmatzea, *politikoari etikoa txertatzea*:

*Imajinario politiko berriak zaintzaren eta arretaren etika proposatzen du*<sup>3</sup>: Emakumeen Auzitegiak ditugu imajinario berri horren adierazgarri:

Emakumeen Auzitegiek historia berridazteko, historia berriz kontatzeko proposatzen digute, oroimenaren boterea berriz aldarrikatzeko deia egiten digute: *hegemoniaren aurkako historia*, bazterretako historia. Emakumeen Auzitegiak

<sup>3</sup> *Conversation on the Courts of Women in Asking, We Walk: South as New Political Imaginary*. 2. liburua, Corinne Kumarrek argitaratua, Streelekha, India, 2009.

bazterretarako bidaia dira, bidaia bat imajinatutako helmuga bat baino gehiago, eta, bidaia horretan, gure bizitzen egunerokotasunak hainbat aukera jartzen ditu gure imajinarioaren, gure biziraupenaren eta gure mantenuaren mesedetan, emakumeok konektatuta mantentzeko eta komunitate bat sortzeko lagungarri. Imajinarioaren ideia eta komunitatearen eta nortasunaren dimentsio pertsonal, politiko eta historikoak estu lotuta daudelako. Talde sozial jakin batzuek adierazitako urruntzeak bide eman du imajinario berriak eratzeko.

Imajinario berri horiek eratzen hasi dira, talde sozial horien, bazterrekoen, etxebizitzaren garestitasunaren, mugimendu sozialen, okupazio-mugimenduen, udaberri arabiarraren, indigenen eta emakumeen eskutik.

Emakumeak beste historia bat idazten ari dira, oroimen pribatu eta indibidualari *alderdi publikoa* erantsiz eta garrantzi politiko emanek diskurtso politiko berri bat sortzen ari dira, oroimenetik eta esperientziatik abiatuta. Emakumeen Auzitegiak sufritzen duten pertsonen eta bortxatutako pertsonen osatutako komunitateak dira, baina bizirik atera direnek, jakinaren gainean daudenek, petrikiloek, hazi-kontserbatzaileak, eta ipuin-kontalariak ere tokia dute bertan, baita oroimena eta hitza errebindikatzeko historia kontatzera jotzen duten pertsonen ere. Emakumearentzat espazio berri bat zehazteko eta espazio horri ikuspegi berri bat, *politika berri* bat ezartzeko ahalegina da. *Hego globaleko* ahots eta ikuspegi topagunea da. Emakumeen Auzitegiek ezagutzeko modu subjektiboa eta objektiboa aldarrikatzen dituzte, jakintza-egitura aberatsagoak eta sakonagoak sortuz, non behatzailea eta behatutako pertsona, ikertzailea eta ikerketa, pobrezia eta pobreak elkarrengandik gertu dauden. Emakumeen Auzitegiek errealtate *objektiboa* aztertu nahi dute emakumeen testigantza *subjektiboak* erabiliz, arrazionala eta intuitiboa, logikoa eta lirikoa, pertsonala eta politikoa uztartuz. Emakumeen Auzitegiak ahots subertsiboak goستن dituzte, desobedientziaren bitartez gerraren eta okupazioaren, indarkeriaren, patriarkatuaren eta pobrezia-aren kontakizun nagusia eraldatzen duten ahotsak.

Mexikoko Chiapaseko nekazariak, beren imajinario berria deskribatzean, mantenuaren aldeko borrokan eta beren bizi-munduaren kontserbazioan jartzen dute ardatza. Ongi zaindutako antolamendua dute, eta haien imajinario eta ikuspegi politikoek ez dute egia argi, zurrun edo unibertsalik eskaintzen. Horrenbestez, bidaia oso preziatua dela jakinik, bi hitzetan laburtzen dute beren ikuspegia:

### ■ Galdezka, aurrera goaz.

Galderak kontakizun nagusiari erronka jotzen dio zuzenean, jabearen etxeari, arrazoimenaren etxeari, egia unibertsalei, boterearen, politikaren, pribilegioaren

eta etekinaren egiei. Zapatistek, beste logika bat eskaintzen dutenez, imajinario berri horrek eduki ditzakeen mugak marratzen dituzte.

Imajinario politiko berriak *jabearen etxea eraisteko* eskatzen digu, eta, Audre Lorde poetak dioenez, *jabearen tresnek ez dute inoiz jabearen etxea botako*.

Premiazkoa da klaseko, kastako, generoko eta arrazako diskurtso nagusiaren be-rezko kontakizun nagusiaren logika zentralizatzaileari aurre egitea. Logika nagusi hori indarkeriaren eta bazterketaren logika da, goi-mailakoaren eta behe-mailakoaren logika, zibilizatuen eta zibilizatu gabeen logika.

*Logika zentralizatzaile hori deszentralizatu behar da, eten egin behar da, eraldatu egin behar da.* Emakumeen Auzitegiak etete hori, inbasio hori hartzen dute hizpide. Emakumeen Auzitegiak jakintza- eta politika-paradigma berriak aurkitzen ari dira, politika zaintzaren, kezkaren, komunitate-zentzuaren eta konexioaren zerbitzuan jartzeko: *etikaren arabera politikak*; guztiok ere eralda gaitza-keen ikuspegi politiko bat.

Emakumeen Auzitegiak behartsuen ahotsak txertatu dituzte diskurtso politikoan, testigantzen bitartez. Emakumeen Auzitegiak, imajinario politiko berri bat bilatzeko ahaleginean, *zaintzaren etikaren arabera politikak* bat lortu nahi dute, pobrezia buruzko teoriak, zaintzaren eta arretaren teoriekin loturirik ez badute (pobrezia atalase-mailak, Munduko Bankuaren eguneko dolar bateko definizioa, milurtekoaren garapen-helburuak, pobrezia murrizteko estrategiak eta abar), ez dutelako bestearen ahotsa entzungo, pobreak guztiz baztertuta. Imajinario politiko berriak zaintzaren eta arretaren etika aipatzen du bestearenganako erantzukizuna azpimarratuz, errukia, konexioa, komunitate-zentzua eta adeitasuna aintzat hartuko dituen etika (Ivan Illichen esaldi zoragarria). Eskubideen diskurtsoak eta praxiak ezin dezakete soilik emantzipazio ekonomikoa eta politikoa ekarri; egungo pentsamendu- eta politika-paradigmei aurre egiteko gauza ere izan behar dute.

Emakumeen Auzitegiak zenbait errealitate kultural eta politikotako emakume eta erakundeak bildu dituzte, askotariko ideologia eta ikuspegiak erakusgarri. Hala ere, osatzeko eta erresistentziako, justiziako eta bakerako espazio kolektibo bihurtu dira, gaur egungo politika bortitz zatitzailea gaindituz. Eta hori hala da, halaber, Auzitegiak baterako lanaren beste etika bat garatu dutelako, non *desberdintasunak aberasgarri diren, elkarrizketa zatikatu* beharrean.

Imajinario berri baten adierazpena diren heinean, Auzitegiak botereari egia kontatzeko modu berriak aurkitzen ari dira, botereari aurre egiteko modu berriak, garai honetako ideia eta erakunde azpiko kontzeptu eta kategoriak indarkeria kontrolatzeko gauza ez direla onartuta. Emakumeen Auzitegiak botereari egia

kontatzeaz arduratzen dira, baina beste zerbait ere egiten dute. Boterea kritikatzeko erakundea osatzen dute, baina zerbait gehiago ere badira. *Beste agintari bat sortzeko* lanean ari dira. Emakumeen Auzitegiek babesgabeen egia ere aipatzen dute mundua kontzientziatzeko, eta erreferentzia berriak sortzen dituzte zuzenbide-estatuaz haratago, *politikaren etikara* itzuliz. Gure egiturak, gure adimenak eta gure irudimenak *deskolonizatzeko* eskatzen digute, imajinario nagusitik aldentuz, eta, Zapatisten hitzetan, *mundu asko besarkatzen* dituzten munduak aurkituz. Emakumeen Auzitegiek subsumitutako kulturak, menderatutako herriak, isilarazitako emakumeak hartzen dituzte hizpide. Emakume horiek *ahots politikoa eskatzen dute* eta, isiltasuna urratzeko, botereak bere kontrol patriarkalari eusteko jartzen dituen baldintzei uko egiten diete.

Emakumeen Auzitegiak *giza espirituari zor zaion zergak dira*. Auzitegi horietan, testigantzak, entzun ez ezik, legitimatu ere egiten dira. Menderatutako eta isilarazitako emakumeei haien aurkako krimenak kontatzeko gonbita egiten zaie. Ideologia nagusi legitimatzaileei balioa kendu nahi zaie, emakumeak beren *bizi-munduetara* eramateko. Emakumeen Auzitegiek ahots subertsiboak goستن dituzte, desobedientziaren bitartez gerraren eta okupazioaren, indarkeriaren, patriarkatuaren eta pobrezia-aren kontakizun nagusia eraldatzen duten ahotsak.

### ■ Gure irudimenerako espazio berriak aurkitu behar ditugu:

Emakumeen Auzitegiek beste lirika bat, beste logika bat eskaintzen dute, adorea emateko, imajinario berri bat sortzeko, beste amets bat eskaintzeko lagungarri.

Beste garai bateko, beste toki bateko, beste logika bateko istorio bat etorri zait burura: inporta ez bazaizue, istorioa kontatuko dizuet: Zaintza-istorio intenporala da, beste imajinario bateko istorio bat; Tagorek *Pobreen aberatsei* buruz idatzitako istorioa da;

Behin batean, aspaldi, eta atzo ere bai, *garai ilunak* ziren; gosete-garaia ere bazen, eta horren ondorioz *Shravastiko* lurra suntsitzen ari zen jendea bildu egiten zen, jende behartsua, gose zen jendea

Budak, bertaratutako guztiei behatuz, zera galdetu zien jarraitzaileei: *nork elikatuko du jende hori? nork zainduko ditu? nork elikatuko du gosez den jende hori?* Ratnakar bankariari begiratu zion, erantzun baten zain: Ratnakarrek lurrera begiratu eta erantzun zion: *Ene jauna, dudan aberastasuna baino askoz ere gehiago beharko litzateke gosez den jende hori guztia elikatzeko*; Orduan Budak Jayseni begiratu zion, Erregearen armadako buruari Jaysenek berehala esan zuen: *Ene Jauna, ez bairik gabe nire bizitza emango nizuke, baina nire etxean behar adinako janik ez dago*; Gero Dharampalen txanda iritsi zen, larre handien jabearen txan-

da. Hasperen egin eta zera esan zuen: *Haizearen Jainkoak gure lurak idortu ditu, eta ez dakit zer egin erregearen zergak ordaintzeko.*

Jendea adi-adi zegoen, baina gosetuta jarraitzen zuten: Eskalearen alaba Supriya ere bertan zegoen, adi-adi entzuten, eskua altxatu, zutitu eta zera esan zuen: *nik zainduko ditut pertsona horiek.*

Nola egin lezake?, pentsatu zuten zer egingo luke aberastasun materialik gabeko eskale baten alabak bere nahia betetzeko? *baina nola egingo duzu?*, esan zioten denek batera Supriya ezti eta sendoak bertaratuei behatu eta zera esan zien: *Egia da zuetako guztien pobreena naizela, baina horretan datza, hain zuzen, nire sendotasuna, nire altxorra, nire aberastasuna, zuen etxeetako ate guztietan hori guztia aurkituko dudalako.*

Supriyaren hitz eta ekintzak beste logika batean oinarritzen dira: jabetzaren, etekinaren patriarkatuaren logika baztertzen du, eta *zaintzaren beste etika* baten arabera jokatzeko gonbita egiten digu. Haren begietan, pobreek *persona dui-nen komunitate bat* osatzen dute harremanen ikuspegitik; hortaz, ez dira unitate indibidual eta independenteak, eta, ildo horretan zera dio, munduan jende asko imaginario nagusiaren logika kolokan jartzen ari dela, emakumeen jakintza eta jakituria birsortuz eta emakume guztion ametsa berraurkituz komunitateak ber-rasmatu eta berreraikitzeke.

Beste amets bat behar dugu: Amets desberdin horretan parte hartzeko gonbita egin behar diogu elkarri; Beste justizia modu batzuk berrimajinatu behar ditugu, diskurtso patriarkala irauliz, ustiatu gabeko eremuetan sartuz, testuinguru objektiboaren araberrako testu subjektiboa idatziz, jakintza eta kontakizun sakonagoe-tan barneratuz, hitz egiten duten askori eta hitzik ez duten askoz ere gehiagori entzunez, izenik, aurpegirik eta ahotsik ez dutenei ulertuz, eskubiderik ez dutenak ordezkatuz, dantzaria eta dantza biak banantzeari uko eginez. Gu, dantzariak ez ezik, dantza ere bagarelako!



Lisa Suhair Majaj poeta palestinarra Argiaren Oroimenari buruz mintzo da. Hona pasarte batzuk:

*indarkeria-garaian,  
argiak argia oroitzen du,*

*ezkutuko tokiak bilatzen ditu,  
arrakala guztiak betetzen ditu*

*argia barneratzen da  
emakumeak erail dituzten bazter guztietan,  
etxeetan, kaleetan, etxeetako sarreretan;  
argiak odol-orbanak aurkitzen ditu*

*argia sartzen da, halaber,  
gorpuak bota zituzten putzuetan*

*argiak gogo handiz bilatzen ditu  
soinua isilarazia izan den tokiak*

## Emakumeak eta erresistentzia: emakumeen aurkako indarkeria matxistako esperientziak Afrikan eta Asian

**Amal Khreishe**

Palestinian working women society for development - PWWSD

<http://www.pwwsd.org/en/>



## Testuinguru orokorra eta oinarria

Palestinako gizartea eta ekonomia etengabe eta nahita suntsitzen ari dira. Lurraren, lanaren, demografiaren eta gizartearen eraldaketa harrigarria izan da. Palestinako lurralde okupatueta egungo egoerak dimentsio anitzeko eta nahas-tutako faktoreen labirintoa dirudi. Egungo testuinguru osatzen duten geruza ugariak zenbaitetan Palestinako testuinguru definitzen duen faktore nagusia ez-kutatzen dute: Palestinako lurren etengabeko okupazio koloniala Israelen aldetik, eta giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen etengabeko urratzea. Israelen eta palestinarren arteko gatazka maila baxuko etengabeko indarkeriari eta giza eskubideen urratzei lotu zaizkie, gatazka eta desplazamendu sakoneko aldiak tartekatuz. Horren emaitza, pertsonentzako segurtasunaren, mugimendu-askatasunaren eta baliabideetarako eskuragarritasunaren pixkanakako baina gupidagabe-ko murrizketa izan da. Zazpi bat milioi palestinar daude munduan zehar des-plazatuta. Planetako desplazatu-talderik handiena da. Kalkulatu da 1.836.000 errefuxiatu Palestinako lurralde okupatuetan bizi direla, eta beste 2,7 milioi Siria, Libano eta Jordanian. Milaka palestinar, eta israeldar kopuru txikiagoa, hil dituzte. 46 urteko okupazioaren ondorioz, krisi politiko eta sozioekonomiko askok estatuko gizarte-zerbitzuak, azpiegitura eta eraikuntza ahultzen jarraitzen dute. Gai Humanitarioak Koordinatzeko Bulegoak (OCHA) Palestinako lurralde okupatuetan dagoen egoera giza duintasunaren krisizat jotzen du, non Palestinako biztanle guztiei oinarritzko eskubideak ukatzen zaizkien, adibidez mugimendua, autodeterminazioa, enplegua eta zerbitzuak. Munduko Bankuaren arabera, Zis-jordanian langabezia % 19 ingurukoa da eta Gazan ia % 30ekoa. Ekonomia erori denez, palestinar gehiago daude laguntzaren mende. Horrek guztiak Palestinako ekonomiaren narriadura ekarri du, krisi humanitarioa, gero eta pobrezia-maila handiagoa, beherakada soziala eta eguneroko bizitzaren suntsipena ekartzen di-tuena. Alderdi horiek eragin dituzten gizarte-talde nagusiak, espero zen bezala, talderik kalteberenak izan dira; batez ere emakumeak eta haurrak.

**Maila politikoan**, egoerak blokeatuta jarraitzen du eta ez da espero aldatuko denik, okupazio israeldarrak bere horretan jarraitzen baitu. Zisjordanian, egunero palestinarren eskubideen urratzeak gertatzen dira, adibidez okupazioko armada israeldarrak eta legez kanpoko kolonoek egunero egiten dituzten eraso, sarraldi eta sarekadak, eta horiek zera ekartzen dute: hilketak, atxilotetak, lurren konfiska-zioak, bizitzeko eta mugitzeko eskubideen gabetzea, eta egonkortasun eko-nomiko, sozial, kultural, politiko eta psikologikorik eza. Okupazioaren indarkeria handiagotuz joan da, hildako, zauritutako edo atxilotutako palestinarren kopu-ru gero eta handiagoak eta lurrera botatuko etxe palestinarren kopuru handiak adierazten duen moduan. Horri guztiari emakume, haur eta zaharren eguneroko

## 2

**Emakumeak eta erresistentzia: emakumeen aurkako indarkeria matxistako esperientziak Afrikan eta Asian**

Amal Khreisheh

beldurra gaineratu behar zaio, eta bitartean legez kanpoko asentamendu juduak zabalduz doaz eta lur palestinar gehiago konfiskatzen dira. Gazako Zerrendan egoera inoiz baino txarragoa da: 1,5 milioi lagun inguru aire zabaleko espetxe batean itxita bizi dira Gazako Zerrendak jasaten duen lur, itsaso eta aireko setioaren ondorioz. Israeldarrek eraso basatiak egiten dituzte behin eta berriz, eta heriotza- eta suntsipen-arrastoa uzten dute. Palestinar zibilen aurka behin eta berriz egiten diren eraso horiek, biztanleen dentsitatearen gehikuntzarekin, eskura dagoen luraren murrizketarekin, israeldarrek mugaren inguruan mugikortasunari dagokionez inposatzen dituzten legez kanpoko murrizketekin eta muga ingurutik Gazako Zerrendako barnealdeko guneetara segurtasun pertsonala bilatuz egiten den barne-desplazamendurekin batera, batez ere israeldarren erasoak daude, egoera orokorraren narriadura handiagoa dakarte. Langabezia, pobrezia eta muturreko pobrezia handitzen ari dira. Gazako Zerrendari buruz egindako azterketek adierazten dute jendeak ez duela elikadura-segurtasunik eta biztanleen % 75ek ez dutela bizitzeko baliabiderik, kanpo-laguntzak salbu. Gainera, haurrek desnutritzioa dute, eta jendeak, oro har, osasun-arazoak, traumak eta galerak jasaten ditu.

Israeldarren azken erasoak (2014ko udan 51 egun iraun zituen) hildako 2.200 palestinar baino gehiago, milaka zauritu (gehienak haurrak, emakumeak eta zaharrak) eta 140.000 desplazatu baino gehiago eragin zituen. Giza Eskubideen Zentro Euro-Mediterraneoaren arabera, 489 emakume hil zituzten israeldarren erasoan, hildako palestinarren guztizkoaren % 22a, eta 3.532 emakume zauritu zituzten, zauritutako guztizkoaren % 31. Gainera, 11.000 emakume baino gehiago eraso horretan beren etxeak uztera behartu zituzten, eta babesleku eta eskoletan babestu ziren, bertan inolako segurtasunik eta pribatutasunik izan gabe. Beren familiek bezala, traumak, baldintza sanitario txarrak, pobrezia eta sendagairik, urik eta oinarritzko elikagairik eza jasan behar izan zituzten. Era berean, 53 familia baino gehiago erabat sarraskituta geratu ziren erasoaren ondoren. Israelek jomuga zibilei egindako bonbardaketa eta arma sofistikatu eta debekatuak biztanle-dentsitate handiko zona zibiletan erabiltzea, gizateriaren aurkako gerra-krimenak eta nazioarteko zuzenbidearen, nazioarteko arau humanitarioen eta Genevako hitzarmenen aurkako urraketa nabarmenak dira.

Narriadura politikoak **giza eskubideen** narriadura dakar: israeldarren okupazioaren etengabeko praktikek, okupazioko armada israeldarrenak eta kolono judu armatuenak barne, giza eskubideen narriadura handia eragin dute, batez ere C Area deitutakoan eta Zisjordaniako apartheidaren harresiaren inguruko guneetan. Gazako Zerrendan egoera inoiz baino txarragoa da: 1,5 milioi lagun inguru aire zabaleko espetxe batean itxita daude Gazako Zerrendak jasaten duen lur, itsaso eta aireko setioaren ondorioz. Israeldarrek erasoak egiten dituzte behin

eta berriz, eta heriotza- eta suntsipen-arrastoa uzten dute. Gazako Zerrendari buruz egindako azken azterketek adierazten dute jendeak ez duela elikadura-segurtasunik eta biztanleen % 75ek ez dutela bizitzeko baliabiderik, kanpo-laguntzak salbu. Gainera, haurrek desnutrizioa dute, eta jendeak, oro har, osasun-arazoak eta gaixotasun kronikoak jasaten ditu. Giza eskubideen urraketek emakumeengan zuzeneko eta zeharkako eragina dute, gatazkak beren familietan duen eragina jasan behar dutelako. Azpimarratzekoa da 2014an Agintaritza Palestinarrak NBERi lotutako giza eskubideei buruzko 5 trataturi atxiki zitzaizkiola: Arraza Diskriminazio mota oro Ezabatzeari buruzko Nazioarteko Konbentzioa (CERD), Torturaren eta bestelako Tratu eta Zigor krudel, anker eta umiliagarrien aurkako Konbentzioa (CAT), Emakumearen Aurkako Diskriminazio mota oro Ezabatzeari buruzko Konbentzioa (CEDAW), Desgaituen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioa (CRPD) eta Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa (CRC). Alde batetik, aurrerapen bat bezala ikusten da, baina bestetik, emakumeen erakundeentzat eta gizarte zibilarentzat erronka handia da konpromiso horiek aplikatu daitezkeen lortzea.

## Egoera sozioekonomikoa

**Maila ekonomikoa** israeldarren neurri kolonialeari erabat lotuta dago. Egoera orokorrak zaila izaten jarraitzen du eta emakumeak dira talde kalteberena. Israelek Zisjordaniako baliabide naturalak kontrolatzen dituen bitartean, palestinar askok kanpo-laguntzen mende jarraitzen dute. Lurren konfiskazioak eta jarduera kolonialistak inoiz ez bezalako mailalara iritsi dira. Palestinarrei Zisjordaniaren eremuaren ia % 60ra sartzea debekatzen zaie. Ondorioz, langabezia- eta pobrezia-indizeak handitzen ari dira. Palestinako lurralde okupatuek beherakada ekonomikoa jasan dute azken urteetan, produzitzeko zuten ahalmena etengabe murrizten joan den heinean. 2011. urtean barne-produktu gordina (BPG) % 5 erori zen. Orain, kalkulatu da Palestinako lurralde okupatuetako biztanleen % 66 pobrezia-atalasearen azpitik bizi dela (% 88a Gazan). Langabezia-indizea % 24,2koa da (% 35a Gazan eta % 19a Zisjordanian). Emakumeek hezkuntzaren arloan egin dituzten lorpenak (goi-hezkuntzan matrikulatutako % 50a emakumeak dira) ez dira enpleguan islatzen: lan-merkatu formalean emakumeen parte-hartzea % 15,2 dela kalkulatu da (% 17,7a Zisjordanian eta % 8a Gazan). Unibertsitate-titulazioak dituzten emakumeen langabezia-tasa % 34koa da, eta 15 eta 24 urte bitarteko gazteak langabezian dagoen guztizkoaren % 67a baino gehiago dira. Langabeziak dakarren presioaz gain, gazteekin eskulana handitu egiten da: kalkulatu da urtero 40.000 gazte inguru sartzen direla lan-merkatuan. Emakumeek lan-diskriminazio sistematikoari aurre egin behar diote, eta errefuxiatuak bereziki

## 2

**Emakumeak eta erresistentzia: emakumeen aurkako indarkeria matxistako esperientziak Afrikan eta Asian**

**Amal Khreisheh**

kalteberak dira. UNRWArek zifrek adierazten dutenez, errefuxiatu palestinarren erregistratutako etxebizitzaren % 16,9an emakumeak buru izan arren, egoera bereziki zailean dauden familiei laguntzeko programan parte hartzen duten etxeen % 46,8 ordezkatzaren dute. Palestinako lurralde okupatueta kooperatibak bizi-rauteko eta erresilientziako bitarteko garrantzitsua izan arren, eta langileen % 15a biltzen duten arren, emakumeek kooperatibetako kideen % 20 baino gutxiago ordezkatzaren dute eta langileen % 18a kreditu/aurrezkiko kooperatibetan eta artisautza-kooperatibetan kontzentratzen da. Beraz, WWSDk hainbat emakume-kooperatiba sortu ditu Palestinako lurralde okupatueta, haien ahalmenak handitzeko eta emakumeak ahalduzko, batez ere eremu behartsuetan. Kooperatiba horiei nazioarteko merkatuetan sar daitezela laguntzen saiatzen gara. Hala eta guztiz ere, PANak eta Palestinan lan egiten ari den emaile-komunitateak konpromiso politiko positiboa hartzea eskatzen du horrek.

Emakumeek lan-merkatuan sartu eta geratzerakoan aurre egin beharreko oztopoen artean, emakumeen etxeko dedikazioa eta ugalketa-zeregina bultzatzen duten sistema sozial patriarkalak daude. Emakumeak lanean betetzen duen zeregin eta posizioari buruzko genero-estereotipoak ohikoak dira, eta politiketan nahiz praktikan islatzen dira. Gainera, emakume langile gehienek, maila formaletan nahiz informaletan, nekazaritza-sektorean lan egiten dute. Harresiak eragin suntsitzailea izan du sektore horretan, eta emakumeengan zuzeneko eragina izan du. Emakume askok diru-sarreraren iturria galdu zuten, eta ondorioz, komunitatean jokatzeko zuten paper ekonomikoa ere galdu zuten, bizitza publikoan oro har emakumeen papera defendatzeko funtsezkoa izan arren. Jende guztiaren artean, eta bereziki emakumeen artean, langabezia-indizeak etengabe handitzeaz gain, ingurune ekonomikoaren ezaugarri nagusia lan-aukeraren eskasia eta beherakada da. Era berean, eskura dauden lan-aukerak, mugatuak badira ere, mesede handiagoa egiten diete gizona emakumeei baino, eta eskulanaren parte-hartze mailan, soldatetan eta langabezia generoen arteko diferentzia begi-bistan dago oraindik ere. Hori pobrezia ere aplikatzen zaio, gero eta zapaltzaileagoak diren neurri israeldarrekin handitzen ari baita, eta neurri horiek toki, giza eta finantza baliabideak itotzen dituzte. Emakumeak eta haurrak pobreen artean pobreenak bezala sailkatuta daude, eta ondorioz, emakumeek gero eta zeregin gehiago bete behar dituzte. Palestinako Agintaritza Nazionalak, Lanaren Nazioarteko Erakundearekin, Palestinian MoL delakoarekin eta gizarte zibilaren erakundeekin lan-kidetzan emakume palestinarrei lan-merkatuetan sartzen laguntzeko xedez, Emakumeen Enplegurako Batzorde Nazional Berezi bat sortu bazuen ere, batzorde hori oso inaktibo dago eta finantzaketa eta babesa behar ditu. PWWSDk, emakumeen mugimenduaren zati den heinean, diskurtso sozial patriarkal horri aurre egin dio etengabe eta emakumeek eskubide osoko herritar gisa dituzten eskubide zibilak nabarmentzen ahalegindu da, CEDAWren (Emakumearen Aurkako Dis-

kriminazio mota oro Ezabatzeari buruzko Konbentzioa) arabera, esparru publiko eta pribatuetan. Emakume palestinarrek aktiboki parte hartu dute askatasunaren eta duintasunaren aldeko borrokan, eta estatua eraikitzeke ahaleginetan.

## Emakumearekin zerikusia duten arau sozialak

Palestinako lurralde okupatueta eta, batez ere, landa-eremuetako familia-bizitzak hainbat mendetako antzinatasuna duen sistema patriarkalaren eragina jasaten jarraitzen du. Gatazkak eta modernitateak, hezkuntza eta garapen ekonomikoa barne, Palestinako lurralde okupatueta kultura eta familia-egiturak aldatu badituzte ere, beren etxeen barnean eta kanpoan gizonen eta emakumeen arteko harremanak arautzen dituzten portaera nagusiek sistema horretan dute jatorria. Askotan portaera horiek zuzenbidean eta antolaketa-prozeduretan instituzionalizatuta daude, esate baterako: jabetza-eskubideei dagokienez gizonen eta emakumeen artean dagoen desberdintasunak zera dakar, emakumeen oinordetza-eskubideak konfiskatuta geratzea arau sozial tradizionalista horren ondorioz, eta interpretazio erlijioso distorsionatuak baliatzen dira emakumeei eskubide horiek kentzeko. Horixe izan da gure motibazioa Europar Batasunak eta Dan-Church Aid erakundeak YMCArekin eta Gazako Women's Affairs Centre-rekin lankidetzan finantzatu duten 3 urteko egungo proiektuan, hau da, eskubide hori publikoki azpimarratzea, emakumeak eskubide horiei buruz sentsibilizatzea, eta haiek ahalduntzea justizia bilatu eta lor dezaten. Proiektu horrek arduradun politikoei eta botere judizialei ere presioa egin zien, egungo legeetan beharrezkoak ziren aldaketak egin zitzaten eta emakumearen eskubideak babesteko xedez lege berriak onar zitezen. Ahaidetasunean oinarritzen den zaintza-sistemari lotutako beste portaera eta jokabide batzuk ere nabarmentzen dira, hala nola: neskek eta emakumeek gizartean onartu behar dituzten rol jakin batzuen sozialisazioa; emakumeak, legez, beren aiten edo senarren jabegotzat jotzen dira; gizonek lan jakin batzuk egiteko lehentasuna; emakume ezkongaien birjintasunarekiko gurtza; emakumearen portaera eta obediencia azpimarratzea, bereziki jendaurrean dagoenean, non emakume batek familiari desohorea edo ohorea deitutakoa ekar diezaiokeen; patriarkarekiko begirunea eta zereginen banaketa desberdina, emakumeak ugalketara eta familia-produkzio ordaindu gabera mugatzen dituen. Arau tradizional horiek ez dituzte onartzen emakumeen zeregin multidimentsionalak, eta babes sozialik gabe uzten dituzte, bereziki lan informalearen sektorean.

Israeldarren okupazioak ere genero-desberdintasuna bultzatu du palestinako lurralde okupatueta, familia-egitura tradizionalak eta genero-harremanak aldatu

## 2

### Emakumeak eta erresistentzia: emakumeen aurkako indarkeria matxistako esperientziak Afrikan eta Asian

Amal Khreisheh

dituelako. Gizonezkoen migrazioak, espetxeratzeak eta martirioak direla medio, okupazioari, gatazkari, familietako krisiei, diru-sarreraren galerei, guraso zaharrei eta gaixotasunari modu zuzenagoan aurre egin behar izan diete emakumeek. Izan ere, okupazioak zuzeneko nahiz zeharkako eragina du emakume palestinarren. Okupazioaren zeharkako eta denbora luzeko ondorioak jasaten ditu, egoerak sortzen dituen frustrazio psikosozial eta ekonomikoez arduratu behar baitu. Amnesty Internationalek adierazi du okupazioak ekarri duela emakumeek gero eta zeregin tradizional gehiago beren gain hartu behar izatea zaintzaile gisa, eta indarkeria-gorakadak prestakuntza txikiko eta gaitasun komertzialik gabeko alarguntsak utzi dituela, orain beren gizonezko senitartekoen eskuzabaltasunaren mende egonik. Horixe izan da gu emakumeen eta nesken larritasun psikosoziala tratatzen ari izateko arrazoi ugarietako bat. Okupazioaren dimentsio geografikoak ere badu bere zeregina genero-harremanen aldaketan: israeldarren Apartheidaren Harresiak eta kontrolguneek emakumeen bidaiatzeko aukerak mugatzen dituzte, eta emakumeek etxetik kanpo zituzten erantzukizun gutxi haietaz ere gizonek arduratu behar izatea ekar dezakete. Kontrol-puntuetan haurrak erditu dituzten emakumeen kasuak ere izan dira, baita jaiotzen inguruko antsietate-maila handiak ere. Landa-eremuetan bizi direnak kalteberagoak dira. Gizarte zibilak lanean dihardu emakumeen oinarrizko sanitaterako sarrera errazteko. OCHA eta nazioarteko beste erakunde batzuek adierazi dute 69 kontrol-puntu baino gehiagotan emakumeen trauma ugari gertatu direla eta guk bertan emakumeei laguntza psikologikoa eman diegula.

Egungo krisi ekonomikoan dagoen gizonezkoen langabeziak emakumeek etxetik kanpo lan egiteko ideia hobeto onar dezaten ekar dezake. Hala eta guztiz ere, ekonomiaren ahultasun orokorrak eta merkatuan dagoen genero-joera argiak mugatu egiten dute emakumeek egoera hori aprobetxatzeko duten aukera. Aldi berean, gizonezkoen langabezia-tasa handiak "gizonezkoen identitatearen krisia" ekarri du, gizonek tradizionalki izan duten hornitzaile-zeregina betetzeko gai ez direla ikusten dutelako. Frustrazio horiek, zuzenbidearen eta ordenaren krisi orokorrago batekin batera, etxeko indarkeria-mailen igoeraren arrazoi bat izan daitezke. PWWSDk 2002. urtean egindako inkesta batean, inkestatuen % 82k okupazio israeldarraren indarkeriarekiko esposizio normalizatuarekin erlazio zuten zuzenean etxeko indarkeria. Era berean, 2014. urtean nabarmen gehitu ziren emakumeen hilketak, 19 guztira, eta aurreko urteekin alderatuta hori izan da kopururik handiena. Era berean, erregistratutako indarkeria-kasuak ere handitu dira, eta biktima izan ziren 160 emakume PWWSDrekin harremanetan jarri ziren. Horri guztiari suizidioen gehikuntza eta delinkuentzia-maila handiagoak gaineratu behar zaizkio. Polizia Departamentuko Ikerketa, Garapen eta Plangintzako zuzendariaren arabera, 2013an pelean izan ziren egindako hilketen jatorri nagusia, arrazoi guztien % 35a hain zuzen ere. Ohore-krimenak deitutakoek



hilketen % 15a eragin zuten. Gainera, 485 suizidio-saio erregistratu ziren (172 gizonezkoak eta 313 emakumezkoak), eta 2014. urtean 27 suizidio-kasu erregistratu ziren iturri berdinen arabera. Emakumeen hilketa-kasuen jarraipenari esker, ikusi zen etxeko indarkeria (arrazoi askok eragiten dutena, adibidez langabeziak, pobrezia, elkarrizketarik ezak, eta indarkeria eta diskriminazioa sustatzen duen kultura sozialak) dela emakumeak hiltzeko arrazoi nagusietako bat. Palestinako lurralde okupatuetan zirkunstantzia psikosozialek zailak izaten jarraitzen dute, ezegonkortasun politiko eta ekonomikoa esparru sozialean islatzen delako.

## Genero-indarkeria

Palestinako lurralde okupatuetan, nazioarteko arau humanitarioak eta giza eskubideei lotutako arauak barnean hartzen dituen lege-esparru batek arautzen ditu palestinarren eskubideak, Israeleko eta Palestinako legeriaz gain, noski. Hala eta guztiz ere, palestinarrak beren osotasun fisikoarekiko etengabeko mehatxuei egiten diete aurre israeldarren sarraldiak, kolonoen indarkeria eta Gazaren blokeoaren ondorioz dauden mugimendu-askatasunaren mugapenak eta Zisjordanian dagoen "itxiera-erregimen" sofistikatu direla medio, baita lurrak konfiskatuz eta jabetza-politika mugatzaileak ezarri lurraren eta jabetzaren gaineko eskubideak murrizten direla kontuan izanik ere. Arazo horiei, emakumeen eta nesken aurkako indarkeriaren aurreko babesaren eragozten duten honako zailtasun sistemiko hauek gaineratu behar zaizkie:

- Lege eta araudi diskriminatzaileak, bereziki jabetza-eskubidean, zuzenbide penalean eta familia-zuzenbidean;
- Genero-indarkeriaren aurkako sentsibilizazio orokorrik eza;
- Indarkeria saihesteko, biktimei laguntzeko eta erantzuleei errua botatzeko ia inolako politika instituzionalik ez egotea; adibidez: gizon batek emakume bat bortxatzen bada eta ondoren harekin ezkontzen bada, ezingo zaio leporatu bortxakeria-deliturik;
- Bortxatutako emakumeentzako leku edo babesleku gutxi egotea (2 Zisjordanian eta 1 Gazako Zerrendan), eta errehabilitazio-programarik ez egotea.

Palestinako lurralde okupatuetan emakumeen aurkako indarkeria-mailak handiak dira. Duela gutxi datuek adierazten dute maila horiek beharbada igotzen ari direla. Eskura dauden datuek adierazten dute ezkonduko emakumeen % 66k indarkeria psikologikoa jasaten dutela, askotan garrasiak jasan behar dituzten % 60 barne. Ia % 34k indarkeria fisikoa jasan zuten, eta % 15ek baino gehiagok sexu-indarkeria. Emakumeen % 23k indarkeria fisikoa jasan zuten eta % 61,7k

## 2

**Emakumeak eta erresistentzia: emakumeen aurkako indarkeria matxistako esperientziak Afrikan eta Asian**

**Amal Khreisheh**

indarkeria psikologikoa. Etxeko indarkeria jasan zuten emakumeen % 1,2k baka- rrik egin zuten salaketa poliziaren aurrean, eta % 1ek baino gutxiagok eskatu zu- ten aholkularitza. Dirudenez salaketa-indize txiki horren arrazoiak honako hauek dira: emakumeen ustez justizia bilatzea alferrikakoa izatea, estigma soziala, haien bizitzaren aurkako balizko mehatxuak, eta erruduna askotan ogia etxera ekartzen duena dela.

PWWSDk gaur egun Palestinako Polizia Zibilarekin lankidetzan dihardu gai horri dagokionez, batez ere etxeko indarkeriaren aurka borrokatzeko unitate berezi bat finkatu ondoren. PWWSDk hainbat prestakuntza-saio egin ditu, Polizia Zibila emakumeen aurkako indarkeriari buruz sentsibilizatzeko eta emakumeen deman- dak modu egokian kudeatzen irakasteko. Egun dauden legeek ez dituzte behar bezala tratatzen familia barnean gertatzen den etxeko indarkeria edo sexu-indar- keria. Legeetan dauden hutsuneek askotan neskak eta emakumeak diskrimina- tzen dituzte, haien babesik gabe utziz. Horren arrazoia da, batez ere, Palestinako lurralde okupatuetan indarrean dauden kode penalak zaharkituta daudela eta Jordaniako eta Egiptoko zuzenbide penaleko bertsio zaharretan oinarritzen dire- la. Palestinako Legegintza Kontseiluak kode penalaren zirriborro berria aurkeztu zuen, emakumeen eta giza eskubideen erakundeen ahaleginak batuz egin zena, 2003. urtean lehen irakurketa bat egiteko. Giza Eskubideetarako Komite Nazio- nala, emakumeen erakundeak eta Palestinako Agintaritza Nazionala genero-ber- dintasunean oinarritzen den duela gutxiko zirriborro batean ados jarri dira. Hala eta guztiz ere, geldiarazi egin da parlamentuaren etendura dela medio. Beste aurrerapen bat palestinako Estatistika Bulego Nagusiak (PCBS) 2011n argitaratu zuen genero-indarkeriari buruzko txostena izan zen, maila nazionaleko estatisti- ka-neurriekin kasuak monitorizatu zituen lehen datu-base ofiziala ekarri zuena.

Gure esperientziak eta hainbat gizarte-azterlanek adierazten dute pobrezia eta langabezia igoerak eta emakumeen eta nesken aurkako indarkeriak zu- zeneko lotura dutela. Indarkeria-irudiak eta okupazioari lotutako militarizazioa eta erresistentzia ohiko gauza bihurtu dira bertako eta nazioarteko komunikabi- deetan, baita eguneroko bizitzan ere. Ikerketen arabera ikus daiteke genero-in- darkeriaren onarpen-maila handia dagoela gizonen eta emakumeen artean, eta batzuek zein besteek ez dituztela ezagutzen beren eskubideak. Babeslekuetan sartzea zaila da haien edukiera mugatua dutelako, emakumeek horien berri ez dutelako, mugitzeko eta iristeko arazoak daudelako, eta Palestinako Agintari- tza Nazionalak A, B eta C eremuetan dituen jurisdikzio-mailak desberdinak dire- lako. Palestinako Agintaritza Nazionalak (agintaritza judiziala eta polizia barne) emakumeak babesteko eta justizia egiteko duen gaitasuna ahula da berez, eta egoera politiko ezegonkorak ahultasun hori areagotzen du. Familia-indarkeriako demandak zor zaien profesionaltasun eta sentsibilitatearekin kudeatzeko dituz-

ten jakintza espezializatuak gehiago garatu behar dituzte polizia palestinarraren ofizialek, neurri informaletara jo gabe (adibidez, biktimaren eta bortxatzailearen artean ezkontza bat ituntzea familiaren ohorea delakoa babesteko), ikerketa serioak eginez eta kalte-ordainak aplikatuz. Sanitate Ministerioak ez dauka profesional medikoak edo ministerioko langileak etxeko indarkeriako kasuen kudeaketan gidatzeko inolako prozedura edo protokolorik. Emakumeen mugimenduen etengabeko borrokari esker hainbat alderdi garrantzitsuren artean erreferentziazko sistema bat garatzea lortu dugu, ezkutuan dagoen indarkeria psikosomatikoa agerian uzteko araudi eta prozedura egokiak behar dituena.

## Emakumeen ordezkaritza politikoa

Emakumeek eremu politikoan beren kezka ordezkatzeko duten trebetasuna pixka bat hobetu da. Emakumeen erakundeen presioei esker 2014an kuota-sistema bat sortu zen, emakumei udal- eta toki-kontseilu bakoitzean bi eserleku bermatzen zizkiena. 2012an sistema hori aldatu egin zen, eserlekuen bosten bat emakumeek okupatzeko. 2005ean hauteskunde-legearen zuzenketa batek kuota hori Palestinako Legegintza Kontseilura hedatu zuen, eta horrek gobernuan emakumeen presentzia areagotzea ekarri zuen. Gaur egun emakumeek kargudun hautatuen % 22,5a ordezkatzen dute udal-mailan eta % 12,9a maila nazionalan. Hala eta guztiz ere, emakumeek gobernuko 24 ministro-karguetatik sei bakarrik betetzen dituzte (Emakume Gaietarako Ministerioa, Turismo eta Antzinasuaren Ministerioa, Kultura eta Arte Ministerioa, Hezkuntza Ministerioa, Gizarte Gaietako Ministerioa, eta Telekomunikazioen eta Informazioaren Teknologien Ministerioa). Emakumeen aurrerapen politikoak ahulak dira egungo egoera politikoan, eta gizartean eta erakundeetan genero-harremanen kulturaren hobekuntzari ez zaio behar adinako arreta eskaini. Ordezkaritza politikoa hobetu bada ere, ez du esan nahi emakumearen ikuspegia eta itxaropenak erabakiak hartzeko prozesuaren barnean hartu direnik. Gainera, kideez osatutako erakundeen lidergo-postuetan emakumeek behar dena baino ordezkaritza txikiagoa dute, adibidez sindikatuetan eta merkataritza, industria eta nekazaritzako ganberetan. 2005ean Emakume Gaietarako Ministerioak hauteskunde-lege bat idatzi zuen gizarte zibila antolatzeke, beren lidergo-postuetan emakumeen % 20ko kuota bat edukitzeko eskatuz, baina orain artxibatu egin da Palestinako Legegintza Kontseiluaren geldiarazpena dela medio. Gaur egun, emakume palestinarren mugimendua presioa egiten ari da Palestinako Agintaritza Nazionalak bere egindako Pekineko Konferentziako Ekintza Planean oinarrituta dauden erabaki-hartze prozesu guztietan kuota hori % 30era igotzeko. Palestinako Agintaritza Nazionalak aurrera egin du Milurtekorako Garapen Helburuetan, aurrez aurre ditugun erron-

ka handiak kontuan izanik. PWWSDk lan egin du udal-hauteskundeetan emakumeen ahalmena handitzeko, aurkezteko eta prozesuan parte hartzeko motibatuz, tokiko gobernu-egiturek hartzen dituzten erabakietan eragina izan dezaten, erabaki horiek beren eguneroko bizitzan eragina baitute. Harro gaude guk prestatu ditugun emakumeetatik 80k udal-hauteskundeetan irabazi egin dutelako.

## **PWWSDren esku-hartzea**

Okupatutako Palestinako egoera politikoak komunitate osoan du eragina, eta bereziki emakumeengan. Izan ere, eraginik handiena emakumeengan du, israeldarren okupazioaren kanpo-praktikak, beren bizitza arautzen duten sistema patriarkala, diskriminazioaren aurkako legerik eza, eta fenomeno sozial negatibobaten, hau da, genero-indarkeriaren zabalkundea jasaten dituztelako. Gainera, azkenaldian emakumearen egoeran eta parte-hartzean aurrerapenak lortu badira ere, sistema judiziala ez da zentzuzko zeregin bat betetzen ari haien eskubideak babesteko, Palestinako Agintaritzak Nazionalak CEDAW babestu duen arren. Emakumearen bizitzak sistema patriarkal baten kontrolpean jarraitzen du, bere parte-hartzeak mugatua izaten jarraitzen du, eta oraindik ere ezin du zentratu bere eskubide indibidualetan eta ahalduntzean. PWWSDk uste osoa du emakumearen ahalduntzea lortzeko beharrezko tresna emakumeek beraiek beren eskubideak defendatzeko prozesuan parte hartzea dela. Ondorioz, bereziki lan egiten ari da emakumeak ahaldunduz eta bizitza publikoan duten parte-hartzea areagotuz, herritartasun berdina eta erabateko eskubideak oinarritzat hartuz. Horrek barnean hartzen du emakumeak beren eskubideen alorrean hezteko, beren gaitasunak garatzea eta eskubide horiek defendatzeko aukera ematea. Emakumeak beren eskubideak defendatzea eta maila batean baino gehiagotan aldaketa-agente gisa jardutea ahalbidetuko dieten fase baterantz bideratzeko tresnatzat jotzen dira hezkuntza-jarduerak. Era berean, PWWSDk emakumeen eskubideak babesten dituen iritzi publikoa sortzen dihardu lanean, ahalduntzearen bigarren maila lortu ahal izateko. Legeak garrantzitsuak direla uste du erakundeak; horregatik, presioa egiten du eta Palestinan emakumea babes dezaten lege modernoen multzo baten sorkuntza defendatzen du. Ideia nagusia emakumearen eskubideak defendatzea da, giza eskubideak eta herritarren berdintasuna oinarritzat hartuz. Palestinako komunitatean gobernantza on bat lortzea funtsezkoa da bizitza publikoa demokratizatzeke eta pertsona guztiei parte hartzeko aukera emateko. Ildo horretan, erakundeak lobby- eta sustapen-kanpainekin lan egiten du emakumeen eskubideak babes ditzaketen legeak zuzentzeko. Gainera, gai nazionaletan aktiboki parte hartzen du, adibidez setiatutako Gazako palestinarrekiko elkartasun-ekintzak antolatuz, bereziki israeldarren azken erasoan zehar,

preso palestinarrekiko elkartasuna adieraziz, eta Yarmouk-eko errefuxiatu-eremuaren setioaren ondoren, nazioarteko komunitateari israeldarren krimenak erakutsiz, Genevako Laugarren Konbentzioa eta Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325. ebazpena oinarritzat hartuz. Hala eta guztiz ere, legeak onartzen dituen erakunde palestinar bat ez dagoenez gero, emakumearen eskubideak defendatuko dituzten legeak eta prozedurak emateko beste erabaki-hartze zirkulu batzuetara bideratzen dira kanpainak. PWWSDk era berean aholkularitza-zerbitzuak, laguntza psikologikoa, eta krisian esku hartzeko eta sentsibilizatzeko saioak eskaintzen ditu, etxeko indarkeriako edo gizarte-indarkeriako egoeren aurrean emakumeen gaitasunak garatzeko dihardu lanean, eta giza eskubideak oro har eta emakumeenak bereziki errespetatuko dituzten baldintzak aldatu eta sortu nahi ditu, eta azkenik, gizarte- eta lege-eremuetan diskriminazioaren aurka borrokatu nahi du.

2014an, PWWSDk bere helburu estrategikoak islatzen dituzten jarduerekin jarraitu zuen. PWWSD okupatutako Palestinako udalerrri guztietako (hiriak eta herriak) emakumeengana bideratzen da, eta jende gehiago bereganatzen du bere zereginak betetzeko eta beste emakume-talde batzuetara iristeko. Jarduerak emakumeen premietatik eratortzen dira nagusiki, zeinak xede-taldeekin izandako harremanen eta talde bakoitzean egindako premien ebaluazioaren bitartez zuzenean identifikatzen diren. PWWSD **agenda politiko eta sozialaren arteko orekari** eusten saiatzen da beti: batetik, maila nazionalako jarduerak bultzatzen ditu eta haietan parte hartzen du, eta beraz, jarduera sozial eta ekonomikoetan zentratzen da emakumeen errealitatea aldatzeko, betiere justizia eta berdintasuna bermatuz. Bere helburu estrategikoak betetzeko, helburu espezifiko neurgarriak ezarri ziren, hiru maila nagusitan irudikatzen zirenak:

■ **Emakumeen beraien mailan:** emakumeak beren lege-eskubideei eta eskubide zibilei buruz sentsibilizatzea, eta eskubide horiek defendatzeko trebetasunak garatzea. Helburu hori lortzeko hainbat jarduera egin ziren, adibidez tailerak, prestakuntzak, bilera irekiak, mahainguruak, kontsultak bulegoan, in situ eta telefonoz, eta emakumeentzako auziak. Gainera, oinarriko erakunde feministekin (komunitatean oinarritutako erakundeak) lanean dihardugu, haiek indartzeko eta aldaketa sozialean duten parte-hartzea areagotzeko, eta emakumeak hainbat komite eta erakundetan antola daitezen animatzeko jarduera-sorta handia garatzen da, adibidez sindikatuak, kooperatibak eta itzaleko kontseiluak, eta erabakiak hartzeko postuetan eta bizitza publikoan duten parte-hartzea handitzeko, zehazki kargu horietarako hauteskundeetan aurkezteko. Hitzaldien, mintegien, kultura-jardueren eta borroka nazional eta sozialerako inplikazioa handitu nahi duten jarduera publiko eta nazional askotan emakumeek izandako parte-hartzearen bitartez lortu zen hori.

■ **Arduradun politikoaren mailan:** eragina dutenei presioa eginez, beren bete-behar moralak eta emakumeak ahalduz egindako promesak bete ditzaten. Helburu hori lortzeko, hainbat presionatze- eta bideratze-jarduerak inplementatu ziren, honako hauek azpimarratuz: bilera irekiak, koalizioetan afiliatzea eta bi kanpaina kaleratzea 1) emakumeen parte-hartze politikoa areagotzeko, eta 2) emakumeak eta neskek esplotaziotik babesteko sare sozialen bidez, emakumearentzat zuzenak diren legeak eta araudiak onartzeko, lobby-bilera indibidualak eta kolektiboak arduradun politikoekin (botere legegileko kideak, ministroak, lider politikoak eta komunitateetako liderrak, eta abar). Horri guztiari, jasaten dituzten bortxaketa politikoei buruz hitz egiteko emakumeak biltzen zituzten saioak gaineratu behar zaizkio, liderrek, politikariek eta giza eskubideen erakundeek parte hartuz. Lobby- eta bideratze-jarduerak ez ziren toki-eremura mugatu, izan ere, eskualde- eta nazioarte-mailako bilerak eta hitzaldiak ere egin baitziren, emakumeek israeldarren okupazioari lotuta dituzten arazo sozial eta politikoaren berri emateko xedez. Emakumearen lege-estatusan eragina duten prozedurak erabili ziren, eta nazioarte-mailan arduradunei presioa egin zitzaion Israel bere krimenen erantzule egiteko.

■ **Komunitate-mailan:** gizartea genero-berdintasunerantz eta diskurtso feminista progresistarantz sentsibilizatzea. Helburu hori lortzeko, hainbat jarduerak egin ziren, honako hauek azpimarratuz: jarduerak komunikabideekin, bilera irekiak, kultura-jarduerak, jolasak, tokiko komunitateak genero-gaietan parte hartzea toki-kontseiluetako kide diren emakumei babes ematen dieten itzaleko kontseiluak sortuz, eta itzaleko kontseilu horietarako bi foro prestatzea.

■ **Emakumeen lan-merkatuko parte-hartzearen mailan:** emakumeen ahalduz esparru ekonomikoan. Helburu hori lortzeko, hainbat jarduerak inplementatu ziren, honako hauek azpimarratuz: eskubide ekonomiko eta zibilei lotutako tailerrak eta bilerak, emakumeek ekonomian parte hartzeak duen garrantzia azpimarratzea eta haien babes soziala, hainbat kooperatiba sortzea.

Gainera, bere esperientzia eta jakintzei esker, PWWSDren lorpen nagusiak honako hauek dira:

- **1. Emakumeek justiziarako sarbidea izateko aukerak ireki eta zabaltzea,** aholkularitza-zerbitzuen eta auzien bitartez.
- **2. Emakumeen hezkuntza eta haien zeregina aktibatzea gizartea aldatzeko.** PWWSDk eta beste erakunde batzuek egindako jarduerak emakumeek emandako erantzunarekin agerian geratzen da hori.
- **3. Emakumeek ozen hitz egiteko** eta okupazioaren ondorioz zenbat sufritzen duten adierazteko **aukerak irekitzea,** lobby-jarduerak nazionalak antolatuz.

- **4. Emakumeentzako aholkularitza psikosozialeko zerbitzuak**, kontsultak eginez bulegoan, in situ edo telefonoz. Zisjordanian edo Gazan erasoak egin zituztenean lana sakonagoa izan zen. Israeldarrek 2014ko udan Gazari egindako erasoan, PWWSDk kontingentzia-plan bat egin zuen eraginpeko taldeei laguntza emateko. Laguntza psikologikoko plan bat ezarri zen, telefono-linea batekin, erasoaren biktimei laguntzeko.
- **5. Emakumeen zeregin nazionala eta erresistentzia-zeregina indartzea** Israelen okupazioaren aurkako hainbat jarduera, ibilaldi eta manifestaziotan parte hartuz. Israeldarrek 2014ko udan Gazako Zerrendan egindako azken erasoan, PWWSDk jarduera nazional askotan parte hartu zuen erasoaren aurka agertuz eta nazioarteko komunitateari bere erantzukizuna bere gain harrezala eta oso praktika ankerrak (adibidez sarraskiak, desplazamenduak, genozidioa eta azpiegituren suntsiketa, ekonomikoak barne) jasaten ari ziren zibilak babes zitzala eskatuz.
- **6. Xede-taldeen gaitasunak areagotzea**, beren bizitza pertsonalak garatzeko eta bizitza publikoan parte hartzeko aukera emango dieten jakintzak eta gaitasunak eskainiz.
- **7. Emakumearen ahalduntze ekonomikoaren dimentsioa zabaltzea**, PWWSDk parte hartu zuen kooperatiben eta emakume-taldeen garapenaren bitartez. Kooperatibek beren baliabideak garatzeko eta ahalmena handitzeko laguntza jaso zuten, era horretan kooperatiba horien kudeaketan betetzen zuten zeregin ekonomikoaren arrakasta ziurtatuz.
- **8. Komunitatea emakumearen arazoei buruz sentsibilizatzea**. PWWSDk toki-komunitateko zirkulu handiago batera iristea eta emakumearen hainbat arazori buruzko elkarrizketa bat ezartzea lortu zuen, arazo horiek emakumeen hilketak, genero-indarkeria eta etxeko indarkeria izanik, baita agintaritza legegilerik ez izatea ere.
- **9. PWWSDren eragina indartzea** eta gobernuko eta gobernuz kanpoko erakundeentzat erreferentzia eraginkor gisa duen zeregina. PWWSDk zerbitzu integratuak eskaintzen ditu gobernuko eta gizarte zibileko erakundeekin lan-kidetzan jardunez eta koordinatuz.
- **10. Koordinazioa eta sare-lana areagotzea** tokiko, eskualdeko eta nazioarteko erakundeekin.

## Egungo egoeraren eragin negatiboak arinduz

PWWSDk, pertsona guztiek gizaki diren heinean dagozkien eskubide zibil, politiko, sozial, ekonomiko eta kultural berdinak baliatzeko duten funtsezko eskubidean bete-bete sinesten du, ezinbestekoa baita bere duintasuna, justizia eta gizatasuna babesteko. Uste du emakumearen eskubideak giza eskubideak direla, zatiezinak eta interpretaziorik onartzen ez dutenak. Estatukoa den edota ez den agente batek egindako pertsonen askatasun- eta eskubide-murrizketak soilik egin ahal izango dira giza eskubideen nazioarteko arauak eta zuzenbide humanitarioa edota irizpide horiekin bat datozen legegintza-xedapen nazionalak errespetatuz, eta soilik gizarte demokratiko aske batean beharrezkotzat jotzen denean. Pertsonen tokiko eta nazioarteko bitarteko eraginkorretarako sarbidea bermatu behar zaie, beren eskubideak onartu eta aplikatzeko, eta giza eskubideen nazioarteko arauen eta zuzenbide humanitarioaren urratzea dakarten estatuko eta estatuz kanpoko agenteen ekintzak auzitegietara eramateko. Bere lanean, Giza Eskubideetan Oinarritutako Ikuspegia du oinarri PWWSDk, giza eskubideen printzipioak eta estandarrak bere politika eta jardueretan integratuta daudela ziurtatzeko. Printzipio horiek erakundearen oinarritzko ustearen oinarria dira, izan ere, pertsonak, zehazki emakumeak, ahalduntzeko lan egiten baitu. Beren eskubideak ezagutu eta baliatu dituzten, arduradun politikoek eskubide horiek errespetatu, babestu eta asetzeko duten trebetasuna eta erantzukizuna handitzeko. PWWSDk uste du giza eskubideen errespetua bi mailatan lortu beharko litzatekeela: 1) Pertsonen eskubide horien jakitun izan beharko lukete, eta 2) beren eskubideak aldarrikatzeko legeak eta nazioarteko zuzenbide humanitarioa nola erabiltzen diren jakin beharko lukete. Eskubide horiek babesteko dituen ingurune bat egotea premiazkoa litzateke.

Gizartearen asaldura elikatzen duten dezelerazio ekonomikoaren, langabeziaren handitzearen eta krisi fiskal sakonaren ondoriozko etengabeko kalteberatasun humanitarioaren arriskuak desegiteko, Palestinako Agintaritzak eta nazioarteko komunitateak itundutako premiazko ekintzak beharrezkoak dira. Nazioarteko komunitateak Israelek inposatutako mugapen ekonomikotik ihes egiten lagundu behar die palestinarrei. Nazioarteko emaileek eta agentziek Zisjordanian eta Gazako palestinarrei laguntza finantzario eta gauzako laguntza garrantzitsua ematen badiete ere, egoeraren larritasunak, etengabeko indarkeriak eta israeldarren okupazioak krisi ekonomikoa eta humanitarioa larriagotzea eragin dute. Laguntza gehiago behar da kalteberenak diren eremuetan, batez ere C eremuan. Eskemetan genero-berdintasuna sartu beharko litzateke. Aspaldidanik dirauen azken akordio baterako aukera politiko sinesgarriak eza, etengabeko gatazka



## 2

**Emakumeak eta erresistentzia: emakumeen aurkako indarkeria matxistako esperientziak Afrikan eta Asian**

**Amal Khreisheh**

eta okupazioa dira erronka larrienak. Izan ere, bi estaturen ideian oinarritutako konponbideak bideragarri izaten jarraitzen ote duen finkatuko duen egoera kritiko batera bideratzen baitute. Nazioarteko komunitateak, sinatutako akordioaren arabera dituen betebeharrak betetzera behartu behar du Israel. Gainera, NBEk Israelen aurka eman dituen ebazpen ugariak aktibatu egin beharko lirateke justizia bilatzeko eta bake bideragarri baten itxaropena sustatzeko. Gaur egun Palestina NBEko estatu ez-kidea da, eta laguntza politikoaren bitartez aurrera egiten animatu beharko litzaioke, zigortu ordez. Gainera, luzaro dirauen palestinarren banaketa erronka are handiagoa da. Adiskidetzeari buruzko elkarrizketek blokeatuta jarraitzen dute, batez ere aurreko akordioen inplementazioari dagokionez. Beraz, Palestinako Agintaritzak estatua eraikitzeke ahaleginak ezin ditu erabat hedatu Gazako Zerrendara, bertan haren premia dagoen arren. Lider nazionalen erantzukizuna da, baina nazioarteko komunitateari arren eskatzen diogu adiskidetze palestinarra ez dezala Israelen lehentasunekin ordeztu. Israeldarrek egindako Palestinako lurren okupazioaren amaiera da emakume palestinarraren egoera sozioekonomiko eta humanitaria hobetzeko dagoen oztopo nagusia, estatu palestinar independente eta bideragarri baten sorkuntza barnean hartzen duen alderdi gisa.

Giza eskubideen errespetuak ikuspegi osatu bat eskatzen du. Ezin dugu ahalduntzeari buruz hitz egin maila guztietako diskriminazio-moduen aurka borrokarik egin gabe: judiziala, diskurtso publikoa eta politikak. Bere jardueren barruan, PWWSDk beren eskubideei buruzko erabaki-hartzean parte hartzeko aukera gehiago eskaintzen dizkie emakumeei, eta komunitatea oro har eta arduradun politikoak bereziki eskubide horiei buruz sensibilizatzen laguntzen du, emakumeen eskubideen erantzukizuna haiei leporatuz. Genero-berdintasuna eta justiziarako sarbidea PWWSDren programen funtsezko elementuak dira. Gainera, komunikabideak giza eskubideak azpimarratzeko eta sustatzeko erabiltzen dira, batez ere emakume palestinarren eskubideak, israeldarren okupazioaren mende bizi diren emakumeak diren heinean, baita Palestinako estatuko herritar diren heinean ere.

## Emakume errefuxiatuak genero-arrazoiengatik: indarkeriak jatorrian, igarotzan eta helmugan

**Leire Lasa Fernández**

CEAR Euskadiko Eragin eta Parte-hartze saila

<http://cear-euskadi.org/>



CEAR-Euskadi nazioarteko babesaren premia duten edo gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden errefuxiatu, desplazatu, aberrigabe eta migratzaileen giza eskubideak eta garapen integrala defendatzeaz eta sustatzeaz arduratzen da. 20 urte baino gehiago daramatzagu asilo-eskubidearen defentsan lanean eta bide horretan izan dugun –eta oraindik dugun– borroketako bat honako hau da: babes hori genero-arrazoiengatik jazarritako pertsonen onestea.

Errefuxiatuen Estatutuari buruzko 1951ko Genevako Konbentzioak<sup>1</sup> eta 1967ko New Yorkeko Protokoloak osatzen dute asiloaren nazioarteko babesaren funtsezko ardatza. Tresna horiek errefuxiatuaren honako definizio hau ezartzen dute: *arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, gizarte-talde jakin batekoa izateagatik edo iritzi politikoengatik jazarria izateko susmo sendoak dituen pertsona, bere nazionalitateko herrialdetik kanpo dagoena eta herrialde horretako babesalortu ezin duena edo beldur horiengatik lortu nahi ez duena.*

Erakunde, mugimendu eta kolektibo sozial eta feministek egindako lanari esker Estatu espainolak azken urteetan generoarekin lotutako giza eskubideen urraketak jaso ditu bere barne-legedian. Generoaren dimentsioak jazarpen mota edo eragindako kaltea eta motibazioak ezar ditzake.

Urteak daramatzagu genero-arrazoiengatik jazarritako pertsonen asilo-eskubidea defendatzen. Lan hori hainbat erakunderen eskutik egin dugu; feminismitik eta giza eskubideekiko konpromiso sakonetik abiatuta irakatsi digute eta bide horretan lagun izan ditugu.

Gorputz biologikoen eta haien atribuzio sozialen arteko desberdintasuna hobeto ulertzen laguntzen duen analisi-kategoria gisa ulertzen dugu generoa. Ikuspegi antropologikotik begiratuta, gizarte bakoitzak desberdintasun sexualari buruz egiten duen interpretazio kulturala eta historikoa da generoa. Gure ustez, erabakigarria ez da desberdintasun anatomikoa berez, baizik eta kulturak nola interpretatzen dituen desberdintasun horiek.

## Genero-arrazoiengatik jazarpenera

Asiloaren nazioarteko babesaren ikuspuntutik begiratuta, pertsona baten giza eskubideen urraketa larri edo jarraitu edo sistematikotzat definitzen da jazarpenera. Diskriminazioa edo tratu txarragoa ematea jazarpeneraren baliokide izan daitezke eta gerta daiteke nazioarteko babesaren behar izatea. Genero-arrazoiengatik

<sup>1</sup> Aurrerantzean Genevako Konbentzioa.

gatiko jazarpenaz ari gara eskubideen urraketa horiek pertsona bati bere genero-identitatea dela medio edo bere lehentasun sexualak direla medio esleitzen zaion rolaekin zerikusia dutenean.

Emakumeek eta arauen barnean ez dauden pertsonak (pertsona horien identitatea edo sexualitatea ez da arauetara egokitzen –LGTTBI<sup>2</sup>-) diskriminazioa eta jazarpena pairatzen dute, eta batez ere haien sexualitatea, ugalketa-ahalmena eta gorputza kontrolatuz gauzatzen da.

## Asilo-eskubidea generoaren ikuspegitik

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jaso zen lehen arau-erreferentzia eta ondoren<sup>3</sup>, Genevako Konbentzioak eta New Yorkeko Protokoloak osatu dute, beste tresna batzuekin batera, errefuxiatuen babeserako nazioarteko zuzenbidea, estatuetako legediak oinarritzat hartzen dutena hain zuzen ere.

Espainia 1979an atxiki zen Genevako Hitzarmenera eta 1984an asilo-eskubidea eta errefuxiatu-izaera arautzen dituen Legea onartu zuen; lehen lege horrek hainbat aldaketa izan ondoren, 2009an beste legedi batez ordeztu zen.

Egungo Asilo Legeak<sup>4</sup> “*generoaren edo sexu-orientazioaren*” arrazoiengatik jazarpena asilo-kausatzat hartzen du. Onespren formal horrek aurreko legeriaren kiko bilakaera bat dakar, baita emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan eta LGTTBlek pairatzen dituzten indarkeriak onesteko bidean aurrerapen garrantzitsua ere.

### ■ Nagusi diren zirkunstantziak

Nolanahi ere, beste jazarpen-kausekin (arrazoia, erlijioa, nazionalitatea, talde soziala eta iritzi politikoak) gertatzen den ez bezala, Legeak adierazten du ‘generoak’ eta ‘orientazio sexualak’ berez ezin dutela jazarpena sorrarazi, baizik eta “jatorriko herrialdean nagusi diren zirkunstantzien” arabera izango dela.

Pertsona batek asiloa jasotzeko jazarria izateko beldur sendoa pairatu behar izan du eta frogatu egin behar du. Organo eskudunak aztertzen du kasu bakoitza<sup>5</sup>

<sup>2</sup> Lesbianak, gayak, transgeneroak, transexualak, bisexualak eta intersexualak.

<sup>3</sup> 14 artikulua: *Jazarpenik jasanez gero, pertsona orok du edozein herrialdean babesa eskatu eta izateko eskubidea.*

<sup>4</sup> 12/2009 Legea, urriaren 30ekoa, asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen duena.

<sup>5</sup> Estatu espainolean Asilo eta Babes Bulegoa (ABB) –Barne Ministerioari atxikita dagoena– da asilo-eskaerak bideratzeaz arduratzen dena.

pertsonak jazarria izateko beldurra ote daukan eta beldur hori egiazta daitezkeen gertaeretan oinarrituta ote dagoen berresteko. Dagokion pertsonaren ingurunean ihesa justifikatuko duten zirkunstantziak izan beharko dira. Nolanahi ere, gertaera horiek ez dute zertan "jatorriko herrialdean nagusi diren zirkunstantziak" izan.

Eskualde askotako giza eskubideen erakundeek eta gizarte-kolektiboek adierazten dutenez, zailtasunak dituzte oraindik beren osotasunean kontuan hartzen ez diren giza eskubideen urraketa batzuk biltzeko, estatuko egiturek eta estatukoak ez direnek ikusezin egiten baitituzte, eta gertatutakoa argitzeko eta egileak auziperatzeko ikerketa egin nahi izateak arrisku larriak onartzea dakarrelako.

### ■ Zenbait aurrerapen

Hala eta guztiz ere, ez ditugu aipatu gabe utzi nahi Legeak ekarri dituen aurrerapen batzuk ere, genero-arraioengatik jazartako pertsonen asilo-eskubidea onesteaz gain (mugekin bada ere). Legeak esanbidez aipatzen ditu estatukoak ez diren agenteak *jazarpene-agentek edo kalte larriak eragindako agenteak* deiturikoen artean. Urrats hori oso garrantzitsua da eremu pribatuan gertatutako indarkerietatik ihesi doazenentzat.

Asiloaren esparruan oso garrantzitsua da pairatutako jazarpenean Estatuak zerbaterainoko ardura izan duen jakitea. Estatu espainolak errefuxiatuak babesteko betebeharra du haien berezko Estatuak jazarpena gauzatzen edo sustatzen duenean baina baita toleratzen duenean edo eragotzi nahi ez duenean edo ezin duenean ere.

Bestalde, oso garrantzitsua da biktimgileak biktimari esleitzen dizkion ezaugarriak bereiztea. Testuinguru askotan emakumeek talde desberdina, kaskarragoa, merkatura daitekeena eta mendekoa osatzen dutela ikusten da.

### ■ Errealitatea

Alabaina, azterketa txiki honek (aurrerapausoekin eta atzerapausoekin, berruekin eta mugekin) ez du errefuxiatuek bizitzen duten errealitatea agerian jartzen: gero eta emakume gutxiagok lortzen du Estatu espainolera iristea eta asiloa eskatzea; bestalde, ez du azaleratzen Legearen ezarpen etsigarria: eskaera gehienak ukatzen dira eta are gehiago genero-kasuetan.

2013an soilik 4.502 pertsonak eskatu zuten asiloa Estatu espainolean, hau da, Europar Batasunean izapidetutako eskaeren % 1,03. 2014an, 6.000 pertsona inguruk eskatu dute (estatistika amaitu gabe). Igoera hori (hainbat urtetako behe-

rako joeraren ondoren) zenbait egoera partikularrek eragin dute, esaterako Siriako gerra odoltsuak, Maliko egoerak eta Ukrainako gatazka armatuak. Besteak beste, Aljeriatik, Palestinatik, Nigeriatik, Pakistanetik, Iraketik eta Somaliatik iritsi dira pertsonak.

Zifra horiek Europako joeratik urrun daude baina gainera irigarriak dira Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioaren (UNHCR) arabera munduan desplazatzen behartuta dauden 51,2 milioi pertsonaren zifrarekin alderatzen badira. Pertsonen kopuru horren erdiak 18 urte baino gutxiago ditu eta % 49 emakumeak dira.

CEAR-Euskadik Estatu espainolean aurkezten diren genero-arrazoiengatik asilo-eskaeren profil bat<sup>6</sup> egin zuen 2013an. Sexu-esplotaziorako salerosketa-biktimak –batez ere Nigeriakoak– babesteko eskaerez gain, nabarmentzekoak dira beste zenbait egoera direla-eta ihes egiten duten emakumeen eskaerak, esaterako, genitalen mutilazioa eta behartutako ezkontza (Nigeria, Somalia eta Kongoko Errepublika Demokratikoa), familia barruko indarkeria (Nigeria, Ginea Konakry, Kolonbia, Erdialdeko Amerika, Aljeria), feminizidioa (Guatemala, Mexiko) eta gerrako testuinguruko sexu-indarkeria (Somalia, Kongoko Errepublika Demokratikoa). Profil hori beharbada aldatu egin da zenbait herrialdetako egoerak direla-eta (Siria, Mali edo Ukraina) baina hala ere uste dugu oraindik ere baliagarria dela horrelako indarkerietatik Estatu espainolera ihesi eginda datozen pertsonen argazki bat ateratzeko.

2013an, 4.354 pertsona sartu ziren Espainiako lurraldera Ceutatik eta Melillatik; haietako asko Malikoak, Siriakoak eta gatazkan dauden beste herrialde batzuetakoak ziren. 312 pertsonak Ceutan eskatu zuten asiloa eta 41 pertsonak soilik izapidetu zuten beren eskaera Melillan<sup>7</sup>.

Bi hiri horiek Estatu espainolerako asilo-eskaeren kopuruaren jaitsiera eragitera bideratutako estrategien ezarpenaren bi kasu paradigmaticoak dira (horrela berretsi da azken urteetako datuen azterketan).

Joera hori duela gutxi aldatu da erakundeen lanari esker; izan ere, Siriako pertsonen asilo-prozeduran sartzeko berme handiagoak izatea lortu da. Alabaina, Saharaz hegoaldeko Afrikatik datozen pertsonen babesaren lortzeko bidean ez da aurrerapen askorik egin.

<sup>6</sup> Profil hori egiteko CEAREK 2009-2012 aldian izapidetutako genero-arrazoiengatik asilo-eskabideak berrikusi ziren. Datu horiek Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi-komisarioarekin (UNHCR) eta Asilo eta Babes Bulegoarekin (ABB, Barne Ministerioa) egiaztatu ziren.

<sup>7</sup> Datu horiek areagotu egin dira 2014an nahiz eta artikulua argitaratzeko entregatu zenean ez genituen eskura zifra ofizialak..

## Herrialde seguru batera iristeko bidai luzea

Herrialde seguru batera iristea da asilo-babesa baliatzeko lehen urratsa. Horrek dakar norberaren herrialdetik ateratzea, muga militarizatuak igarotzea, izapide diskriminatzaileak gainditzea edo basamortutik, itsasotik eta alanbre-hesietatik bizirik ateratzea.

Hainbat herrialdek batuta migrazio irregularren aurka egiteko segurtasun- eta borroka-politikak –pertsonek beren jatorrizko herrialdeetatik ateratzea eragozte- ra zuzenduak– praktikan jartzera bideratutako giza baliabideetan eta baliabide material eta militarretan diru-kopuru lotsagarriak inbertitu dituzte; beraz, asilo -babesa lortzeko, hori dena gainditu behar da. Bestalde, pertsonak jatorrizko herrialdetik ateratzea lortzen badute bidean geratzea bultzatzen da eta helmugara iristen badira, beren herrialdetara itzultzea.

Estatu espainolak, Europako hegoaldeko muga den aldetik, migrazio-fluxuak ‘kontrolatzeko sistema’ jurisdikzioa bere lurraldeko mugetatik haratago eraman- ez garatu du, hau da, nazioarteko uretan eta igarotze-herrialdeetan jardun du eta jatorrizko herrialdeekin akordioak ezarri ditu haien kostaldeetan bertan per- tsonen irteera kontrola dezaten.

Aipatutako politiken esparruan inplementatu diren neurrietako batzuk honako hauek dira: FRONTEX Europar Batasuneko Estatu kideen kanpoko mugetan lan- kidetza operatiboa kudeatzeko Europako Agentzia, nazioarteko uretako patruil- lariak, hirugarren herrialdeetako atxilotze-zentroak (Mauritania eta Libia), Ceuta- ko eta Melillako hesiak eta haiei erantsitako hortzak, berriz hartzeko akordioak, Atzerritarrak Barneratzeko Zentroak eta deportazio-hegaldiak.

Hegoaldeko mugako kontrol militar eta poliziala oso gogorra da: radarrak, sen- tsoreak, kamera termikoak, bihotz-pultsuaren detektagailuak, hegazkinak, heli- kopteroak, itsasontziak, patruilariak eta abar. Hori guztia erabiltzen da nahiz eta hegoaldeko mugatik igarotzen den migrazio-bolumenak Europar Batasunera era irregularrean sartzen diren guztien % 4 soilik biltzen duen.

Fortress Europe-ren balioespenen arabera 1988-2013 aldian 19.144 pertsona hil dira Europako mugara iristeko ahaleginean. Haietatik, 8.822 pertsona itsasoan desagertu dira.

## Ez-itzulketaren printzipioa

Nazioarteko zuzenbideak<sup>8</sup> debekatu egiten die estatuei pertsona bat herrialde batera kanporatzea edo itzultzea, baldin eta herrialde horretan bere bizitza edo askatasuna mehatxupean badaude, edo torturak, tratu krudelak edo umiliagarriak pairatzeko edo giza eskubideak urratzeko arriskua badu.

Printzipio hau, ez-itzulketaren printzipioa deiturikoa, asilo-eskubidea gauzatu ahal izateko oinarritzko printzipioa da. Printzipio hori ez bada betetzen errefuxiatuei ez zaie nazioarteko babesa bermatzen. UNHCRk behin eta berriz adierazi duen moduan<sup>9</sup>, bete beharreko printzipioa da hori bai estatuaren lurraldean bai nazioarteko uretan eta igarotze-herrialdeetan, betiere Guardia Zibilak edo bestelako funtzionarioek parte hartzen badute edo garraio-enpresek, segurtasun-enpresek eta abarrek haien izenean parte hartzen badute.

Diputatuen Kongresuan martxoaren 26an onartutako Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko Lege berrian "mugako bazterketa" deituriko figura sortu da; figura horren bidez Ceutako eta Melillako itzulketaren sumarioak legeztatu nahi dira. Figura horrek errefuxiatuen eta beste profil kaltebera batzuen berehalako itzulketaren gauzatzeko aukera ahalbidetzen du, pertsonak identifikatu ere egin gabe. Argi eta garbi, ez-itzulketaren printzipioa urratzen du.

## Saharaz hegoaldeko emakumeek *hegoaldeko muga* igarotzerakoan pairatzen duten errealitatea ikusezin bihurtzea

Hegoaldeko muga zeharkatzen duten gehienak gizonetakoak dira. Andaluziako Giza Eskubideen aldeko Elkartearen (APDHA) arabera 2013an % 4,11 soilik izan ziren emakumeak eta % 3,02 adingabeak.

Alabaina, haien migrazio-ibilbideari sakonki lotuta dago indarkeria fisikoa eta sexuala, bereziki eremu mugakideetan. Pairatutako indarkeriaren ondorio izaten dira behartutako haurdunaldiak eta abortu klandestinoak.

<sup>8</sup> Errefuxiatuen Estatutuari buruzko 1951ko Genevako Konbentzioa, Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo iraingarrien aurkako 1984ko Konbentzioa eta Giza Eskubideak eta Oinarritzko Askatasunak Babesteko 1950eko Europako Hitzarmena.

<sup>9</sup> Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioa.



# 3

Emakume errefuxiatuak genero-arrazoiengatik: indarkeriak jatorrian, igarotzan eta helmugan

Leire Lasa

Marokorainoko migrazio-ibilbidea hainbat garraiobidetan egin daiteke, betiere baliabideen eta migrazio-ibilbideen aldaketen arabera. Zati asko oinez egiten dira, jardunaldi luzeetan eta bizitzak arriskuan jarriz. Tamanrasset-eko basamortua (Aljeria) "pick-up" edo "ranchera" deitutako ibilgailuetan edo kamioietan zeharkatzen da. Aljeriara iritsitakoan ohikoa izaten da Maghia-n denboraldi bat igarotzea Oujda alderako (Maroko) muga zeharkatzeko une onenaren zain

Women's Link Worldwide erakundeak egindako ikerketen arabera jatorrizko herrialdetik Marokorako igarotzak 2-3 urte iraun dezake, eta emakume batzuek 8 urteko igarotzak gauzatu dituzte. Maroko egonaldi luzeak egiteko leku bihurtu da, Europa aldera zeharkatzeko une egokia iristen den arte hain zuzen. Batez besteko egonaldia urte eta erdi izaten da, nahiz eta emakume batzuek 7 urte ere itxoitzen dituzten. Aipatutako erakundeak nabarmendu du azken urteetan herrialdea zeharkatzen duten migrazio-fluxuen feminizazioa gertatu dela. Gero eta emakume gazteagoak izaten dira (batzuetan adingabeak), adin emankorrekoak, eta kasu gehienetan bizirauteko prostituzioan aritzen direnak edo bestela esplotazio sexualaren xedearekin salerosketa-sareetan harrapatutakoak. Askok UNHCRren errefuxiatu-estatutua baliatzen dute baina onespenez horrek ez die egoitza- eta lan-baimena ahalbidetzen eta kasu batzuetan, deportazioak pairatu izan dituzte (batez ere Aljeriako mugara).

Emakume askok Nador-en (Melillarekin mugan dagoen Marokoko probintzia) itxoitzen dute Europara igarotzeko unea. Itxaronaldi hori ez da Gurugú mendi ezagunean egiten; mendi horretan batez ere gizonak bizi dira. Emakumeak leku urrunagoetan bizirautean dute<sup>10</sup>, esaterako Seluán-go mendietan; mendi horietan guztira 10 asentamendu daude, "familia-kanpamenduak" deitutakoak, eta bertan emakumeak eta beren kargura dituzten semeak eta alabak bizi dira. Tokiko erakundeek diotenez, asentamendu horietan guztira 543 pertsona daude; 97 emakume (% 7,8) eta 29 haur (haur horietatik inoren kargura ez dauden 5 haur, % 5,3). Gehienak honako herrialde hauetakoak dira: Mali, Kamerun, Ginea Konakry eta Nigeria, baina beste hauetakoak ere badaude: Ghana, Senegal, Kongoko Errepublikak Demokratikoa, Afrika Erdiko Errepublika, Boli Kosta, Gambia eta Ginea Bissau.

**10** Datu hauek 2014ko otsaileko gertaerak jazo aurrekoak dira; hilabete horretan sarekada handiak egin ziren asentamenduetan. Marokon lan egiten duten hamabi erakunde sozialek igorritako baterako komunikatuaren arabera sarekadak Gurugú mendian nahiz Nador, Seluán eta Zegangan hirien inguruetatik kanpamentuetan egin ziren. Oharrean honako hau salatu zuten: "segurtasun-indarren gehiegizko indarkeria, kanpamenduak suntsituz eta migratzaileen (gehien bat hamarnaka emakumez eta haurrez osatutako familiak) gauza guztiei su emanez".

Emakumeak oso oso gutxitan ahalegintzen dira hesia zeharkatzen. Espainiako lurraldera itsasontzietan edo igerian igarotzen dira nagusiki. Honako hauek dira helmuga-puntu nagusiak: Almeria, Motril, Cadiz, Ceuta eta Melilla.

## Sexu-esplotaziorako salerosketa

Emakume askoren ihes egiteak generoagatiko jazarpenekin zerikusia dauka (familia barruko indarkeria, behartutako ezkontza, emakumeen genitalen mutilazioa) edo beste kasu batzuetan, emakumeen gorputzak bataila-eremu gisa erailtzen diren gerra- eta indarkeria-testuinguruekin. Horrela gertatzen da, besteak beste, Kongoko Errepublika Demokratikoko, Somaliako, Aljeriako, Ginea Conatryko eta Boli Kostako emakumeen kasuan.

Bidaia gero eta arriskitsuagoa eta gogorragoa izaten da eta sexu-esplotaziorako salerosketa-sareek bidean harrapatzen dituzte emakume gehienak. Bakarrik bidaiatzea ezinezkoa denez, atzemaile, pasatzaile, patroio edo *connection man* deritzenak dira alternatiba bakarra.

Beste emakume batzuk jatorrizko herrialdean harrapatzen dituzte. Batez ere Nigeriako emakumeen kasua da hori. Iruzur egiten diete lan-eskaintza faltsuekin. Ez dakite prostituzioan aritzera behartuko dituztela eta dakitenek ere ez dakite nolako esplotazio-baldintzak jasan beharko dituzten (indarkeria, bortxa, familien ganako mehatxuak...). Sareek dirua, helmugako herrialdean sartzeko bideak eta dokumentazioa ematen dizkiete. Behin helmugako herrialdera iristen direnean, ordea, ikaragarriko zorrak izaten dituzte, sareen mende egotera behartzen dituztenak eta prostituzioan arituz ordaindu behar izaten dituztenak. Horretaz gain, budu-errituez eta tradiziozko sorginkeriaz baliatzen dira emakumeak psikologikoki mendean hartzeko.

Droga-trafikoaren atzetik, pertsonen salerosketa da irabazi handienak ematen dituzten legez kontrako negozioetako bat. Lanaren Nazioarteko Erakundearen arabera urtean 32.000 milioi dolarreko irabaziak lortzen dira negozio horrekin. Biktimen bi herenak emakumeak dira; sexu-esplotazioaren kasuan hamarretik zortzi. Drogaren eta Delituaren aurkako Nazio Batuen Bulegoaren arabera (ingelesko UNODC siglak) 10.000 pertsona inguru, batez ere emakumeak eta adingabeak, izaten dira urtero trafikoaren biktima; Nigeriatik ateratzen dituzte eskualde horretako herrialdeetan (Benin, Boli Kosta eta Gabon), Europan (140.000 emakume daude esplotazio-egoeran erakundearen arabera) edo Golkoko herrialdeetan (Arabia Saudi) esplotatzeko.

Sexu-esplotaziorako salerosketa gorputzak merkaturatzeko sistema kapitalistak eta patriarkalak eskaintzen digun adierazpen larriena da. Hainbat emakume in-fernuz betetako bidai hori egitera behartuta daude migrazio-bide duin bati ekin ezin diotelako.

Nazio Batuen Erakundearen arabera, Estatu espainola da salerosketa-sareen helmuga eta pasabide diren herrialde nagusietako bat. Zainketen industria eta sexu-industria hazten ari dira helmugako herrialdeetan, batez ere Europan eta bereziki, Espainiako estatuan eta salerosketa-sareak horretaz elikatzen dira. Pertsonen Salerosketaren aurkako Espainiar Sarearen arabera, estatuan 40.000-50.000 emakumek pairatzen dute sexu-esplotazioa. Genero-arrazoiengatik egiten diren asilo-eskaeretan hori da gaur egun alegatzen den arrazoi nagusia hain zuzen.

CEAR-Euskadik 2014ko uztailean Melillan egindako Giza Eskubideen Behaketa Misioan egiaztatu zuen hiri autonomora hegoaldeko mugatik iristen diren emakumeetako asko sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimak direla. Era berean, egiaztatu dute ez dagoela identifikazio- eta babes-prozedurarik. Gainera, errealitate hori Etorkinak Behin-behinekoz Barneratzeko Zentroan bertan (CETI) gertatzen denaren zantzu garbiak daude.

Emakume hauek beren bizitzak arriskutik kanpo jartzeko eta babesa jasotzeko hiru baldintza ukaezin bete behar dira: ez-itzulketa, identifikazioa eta asilo-prozedurarako sarbidea. Alabaina, alde batetik Melillan ez da identifikazio ofizialik egiten eta bestetik, Espainiako gobernuak ez du salerosketa asilo-arrazoitzat hartzen. Barne Ministerioak ulertzen du jazarpen mota hori ezin dela Genevako Konbentzioaren esparruan kokatu eta babes-mekanismoa Atzeritarrei buruzko Legearen 59. bis artikuluan ezartzen dela; artikulua horretan adierazten da biktimak babesa jasotzeko honako baldintza hauek bete beharko dituztela: jazarpenaren egileak salatzea eta esplotatzen dituzten sareak desegiteko agintariekin lankidetzan jardutea.

Beraz, delitua jazartzeko ikuspegitik jorratzen da salerosketa eta ez emakumeen giza eskubideen urraketa larriaren ikuspegitik. Berbiktimizazio larria gertatzen ari da, eta bitartean arduradunak zigorrik gabe geratzen dira edo oso zigor bigunak betetzen dituzte, egindako delituaren dimentsioarekin alderatuta.

Gainera, errealitate honi generoaren eta giza eskubideen ikuspegitik heltzeko borondate politiko eskasari Estatuko Segurtasuneko Indar eta Kidegoek gai honetan duten prestakuntza-gabezia larria gehitu behar zaio.

Errealitatea honako hau da: emakume hauek oso kontrolatuak daude eta beren ekintzek beraiengan eta beraien familiengan (jatorrian) izan ditzaketen ondo-

rioiengatik beldurtuta; beraz, ez dute salaketa beren egoeraren konponbide gisa ikusten eta benetako babes-mekanismorik gabe geratzen dira.

Hegoaldeko mugan gertatzen dira kalteberatasuneko eta indarkeria instituzionalako egoera larriak. Salerosketa-biktimaren izaera oharkabean geratzen da. Estatuentzat "legez kanpoko etorkinak" dira, Atzerritarrei buruzko Legea hausten dutenak. Mugen kontrola giza eskubideen errespetuaren gainetik jartzen da eta Estatu espainolak babestu beharreko pertsonak kanporatu egiten dira.

Emakumeak jatorrizko herrialdera itzultzeak haien bizitza eta segurtasuna arrisku larrian jartzen ditu: sarearen errepresaliak, baita haien familiako beste kide batzuen aurkakoak ere, egindako zorra ez ordaintzeagatik batez ere; berriz ere salerosketa-xede izateko aukera erreala; eta prostituzioan aritu izanagatik, ostrazismo larria, diskriminazio gogorra edo zigorra familiaren aldetik, tokiko komunitatearen aldetik eta kasu batzuetan baita agintarien aldetik ere.

Gaur egun arte Espainiako gobernuak hiru salerosketa-biktimari soilik eman die asilo-estatutua. UNHCRk berak "salbuespenezko" kasutzat hartu ditu kasu horiek eta "salerosketa genero-arrazoiengatik jazarpen ireki eta formal gisa esanbidez onartzearen" alde agertu da.

## Ekintza- eta salaketa-estrategiak

2001. urtean hasi ginen genero-arrazoiengatik jazarritako pertsonen asilo-eskubidearen defentsan lanean; lan hori **epe luzeko prozesu** gisa egituratu zen, prozesu bizia, lagun izan ditugun hainbat erakunderen ekarpenekin aberasten eta hazten doan prozesua. Ekintza zehatzak sortzen diren gogoetetan, ebaluazioetan eta proposamenetan oinarrituz definitzen dira.

Hainbat urtetan honako **helburu** hauek lortzeko lan egin da:

- Genero-arrazoiengatik jazarpena ezagutaraztea eta haren inguruan sentibilizatzea.
- Espainiako gobernuak genero-arrazoiengatik jazarpena benetan asiloa emateko arrazoi gisa onartzea lortzea baita jazarpen hori pairatzen dutenen nazioarteko babesa ere.
- Asilo-eskubidearen eta haren prozeduren esparruan genero-ikuspegia sartzea sustatzea.

Helburu horiek lortzeko bidean aurrera egiteko estrategiak beste hainbat eremutan (emakumeen giza eskubideak, sexu-eskubideak, ugalketa-eskubi-

deak, LGTTBlen eskubideak, migrazioak eta garapena) lan egiten duten beste **erakunde** batzuekin batera<sup>11</sup> identifikatu dira.

Gauzatu diren **estrategiak** hainbat proiektutan egikaritzen jarraitzen dute, horrela elkar elikatuz:

### ■ 1. Sareko lana: sinergiaren bila

Genero-arrazoiengatik jazarpena sexu-eskubideak eta ugalketa-eskubideak aldarrikatzeko esparruan kokatzea planteatu genuen, eremu horietan lan egiten duten erakunde eta mugimendu sozial eta feministekin sinergiak topatuz. Gure jardunbideei buruzko gogoetaren bidez gure arteko lankidetzarako gakoak identifikatu genituen, lehentasunak ezarriz.

Sinergiaren identifikazioak garrantzi handia izan du sarean egindako lanak irauteko eta aliantza estrategikoak sortzeko.

Harremanak (formalak eta informalak) ezarri dira eta lan-estrategiak eta lankidetzarako gakoak identifikatzea eta lehenestea ahalbidetu diguten **egoera-mapak** egin dira.

Prozesu horretan harreman-faktorea zaindu da eta zaintzen jarraitzen dugu, eta horrek komunikazioa errazten du.

### ■ 2. Ikerketa

Sareko lanerako sinergiak identifikatu ondoren, genero-arrazoiengatik jazarritako pertsonen asilo-eskubidea defendatzeko estrategiak ikerketan, eragin politikoan eta gizarte-sentsibilizazioan oinarritzea lehenetsi genuen

Egin diren ikerketen artean honako hauek dira nabarmentzekoak:

<sup>11</sup> Besteak beste, honako erakunde hauekin lan egin dugu arlo horretan (ordena alfabetikoan): Asturiasko ACCEM, ALDARTE (gay, lesbiana eta transexualen arretarako Zentroa), Askabide, Atseginez Elkartea, Associació per als Drets Humans a l'Afganistán (ASDHA), Ca-minando fronteras, ABZk ixtearen aldeko kanpaina, CEAR, Bizkaiko Abokatuen Elkargoa, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundea, María de Maeztu Forum Feminista eta Afgan Women's Network, GIE Taldea, Bartzelonako Universitat Autonomako GIPE/PTP Taldea (Jardunbide tradizional kaltegarriak aztertzeko eta prebenitzeko diziplina arteko taldea), Local Cambalache, Munduko Medikuek, Mugarik Gabe, Proyecto Esperanza, Bizkaiko SOS Arrazakeria, Valencia Acoge, Women's Link Worldwide, Guatemalako Emakumeen aurkako Indarkeriarik ezaren Sarea (Red de No Violencia contra las Mujeres de Guatemala, REDNOVI).

- **A.** Genero-arrazoiengatik jazarpen moten tipologia bat egitea, UNHCRren jarraibideen arabera<sup>12</sup>. Argi geratzen da genero-arrazoiengatik jazarpena gehienetan sexu-eskubideen eta ugalketa-eskubideen urraketan adierazten dela.
  - Misoginia: emakumeen eta alderdi femeninoaren aurkako gorroto-krimenak.
  - Giza eskubideen aurkako giza arauetatik eta jardunbideetatik sortutako jazarpen-legeak.
  - Emakumeei lege edo politika bat betetzen ez dutenean ezartzen zaizkien hainbat zigor eta zehapen torturaren, tratu ankerraren edo tratu iraingarriaren baliokideak dira.
  - Zenbait lege, politika eta jardunbide, helburu justifikagarriak izanda ere haiek inplementatzeko metodoak oso ondorio kaltegarriak eragiten ditzutenean.
  - Debekatuak egon arren, Estatuak toleratzen, barkatzen edo behar bezala eragozten ez dituen zenbait jazarpen-jardunbide.
  - Gizarte-arloko arauak haustearen ondorioz sortutako egoerak, emakumeen askatasuna edo osotasun fisikoa eta psikikoa asko murrizten dutenak.
  - Familia barruko indarkeria.
  - Pertsonen salerosketa behartutako prostituziorako edo sexu-esplotaziorako.
  - Lehentasun sexualak eta genero-identitateak eragindako jazarpena.
  - Emakumeei tratu txarragoa ematea eragiten duten diskriminazio-patrioiak, oso ondorio kaltegarriak izan ditzaketenak.
  - Sexu-indarkeria gatazka armatuko egoeran (gerra-arma gisa) baita bake-testuinguruetan ere.
- **B.** Genero-arrazoiengatik jazarpen motaren bat alegatzen zen asilo-eskaeren administrazioarekiko auzi-errekurtsoetan Auzitegi Nazionalak eta Auzitegi Gorenak emandako epaien azterketa.

<sup>12</sup> UNHCR (2002): Nazioarteko babesari buruzko jarraibideak: generoagatik jazarpena, Errefuxiatuen Estatu-tuari eta/edo 1967ko Protokoloari buruzko 1951ko Hitzarmeneko 1A(2) artikulua testuinguruan. Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioa.

- **C.** Genero-arrazoiengatik jazarpen mota enblematikoekin lotutako kasuak biltzea eta haien ezaugarriak ezartzea: bereziki larriak direnak, erabilitako indarkeria-mailagatik, emakumeen bizitzan eragindako ondorioengatik edo Estatu espainolean duten babesgabeziagatik; esaterako sexu-esplotaziorako salerosketa, emakumeen genitalen mutilazioa, behartutako ezkontza, feminizidioa eta LGTTBlek pairatzen duten jazarpena.
- **D.** Genero-arrazoiengatik jazarrita Estatu espainolera iristen diren pertsonen profila definitzea, CEARren zerbitzu juridikoek izapidetutako eskaerak kontuan hartuta baita UNHCRren, Asilo eta Babes Bulegoaren eta gaian adituak diren emakumeen giza eskubideen defentsarako erakundeen ekarpenak ere.
- **E.** Estatu espainolera genero-arrazoiak direla-eta asiloa eskatzera iristen diren pertsonen jatorrizko herrialdeetan duten egoerari buruzko informazio-iturriak aztertzea eta sistematizatzea, betiere genero-ikuspegitik. Asilo-kasuak defendatzen dituzten pertsonen pairatutako jazarpena oinarritu ahal izatea erraztea izan da ikerketaren helburua.

### ■ 3. Eragin politikoa

#### **Legeen eta politika publikoen aldaketak aldarrikatzea**

Talde politikoekin, erakunde publikoekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Diputatuen Kongresuarekin lan eginez hainbat ekintza gauzatu dira, hain zuzen ere genero-arrazoiengatik jazarriak diren pertsonen egoerari buruz informatzeko eta pertsona horiek babestearen aldeko legedi-aldaketak eta harrera- eta laguntza-politiken aldaketa aldarrikatzeko.

Lan politikoaren oinarria genero-arrazoiengatik jazarriak diren pertsonen asilo-eskubidea onartzea izan da. Genevako Konbentzioa genero-ikuspegitik aztertu da eta jazarpen-arrazoi hori barne-legedian sartzeko proposamenak egin dira.

2006an Eusko Legebiltzarrak Gobernu espainolari dagokigun jazarpen mota asilo-eskubidearen esparruan onartzeko eskaera bat biltzen zuen erakunde-adierazpen bat egitea lortu zen.

2007an, *emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Legeak* (Berdintasun Legea) bere hogeita bederatzigarren xedapen gehigarrian, aginduko manu bat hartu zuen barnean orduan indarrean zegoen Asilo Legerako (5/1984 Legea): "3. artikulua 1. idatz-zatian xedatutakoa genero-arrazoiengatik jazarpena jasotzeko susmo sendoa dela-eta beren jatorriko herrialdeetatik ihes egiten duten atzerriko emakumeei aplikatuko zaie".

Jada esan dugunez, 12/2009 Asilo Legeak aipatutako aginduzko manua guztiz jasotzen ez badu ere, generoaren edo sexu-orientazioaren arrazoiengatik jazarpena biltzen du errefuxiatuaren definizioan. Aurrerapen hori genero-indarkeriak pairatzen dituztenen eskubide hori onar dadin borrokan ari garen erakundeen lanaren emaitza izan da.

Gaur egun, gure aldarrikapen garrantzitsuenetariko bat honako hau da: sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimak diren emakumeen asilo-eskubidea onartzea; izan ere, nazioarteko babesetik kanpo uzten dituzte, testuan azaldu den moduan.

### Sarean landutako dokumentu estrategikoak

CEAR-Euskadiren eragin politikoko estrategia gehienak sarean identifikatu dira, errealitatearen diagnostikoetatik eta ekintzarako eta eraldaketarako aukeren azterketatik abiatuz hain zuzen. Estrategia horiek epe laburreko prozesuak identifikatzeko eta ekintzak zehazteko ibilbide-orri gisa erabiltzen diren esparru-dokumentuetan zehazten dira.

Orain arte eragin politikoko estrategiak identifikatzeko eta kontrastatzeko lan kolektiboko hiru gune izan ditugu:

- **1.** Lehen gunean, emakumeen giza eskubideen defentsaren eta asilo-eskubidearen defentsaren arteko lan-sinergiak identifikatu ziren.
  - Identifikatu zen helburuetako bat honako hau izan zen: emakumeen giza eskubideen defentsan lanean ari zirenek asilo-eskubidearen aldarrikapena erants zezatela nazioarteko babes-mekanismo gisa genero-indarkeriako kasuetan.
  - Beste helburu bat izan zen emakumeen giza eskubideen arloko erakundeen eta mugimendu feministen ikuspegiak eta jakintzak asilo-arloko lanean txertatzea.
- **2.** Bigarren gunean, migrazioen arloko erakunde eta kolektiboekin lan egin zen ildo honetan: mugen militarizazioaren eta esternalizazioaren aurrean asilo-prozedurarako sarbidearen aldeko estrategiak definitzea, betiere hegoaldeko mugatik igarotzen diren emakumeen egoeran arreta berezia jarritz. Lan horrek ahalbidetu zigun Melillan egindako Giza Eskubideen Behaketa Misioa –aipatutako emakume horien egoera agerian uztera bideratua– identifikatzea, besteak ekintza batzuekin batera.
- **3.** Egin den azken dokumentu estrategikoaren ardatza izan da gaur egun asiloaren eta sexu-esplotaziorako salerosketaren arloan dauden “funtsezko elementuak” (puntu beroak) adostea. Inplikaturako agenteen (sozialak, po-



litikoak, juridikoak, instituzionalak, komunikabideak) mapa bat egin zen eta estrategia horiek gauzatzeko gaitasunak eta zailtasunak (kanpokoak eta barrukoak) aztertu ziren.

#### ■ 4. Sentsibilizazioa

Giza eskubideen eremuko agenteekin (zentzu zabalean ulertuta, hau da, migrazioen eta garapeneraren eremuko erakunde publikoak eta erakunde eta kolektibo sozialak, mugimendu feministak eta unibertsitateak) egindako lanari esker honako bi estrategia hauek gauzatu ditugu:

- Errealitate hau ahalmen biderkatzailea duten agente estrategikoetara hurbiltzea: errefuxiatuen ahotsak eta esperientziak jasotzen dituzten material didaktikoak landu eta gogoeta-jardunaldietan eta prestakuntzaguneetan sozializatu dira.
- Jadanik gaiarekiko hurbil daudenei informazio espezializatua eskaintzea: genero-arrazoiengatik errefuxiatuak identifikatzen, laguntzen eta babesten lan egiten dutenei zuzendutako erremintak landu dira.

# Kongoko Errepublika Demokratiko

## Caddy Adzuba

Association des Femmes des Médias du Sud,  
Kivu - Kongoko Errepublika Demokratiko

<http://afemsk.blogspot.com.es/>



Kongoko Errepublika Demokratikoan (KED), gerra ez da kongoarren arteko kontua soilik, nazio asko ari baita gerra horretatik etekina ateratzen. Kongoko Errepublika Demokratikoan dauden atzerriko talde armatuek meatzeak kontrolatzen dituzte zuzenean, eta negozio aberatsak egiten dituzte meatze horiekin. Meatze horiek ondoko herrialdeetara ere iristen dira, eta herrialde horiek ere etekinen zati bat lortu nahi dute. Dena den, Kongoko meatzeetako aberastasunaren zati handiena nazioarteko zirkuitu ekonomikoan sartuta dago eta irabazi handiak eragiten dizkie atzerriko enpresa eta gobernuei. Hori dela-eta, atzerriko enpresa eta gobernu horiek Kongoko Errepublika Demokratikoko gerra finantzatzen dute eta, modu batera edo bestera, gerra horren ondorioen erantzule dira.

Gaur egun, Nazio Batuak eta Europar Batasunak enpresa eta gobernu konplize horiek identifikatu dituzten arren, berdin jokatzeko jarraitzen dute eta ez zaie axola kongoarren odolez zikindutako etekina izatea.

## Lortuko al dugu inoiz, inork, kongoarren patuarekiko interesik agertzea?

### ■ Emakumeen aurkako sexu-indarkeria

Nazioarteko zenbait txostenen arabera, 500.000 emakume baino gehiago sexu-indarkeriaren biktima izan dira Kongoko gatazka armatuan. Gatazka hasi zenetik, egunean 40 bortxaketa izan dira. Alabaina, sexu-indarkeriaren aurka jarduten duten Kongoko emakumeen eta tokiko elkarten arabera, bortxaketa gehienak ezkutuan geratzen dira, ez dituzte salatzen matxinoen errepresaliak jasotzeko beldurrez.

### ■ Gure gorputzak, haien gudu-zelai

«Wabiwa naiz. Ruandako hutu matxinoek gure ama, 12 urteko anaia eta ni neu bahitu gintuzten. Ama eta biok haien sexu-esklabo izan ginen, eta anaia txikiari gerrako harrapakinak eramanarazten zizkieten. Egun batean, ama gure aurrean bortxatu ostean, oihal zati bat hartu, gasoliotan busti eta amaren sexuan sartu zuten, eta su eman zioten. Ama erretzen ari zen. Anaiak ezin izan zuen jasan. Beste alde batera begiratu zuen eta belarriak estali zituen amaren oinaze-oihuak ez entzuteko, baina matxinoek begira egotera behartu gintuzten. Nire kasuan, zuhaitz batetik zintzilik izan ninduten, biluzik, hiru egunez eta hiru gaeuz; ez zidaten jate-

korik eta edatekorik eman; animalia basatiak zebiltzan inguruan, eta eltxoek ere zitzada ugari egin zizkidaten. Matxinoak txizagura zirelarik, niri egiten zidaten, gainean. Nire sexua zigarretak itzaltzeko erabiltzen zuten, hautsontzi moduan».

«Nire izena Sibazuri da. Matxinoek burua moztu zieten senarrari eta 3 urteko semeari, eta haien babeslekura eraman ninduten, nire herritik 50 bat kilometrora dagoen baso batean. Han, 10 matxinok baino gehiagok bortxatu ninduten. Gero, beste bati esan zioten etortzeko; hark HIESa zuela zioten, eta kutsatu egingo ninduela. Esan eta egin. Orain Giza Immunoeskasiaren Birusa dut. HIESa zue-nak bortxatu ostean, egur zatiak eta ebakitzen zuten objektuak sartu zizkidaten sexuan. Gero, gori-gori zeuden txingarrak hartu eta haiek ere sartu zizkidaten. Orduan, hiltzeko eskatu nien. Mesede galanta egingo zidaten hil izan banindute».

Antzeko bizipenak izan dituzte eguneroko bizitzan Kongoko Errepublika Demokratikoan sexu-indarkeriaren biktima izan diren 500.000 emakumek baino gehiagok. Emakume horien izen ona zikindu, eta suntsitu egiten dituzte.

«Ez da normala bortxaketak izatea» dio, malkotan, eskola bateko arduradun zen emakume batek; emakume horren eskolan, ikasle nesken % 80 bortxatu dute.

Bortxaketa gerrako armatzat erabiltzen dute, eta arma horrek suntsitu egiten du, mantso baino errukigabe. Gizarte osoa deuseztatzen duen pozoia da. Borreroek badakite arma hori zein eraginkorra den eta zenbaterainoko suntsiketa eragiten duen. Bortxaketen ondorioei erreparatzea aski dugu horretaz jabetzeko.

«Ondorioak ezin txarragoak dira. Gaur egungo etika eta moralaren arabera, familiaren izen ona zikinduta geratzen da: neska gazteak, emakumeak, baita haurrak ere, bota egiten dituzte senar, familia edo komunitateen ondotik. Gainera, min fisikoa ere hor dago. Bortxatzaileek badakite ez direla soilik emakumeen duintasuna zapaltzen ari, baizik eta gizartearen egitura bera suntsitzen ari direla», esan zuen 2008. urtean Jürgen Schröder jaunak, Europako Parlamentutik Kongoko Errepublika Demokratikora bisitan joandako ordezkari batzuek.

Adin guztietako emakumeak izaten dira bortxaketa eta sexu-abusuen biktima, eta horren ondorio sozioekonomikoak ezin txarragoak dira, bi alderdi hauei dagokienez; alde batetik, biktima nagusiak emakumeak dira eta emakumeak nekazaritza-sektoreko biztanleria aktiboa dira, inguru hartako biziraupen-ekonomiaren funtsezko zutabe eta produkzio-indar nagusi; beraz, emakumezko nekazarien diru-sarrerak asko murrizten dira eta haien pobrezia-egoera larriagotu egiten da. Bestetik, ugaltzeko adinean dauden emakumeak dira, eta horren ondorioz, ugalketa-osasunean arazo oso larriak sortzen dira biktimengan. Horretaz gain, bortxatzaileek GIBa nahita kutsatzen diete biktimei. Estatistikei jarraiki, bortxatutako emakumeen % 66k HIESa du. Hori bai benetako suntsipen handiko arma!

Bortxatutako emakume horiek, gainera, gizartearen biktima ere badira; izan ere, gizarte horrek ez ditu onartzen eta, beraz, baztertuta geratzen dira, kasu askotan, seme-alabekin batera, senarrek haurrak ere gaitzesten dituztelako.

## Nazioko eta nazioarteko zuzenbideak porrot egin al du?

Kongoko Errepublika Demokratikoa nazioarteko hainbat tresnari atxiki zaio, baina hala ere, egoera ez da aldatu. Hona hemen Kongoko Errepublika Demokratikoak bat egindako zenbait tresna:

- Nazioarteko Gorte Penala eratu zuen Erromako Estatutua.
- Emakumeen eta haurren aurkako sexu-indarkeriaren prebentziorako eta errepresiorako protokoloa; 2006ko azaroaren 30ean onartu zen, Laku Handien eskualdeari buruzko Nazioarteko Biltzarrean.
- Emakumeak eta haurrak sexu-indarkeriaren zigorgabetasunaren aurrean babesteko protokoloa.
- Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 ebazpena, emakumeak eta neskak gatazkan babesteari buruzkoa; 2000. urteko ebazpena da.
- Bakeari eta segurtasunari buruzko 1828 ebazpena, 2008. urtean onartu zena.
- 1794 ebazpena, 2007an onartutakoa, Kongoko gobernuari sexu-indarkeriaren egileak eta haien goragoko ofizialak justiziaren aurrera eraman ditzala eskatzen duena, MONUCekin eta beste erakunde batzuekin batera.

Dokumentu horiek biltzen dira Kongoko Errepublika Demokratikoaren armategi juridikoan, baina tamalez, arma horiek modu eraginkorrean aplikatzea ahalbidetzeko mekanismorik ez dago. Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 ebazpenaren bitartez, duela 14 urte jada defendatzen zen emakumeak eta neskak babestu egin behar zirela sexu-abusuen eta indarkeriaren aurrean.

Kongoko Errepublika Demokratikoan, emakumeak eta neskak bortxatzaile armadunen esku geratzen dira, abandonatuta. 2009. urtean, sexu-indarkeriak garrantzi are handiagoa hartu zuen, egoera askoz ere larriago bihurtu baitzen emakumeen bortxaketak indartzen eta betikotzen dituen zigorgabetasun-egoera hori dela eta.

2014. urtearen hasieran, beste bortxaketa mota bat agertzen hasi zen. 5 urtetik beherako haurren aurkako sexu-indarkeria.

## Bizitza bat hasiera-hasieratik suntsitzea

Hegoaldeko Kivu probintzian beste basakeria bat agertzen hasi da: haurren aurkako bortxaketak eta sexu-indarkeria.

Fenomeno horrekin buru-belarri dabilta nazioko eta nazioarteko aktibista humanitarioak, familia osoan frustrazioa eta traumak eragiten baititu. Hala ere, egoe-rak gainditu egiten ditu: Hegoaldeko Kivu probintziaren hiriburu den Bukavu hiririk 30 kilometrotara dagoen Kalium aireportuaren inguruan presio demografiko handiko auzoak dira nagusi, eta gaeuz, 10 urtetik beherako haurrak bahitu eta bortxatu egiten dituzte.

Estatistiken arabera, urtebetetik hamar urtera bitarteko hogeita hamar haur baino gehiago izan dira biktima. Tokian tokiko gizarte zibilean egindako ikerketari jarraiki, modus operandi-a berdina da, baina biktima mota aldatzen da. Giza-terriaren aurkako krimenez har daitezkeen horrelako ankerkeria horien arrazoa zein den argitzeke dago oraindik.

35 biktimek –gehientsuenak ez dituzte 5 urte bete oraindik– izen-abizenak dituzte. Alabaina, krimen hori nork egin duen jakitea ezinezkoa izan da.

Gaitz horren aurka egiteko indarrean dauden legeak ezagutzen ez zituztenez, haur horien senitartekoek Auzitegietan jarri zuten egintza horien aurkako salaketa, baina egoera bere horretan geratu zen, justiziak arlo horretan zein bide egin behar duen ez zekitelako. Haurren eskubideak babesten dituen 2009ko urtarrilaren 10eko 09/001 zenbakidun Legearen arabera, haurren aurka egindako basakeria-egintza oro –sexu-indarkeria barnean hartuta– debekatuta dago eta gogor zigortuta dago. 2006ko otsailaren 18an onartu eta 2011ko urtarrilean berrikusitako Konstituzioaren 123. artikuluko 16. puntuan dio Kongoko Errepublika Demokratikoan herritarrek haurrei garrantzi handia ematen dietela bizitza berritzeko elementu diren aldetik, eta haurren babesa gai nagusitzat hartzeko konpromisoa hartu zuten; horretarako, giza eskubideak, oro har, eta haurren eskubideak, bereziki, babesten dituzten nazioarteko hainbat tresna onartu eta berretsi ditu. Tresna horietan ezagunena Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa izan da: Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala.

Kabare-ko haurrak egoera oso ahulean daude, etsaitasunezko ingurunearekiko mendetasun handia dute, eta ez dute heldutasunik fisikoki, intelektualki eta emozionaliki; beraz, zaintza eta babes bereziak behar dituzte, honako faktore hauek guztiak bilduta: alderdi mediko, juridiko eta psikosozialak, gizarteratzea, eta hezkuntza jasotzeko, eskolatzeko, elikatzeko eta janzteko aukera emango dieten baliabide ekonomikoak esleitzea. Ezin dugu ahaztu, halaber, honako haue-

tarako baliabideak ere behar-beharrezkoak direla: gizartea sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko, legezko kasuen jarraipena egiteko, haurrak Erregistro Zibilean erregistratzeko, eta tokiko buruzagiei prestakuntza emateko.

Zenbait behatzaile eta analistaren ustez, sexu-indarkeriaren krimenak duen zigorgabetasunaren ondorio da egoera hori, eta Kongoko Errepublika Demokratikoaren ekialdean borrokalari izandakoak desmobilizatzeko eta berriz gizarteratzeko programaren porrotak areagotu egin du.

Desmobilizatzeko fenomenoari dagokionez, Kongoko gobernuak eta prozesuan laguntzen aritu diren gobernu kanpoko erakundeek ez dute lortu prozesua burutzea. Borrokalari izandako horiek miliziako gizon armatuak ziren, eta egun lanik gabe eta diru-sarrerarik gabe daude gerraren ondorioz ahul eta traumatizatuta dagoen gizarte batean. Bizirautearren, desmobilizatuek lapurtu egiten dute eta herritarrak traumatizatzen saiatzen dira, talde armatuan egiten zuten moduan. Tamalez, haur ahulenak dira haien xede. Sistema judizialaren eta babes-zerbitzuen ahulezia baliatzen dute negozio zikinak egiteko, ezeren beldur izan gabe.

## Ahalegina egin behar da emakumeen aurkako sexu-indarkeriari aurre egiteko

Nazioarteko erakunde askok, baita Nazio Batuen adituek ere, hainbat txosten argitaratu dituzte gerrako armatzat erabiltzen den sexu-indarkeriaren egoera salatzeke, Kongoko Errepublika Demokratikoaren ekialdean bizi diren emakumeen aurka antolatutako eta planifikatutako sarraskia den aldetik.

Emakume kongoarrak gatazka armatuen biktima dira, eta behartu eta bortxatu egiten dituzte, duintasuna galarazi diete eta ohorerik gabe bizi arazten dituzte. Haien sexu-organoak zerbitzu doilorrenetarako baliatu dituzte, sexu-esklabo bihurtu dituzte eta komunitateak ere gaitzetsi egin ditu. 18 urte luze daramagu egoera horretan.

Gaitz horri aurre egiten saiatzeko esku-hartzeak itxaropen-hazi dira biktimentzat, hala nola:

- Bizirik geratzen diren emakumeei laguntzeko gobernu kanpoko erakundeen esku-hartzeak.
- Sexu-indarkeriari buruzko nazioarteko topaketak.
- Kongoko gobernuak emakumeen aurkako sexu-indarkeriari aurre egiteko hartutako konpromisoa eta Nazio Batuak ere tartean sartu izana.

Kongoko emakumeen sarraski horri aurre egiteko hamaika proiektu garatu dira.

Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 ebazpena, emakumeak babesteari buruzko nazioarteko akordioak, eta Kongon onartutako legeak ere urrats garrantzitsuak izan dira borroka horretan aurrera egiteko.

Nazioarteko, nazioko eta eskualdeko mobilizazioei esker, bizirik geratzen diren emakumeek etorkizun hobea izateko itxaropena izan dezakete.

Baina itxaropenak itxaropen, sufrimendua hor dago oraindik, eta gero eta handiagoa da. Kivun gero eta biktima gehiago dago, gero eta «emakume bortxatu» gehiago.

Bizirik geratzen diren emakumeek ez dute nahi KIVU bortxaketen hiriburu izan dadin; EMAKUME AHALTSUEN ETA ASMO HANDIKO EMAKUMEEN HIRIBURU bihur dadin nahiko lukete.

Horregatik, bizirik geratu diren emakumeek isilik egoteari uztea erabaki dute, eta bizi duten egoera gainditzeko jasan behar duten guztia salatzen hasi dira, beren segurtasuna eta sendabidea ahalbidetzearren.

Bide luzea da, zalantzarik gabe, baina sufrimendu horrekin guztiarekin bukatzeko asmo sendoa dute.

## Itxaropenaren bidea

Emakumeen aurkako indarkeriaren krisialdia gainditzeko modurik eraginkorrena emakumeak berak inplikatzeko da. Sendabide fisikoaren eta emakumeen lidergoaren artean benetako lotura lor daiteke bizirik geratu diren emakumeak autonomo izatea lortzen badute. Baliabideak eskura izanez gero, sexu-indarkeriaren arriskua murriztuko litzateke. Bizirik geratu diren emakumeek proposatu dute aukera hori, eta egingarria da.

Nazio Batuek, arlo horretan esku hartzen duten nazioarteko erakundeek, Kongoko estatuak –herritarren segurtasuna eta sexu-indarkeriaren aurkako borroka bermatu behar duenak- eta gaiarekiko kezka agertu duten emakumeek bizirik ateratu diren emakume horien premiak eta proposamenak entzuteko prest egon behar lukete, konponbide jasagarria lortzea, segurtasun-gabeziarekin bukatzea, talde armatuak desagerraraztea eta zigorgabetasunari aurre egitea helburu izanik betiere.



**Kulturak Afrikako  
komunitateetan emakumeen  
menderatze patriarkalerako  
eta emakume horien aurkako  
indarkeriarako tresna gisa  
betetzen duen zeregina  
testuinguruan kokatzea:  
Kenyako iparraldeko  
esperientzia**

**Sophia Abdi Noor**

Kenyako 10. Parlamentuko kide ohia



# 5

Kulturak Afrikako komunitateetan emakumeen menderatze patriarkalerako eta emakume horien aurkako indarkeriarako tresna gisa betetzen duen zeregina testuinguruan kokatzea: Kenyako iparraldeko esperientzia

Sophia Abdi Noor



## Sinopsia

Kulturak emakumeen menderatze patriarkalerako eta emakumeen aurkako indarkeriarako tresna gisa betetzen duen zeregina ikerketa esperimental bat da aurkezpen hau. Patriarkatuak genero-indarkeria iraunarazten du Afrikako komunitateetan, eta kulturak horretan zer neurritaraino laguntzen duen zehaztea da aurkezpen honen helburua: Kenyako iparraldeko kasu-azterketa bat. Aurkezpenak eskaintzen dituen argudioei jarraiki, gizonezkoen mesederako diren kultura- eta erlijio-arloko jardunbide/arauak funtsezko faktoreak dira Kenyako patriarkatua (eta Kenyako iparraldekoa bereziki) areagotzeko. Era berean, Kenyako politiken alderdi garbi eta berriei eta alderdi horiek emakume eta gizonen rol eta erantzukizunetan duten eraginari buruzko eztabaida sustatu nahi da. Halaber, aurkezpenaren arabera, patriarkatua familia-nukleoan/etxean sortu eta komunitatera eta eremu publikora zabaltzen da gizonen eta emakumeen arteko gizarte-harreman diskriminatzaileen bitartez. Azkenik, genero-indarkeriaren gorakada kontrol patriarkalaren kontrako desafio baten ondorioztat har badaiteke ere, baliteke gorakada horrek ez adieraztea patriarkatuaren kolapsoa Kenyako sistema politikoan, ezta deszentralizazioaren etorrerarekin ere.

## Aurkezpenaren profila

1. Kenyari buruzko laburpena
2. Kenyako iparraldea eta bertako jendea ulertzea
3. Genero-indarkeriaren eta patriarkatuaren ikuspegi orokorra
4. Kenyako emakumeen estatus aurrekoloniala
5. Patriarkatuaren esparruak: etxea eta erakunde publikoak
6. Patriarkatuaren adierazpen soziokulturalak
7. Genero-indarkeria eta patriarkatua: loturak
8. Kenyako emakumeek hauteskunde-politikan atzera egiten jarraitzen dute: datuak eta zifrak
9. Ondorioa

## 1. Kenyari buruzko laburpena

Kenya Ekuatorean dago. Indiako Ozeanoa du hego-ekialdean, Tanzania hegoaldean, Uganda mendebaldean, Hego Sudan ipar-mendebaldean, Etiopia iparraldean eta Somalia ipar-ekialdean. 581.309 km<sup>2</sup>-ko azalera du, eta 44 milioi biztanle zituen 2012ko uztailen. Klima beroa eta hezea du Indiako Ozeanoko kostaldean, aberastasun natural handia sabanan, eta larreak barnealdean, hiriburuaren inguruan. Nairobik klima hotza du, are hotzagoa Kenya mendiaren inguruan. Mendi horri tontorra baino ez zaio geratzen elur iraunkorrekina. Barnealdean, Victoria aintziratik hurbil, klima beroa eta hezea da. Mendebaldeko eskualdeak baso epelak eta muinoz betetako eremuak ditu. Ipar-ekialdeko eskualdeak, Somaliarekiko eta Etiopiarekiko muga osoan, aridoak eta erdiaridoak dira, eta bertako paisaiak basamortukoak dira ia.

## 2. Kenyako iparraldea eta bertako jendea ulertzea

Kenyako iparraldeko zatirik handiena Ekuatoreko eguzkiak kiskalitako lur idorra da. Zenbaitetan, hilabeteak itxaron behar izaten dira euria egiteko, baita urteak ere. Paisaien artean, errauts bolkanikoko eremu malkartsuak eta duna eta saszita zakarreko eremu ibilgaitzak ditugu. Azken horietan, txakalak eta ostrukak ikus daitezke. Basamortuetako mendietan, berriz, landaredia mardula izaten da. Paisaiez eta bizitza basatiaz gain, Kenyako iparraldeko alderdirik erakargarriena jendea bera da. Ingurune gogor eta lehor batean, hamabi tribu bizi dira iparraldean, eta, haien artean, honako hauek: Turkana arrantzaleak izen bereko aintziratik hurbil, Samburu gamelu-zaintzaileak (Maasai tribuaren hurbileko tribua da), Burji nekazariak, Boran abeltzainak, Gabbra gamelu-hazleak eta Rendille nomadak (azken horiek ere gameluak hazten dituzte).



Somaliako emakumeak une atsegin batean, beren txabola eramangarrien aurrean.

# 5

Kulturak Afrikako komunitateetan emakumeen menderatze patriarkalerako eta emakume horien aurkako indarkeriarako tresna gisa betetzen duen zeregina testuinguruan kokatzea: Kenyako iparraldeko esperientzia

Sophia Abdi Noor

Kenyako somaliarrak Afrikako ia adar osoan bizi den pertsona talde askoz handiago baten parte dira. Somaliar gehienak Somaliako herrialdean bizi dira. Somaliarrak biztanle nagusiak dira, halaber, Etiopiako hego-ekialdean dagoen Ogaadeen (Ogaden) eskualdean eta Kenyako ipar-ekialdeko probintzia izan zen Djiboutiko herrialdean. 6 milioi somaliar inguru egongo dira, Digil-Rahawiin izenekoak barnean hartuta. Genealogia batzuen arabera, Somaliako klan batzuk Arabiar Penintsularekin lotuta daude, eta haien arbasoak Sharif-ekin, hau da, Mahoma profetaren familiarekin daude lotuta. Dena dela, hizkuntza, kultura eta historiaren arloko frogak erakusten dutenez, egungo Etiopiako hegoaldeko goi-lurretan dute jatorria.

Artzain-herri nomada horren kulturak gameluak ditu ardatz, eta eremurik produktiboenetan behi eta ahuntz batzuk ere badaude. Emakumeek eta haur txikiak ardiak eta ahuntzak zaintzen dituzte, eta gizon gazteak gamelu baliotsuak taldeetan biltzeaz arduratzen dira. Somaliarrak urtean 10 zentimetrotik beherako prezipitazioak dituen lurralde batean bizi dira, eta ur bila eta abereentzako bazkaleku bila ematen dute bizitza osoa. Antzina, esneak eta esnekiek osatzen zuten somaliarren dieta osoa ia, baina gaur egun arto-irina eta, batez ere, arroza ere kontsumitzen dute. Familiak txabola eramangarri batzuetan bizi dira; emazteak tolestutako adarrez eta ehundutako zerriez eraikitako txabola independente bat du. Ahaidetuta dauden familientzat egindako eta zirkuluan edo erdizirkuluan antolatutako txabola multzo batez osatuta daude herrixkak, eta erdian ukuiluak izaten dituzte. Etxeak emakumeek eraiki ohi dituzte. Gizonek gameluak eta behiak zaindu eta babesten dituzte (behiak Garissa-ko hegoaldean batez ere, eta gameluak iparraldean batez ere). Emakumeek abereak jetzi, janaria prestatu eta familia elikatzen dute.

Nairobi eta Mombasan bizi diren Somaliako errefuxiatu askok merkataritza-proiektu berritzaileetan parte hartzen dute. Kenyako somaliarrak herrialde osoan sakabanatuta dauden herri txiki batzuetako merkataria dira. Somaliarrek oso gustuko dute *qat* (khat) edo *miraa* izeneko estimulatuak arina mastekatzea. Kenyan, somaliar asko distantzia luzeko garraio-gidariak dira, eta bidaiak luzeetan esna irauteko masteketzen dute *miraa*. *Miraa*, gainera, denbora-pasa soziala da. Somaliarrei asko gustatzen zaie poesia, eta ahozko tradizio aberatsa dute esparru horretan. Lege islamikoaren arabera, gizon batek lau emazte izan ditzake, eta poligamia oso zabalduta dago. Dibortzioa gizonen eskubidea da. Erraza eta ohikoa da somaliarren. Dibortzioaren kasuan, seme-alabak sexuaren arabera bereizten dira: mutilak aitarekin eta neskek amarekin.

### 3. Genero-indarkeriaren eta patriarkatuaren ikuspegi orokorra Afrikan

Oro har, onartuta dago genero-indarkeria patriarkatuan sortzen dela eta patriarkatua ideologian eta boterearen gauzatzean oinarrituta dagoela. Patriarkatuak genero-harremanen ereduari eta etxeetan baliabideak eta boterea esleitzeko arauari jarraitzen die, eta gizonen autoritatea eta boterea nagusi den genero-rolen eta zereginen banaketaren arabera antolatutako "boterearen" statu quoa bermatzen eta iraunarazten du. Gizonak eta mutilak ogia etxera ekartzen duten familiaburuak dira, eremu pribatuan zein publikoan. Nolanahi ere, emakumeak eta neskek bigarren maila batean daude, eta haien balioa etxea eraginkortasunez antolatzeko eta ugalketa ziurtatzeko gaitasunaren arabera da.

Gaur egun, Kenyako diskurtso publikoen arabera, genero-indarkeria areagotzen ari da patriarkatuaren boterearen adierazpen nagusietan, baita "zapalduak" (emakumeek) "zapaltzaileei" (gizonei) aurre egitearen ondorioz ere. Izan ere, emakumeek eta neskek pobreziatik ateratzeko eta indarkeriaz, abusuez eta GIB/HIESaz babesteko duten gero eta ezintasun handiagoaren jatorria da patriarkatua. Funtsezko faktorea da jarauntsirik ezaren kulturetan baliabideak eskuratzeko aukerarik eta baliabide materialen eta finantza-baliabideen gaineko kontrolik ez izateko, diskriminazio sistematikoa gertatzeko eta erabakiak hartzean baztertze.

Hainbat jakintsuren arabera, gizonei emakumeak menderatzeko aukera ematen dieten eta oinarri materiala duten gizarte-harremanen multzoa da patriarkatua (Stacey 1993, Lerner 1986, Aina 1998, Kramarae 1992). Ainak (1998:6) argudiatu duenez, generoan oinarritutako gizarte-estratifikazio eta gizarte-bereizketarako sistema bat da patriarkatua, gizonei abantaila materialak eskaintzen dizkiena eta, aldi berean, emakumeek betetzen dituzten zeregin eta jardueretan muga garrantzitsuak ezartzen dituena. Ildo horretan, hainbat tabu daude zehaztutako genero-rolerikiko adostasuna bermatzeko. Jatorrian, aitek familiako buru gisa zuen tokia finkatzeko balio zuen "patriarkatu" terminoak, baina, pixkanaka, gizonen nagusitasunaren eta emakumeen mendekotasunaren antolaketa sistemikoa adierazteko erabiltzen hasi da. Patriarkatua "aiten gobernua" dela ulertzen da. Edonola ere, gizonen egungo nagusitasuna ez da "aiten gobernua" mugatzen: senarren, buru diren gizonen eta gizarte, politika eta ekonomiako erakunde gehienak kudeatzen dituzten gizonen gobernua ere bada.

Patriarkatua, gainera, gizonei emakumeak menderatu, zapaldu eta esplotatzeko aukera ematen dien gizarte-egiturako sistema bat da. Gizarte edo kultura patriarkalak gizonek hasten dituzte eta gizonek eusten diete, sozializazio-prozesu zorrotz baten bidez kultura patriarkala instituzionalizatzen denean, hain zuzen

# 5

Kulturak Afrikako komunitateetan emakumeen menderatze patriarkalerako eta emakume horien aurkako indarkeriarako tresna gisa betetzen duen zeregina testuinguruan kokatzea: Kenyako iparraldeko esperientzia

Sophia Abdi Noor

ere. Prozesu horretan, komunitateko kide bakoitzak badaki zer betebeharrak, ardura eta rol dagozkion.

Boterea funtsezkoa da giza harremanak erregulatzeko, senar-emazteen kasuan bereziki. Izan ere, senarraren botereak bi dimentsio ditu. Lehenak erabakiak hartzeko aukerarekin eta horri lotuta dagoen eta estrategietan eragina duen gatazkarekin du zerikusia. Erabakiak hartzeko aukerarik eza, gatazka edo eragin-estrategiak bikotekide batek bestearen posizioa aurreikusten eta onartzen duelako gertatzen dira. Boteretik txikienera bikotekideak eragiteko ahalmenik ez duela uste duelako edota errepresalien beldur delako gerta daiteke hori. Bigarrenak (botere ikusezina) prozesu inkontziente batekin du zerikusia. Prozesu horretan, desberdintasunaren sistema sozial eta psikologikoak direla-eta, bikotekide batek ezin du pentsatu ere egin erabakiak hartzen edo gatazka batean parte hartzeko edo botere-estrategiak erabiltzeko aukeran. Labur-labur azaldu ditugun botere-harremanek eragin esanguratsua dute senar-emazteen arteko harremanei lotutako gatazken sorreran, eta aurkezpen honi lotutako eztabaidaren mugak zehazten dituzte. Genero-indarkeria giza eskubideen inguruko diskurtsoan kokatuz gero, identitaterako eskubidearen urraketa dela esan daiteke:

- Emakumearen gizonarekiko mendekotasuna indartzen eta erreproduzitzen duelako eta izakiaren distortsioa dakarrelako; afekturako eskubidea.
- Indarkeria giza eskubide ororen antitesia delako; bakerako eskubidea eta harreman pertsonalen aberastea.
- Arbitraje mota negatibo bat delako; babeserako eskubidea.
- Babesgabetasun-egoera sorrarazten duelako; garapen pertsonalerako eskubidea.
- Biktimek beren sortzeko ahalmena garatzea eragozten dien paralisi psikologiko bat jasaten dutelako; parte-hartze sozial eta politikorako eskubidea.
- Etxetik kanpoko jarduerak galarazten dituelako (ohiko zereginei lotutako jarduerak salbuetsita, hala nola erakunde, talde edo bileretan parte hartzea); adierazpen-askatasunerako eskubidea; eta osasun fisiko eta mentaleko egoera egoki baterako eskubidea.

Genero-egitura patriarkalek genero-indarkeria bultzatzen dute. Izan ere, indarkeria mota horren jatorria, desberdintasun politiko eta ekonomikoa ez ezik, generoa maskulinitatearekin eta feminitatearekin identifikatzeko joera ere bada. Identitatearen eta gizarteak identitatea eraikitze eta berreraikitze duen moduaren adierazpen bat da. Genero-indarkeriak genero-rol zurrinak dituzten gizarteetan edota gizonen nagusitasuna identitate maskulinoaren parte den komunitate patriarkaletan dirau.

## 4. Kenyako emakumeen estatus aurrekoloniala

Hainbat pentsamendu-eskola patriarkatuaren jatorria Afrikako ala mendebaldeko sustraietan dagoen ikertzen saiatu dira. Pentsamendu-eskola baten arabera, afrikarren kultura kontuan hartuta patriarkatua Afrikakoa dela esan daiteke, eta Kenya, eta batez ere Kenyako iparraldea (kushitarra eta musulmana nagusiki) horren adibide garbia da.

Kenya aurrekolonialean, emakumeen posizioa desberdina zen bereizketa etnikoen, okupazio-bereizketen, emakumeek egitura ekonomikoaren barruan betetzen zuten rola eta ahaidetasun-sistema nagusien arabera. Garai aurrekolonialetan, emakumeen rola ez zeuden gizonen rola mende; aitzitik, gizonen rola osagarriak ziren. Rola arteko desberdintasunak ez zion balioa kentzen emakumeek egindako lanari.

Gideon S. Were-k (**África through 1000 years**) dioenez, menderatze kolonialaren ezarpenak mugatu egin zuen Afrikako emakumeen botere politiko eta soziala handiagotzeko aukera. Administrazio kolonialaren aurretik, emakume *agikuyuek* (Wangu Wa Makeri) zeregin garrantzitsua betetzen zuten nekazaritzan, eta emakume *mijikendek* (Mekatilili Wa Menza), berriz, familiak zaintzeko baliabide materialak lortzeko ardurak zuten. Kenyako gizarte somaliarretan, ordea, Islamaren interpretaziorik ohikoenak etxean geratzera bultzatu zituen emakumeak, senarrak familiaren premiei erantzuteko edo beharrezkoa zen lanak kontratatzeko pobreegiak zirenean izan ezik.

Gainera, Kenyako 42 gizarte tribalek posizio garrantzitsuak esleitzen zizkieten emakumei, eta emakumeek gizonen funtzioen osagarritzat hartzen ziren funtzioak betetzen zituzten. Beharbada, horrek guztiak emakumeak beren kontrol-esparruaren barruan edukitzeko premia sustatu zuen gizonengan, ezkontza-harremanen kasuan bereziki.

## 5. Patriarkatuaren esparruak: etxea eta erakunde publikoak

Genero-indarkeria genero-desberdintasunekin sendotzen eta iraunarazten da. Patriarkatuak emakumeen mendekotasunari eusteko eta mendekotasun hori sendotzeko dihardu. Etxea eta etxeko produkzioak emakumeen mendekotasunerako funtsezko esparruak dira, eta eremu publikora zabaltzen dira. Patriarka-

# 5

Kulturak Afrikako komunitateetan emakumeen menderatze patriarkalerako eta emakume horien aurkako indarkeriarako tresna gisa betetzen duen zeregina testuinguruan kokatzea: Kenyako iparraldeko esperientzia

Sophia Abdi Noor

tuaren egiturak forma desberdinak ditu (etxeak eta lanlekuak –patriarkatu instituzionala–), eta hainbat estrategia erabiltzen ditu genero-desberdintasunari eta emakumeen mendekotasunari eusteko. Etxeko patriarka emakumearen zapaltzailea eta emakumearen mendekotasunaren onuraduna da aldi berean. Patriarka indibidualek eta erakunde publikoek beren botereak erabiltzeko moduak agerian uzten ditu patriarkatuak etxeko eremuan eta eremu publikoan dituen funtzionamendu-egituren arteko loturak. Erakunde publikoek ez dute ahalmenik emakumeak bakarka zapaltzeko eta egitura publikoetatik zuzenean baztertzeko; hori etxean egiten da. Botere instituzionala eremu publiko osoan erabiltzen da emakumeak baztertzeko, marjintzeko eta aginte-posizioetatik eta erabakiak hartzeko aukeratik urruntzeko.

Adibidez, afirmazio-ekintzarako kanpainaren kontrako ohiko argudioa honako hau da: Kenyako ezein legek edo Kenyako Konstituzioaren ezein xedapenek ez du eragozten emakumeek hauteskundeetan parte hartu eta botere politikoa lortzeko aukera. Baina egitura formal eta informaletan dauden genero-oztopoen ondorioz (famiaren portaera-kode inplizituak eta baliabide- eta botere-esleipe-nak barne), emakumeek Kenyako gobernuan eta erabakiak hartzean duten parte-hartzea oso urria eta ezdeusa da oraindik. Horrek garbi erakusten du indar patriarkalen artean akordio bat dagoela (kontzientea edo inkontzientea) statu quoari eusteko, emakumeak botere-esparruetatik kanpo uzteko eta, era horretan, patriarkatuaren ondorioz gizonak dituzten pribilegioak ziurtatzeko.

Horrela, beraz, patriarkatuaren boterea maila publikoan zein pribatuan berresten da sendotzeko eta irauteko, Kenyan nagusi den giro ekonomiko eta soziala edozein izanik ere. Patriarkatuaren esparru horietan ere, hainbat genero-indarkeria mota agertzen dira. Famiaren barruan, kontrol patriarkalarekiko erresistentziaren ondorioak (senar-emazteen harremanetan batez ere) askotarikoak dira: fisikoak, hala nola emaztea jotzea, senarraren bortxaketa, jardunbide tradizional kaltegarriak (emakumeen genitalen mutilazioa), alarguntasun-erritua eta jarauntsirik ezaren erritua, eta baliabide material eta ekonomikoen gabetzea. Faktore horiek guztiak direla-eta, emakumeak senarraren mende daude beti beren finantza-premiak eta premia materialak betetzeko. Halaber, gizonak emakumeak eta neskak azpiratuta edukitzeko erabili dituzten neurrien artean, mugikortasunaren murrizketa eta espazio publikoaren erabilera aipa daitezke. Oztopo horiek gainditu dituzten emakumeek ere jasaten dute genero-indarkeria eremu publikoan: indarkeria politikoa, lan-ingurune formalean mailaz igotzeko aukerarik eza, larde-ria bidezko tratua txar psikologikoak eta komunikabideen jarrera negatiboa.



## 6. Patriarkatuaren adierazpen soziokulturalak

Afrikako gizarte gehienetan, emakumeak gutxiesten dituzten hainbat faktorek iraunarazten dute patriarkatua. Kenyako emakumeen eskubideak sustatzeko ahalgin handiak egin badira ere, emakumeek gizonen diskriminazioa eta zapalkuntza jasaten dute oraindik. Munduko zenbait lekutan, emakumeak goi-klasekoak, aberatsak edo hezibide onekoak badira, ez dituzte abusu horiek jasaten. Kenyan, berriz, emakumeen mendekotasunak alfabetatutako emakumeak zein alfabetatu gabeak, aberatsak zein pobreak, hiri-inguruneak zein landa-inguruneak hartzen ditu eraginpean. Ez dago emakumeak bidegabekeria horretaz babesten dituen mugarik. Genero-indarkeria emakumea gutxiesten delako gertatzen da funtsean. Hori dela-eta, iparraldeko Kenyan garapena motelagoa da beti.

Afrikako emakumeen eta nesken gaineko kontrol patriarkala gauzatzeko funtsezko arma mendekotasuna da. Sozializazio kultural eta erlijiosoaren bitartez iraunarazten da, eta Afrikako (eta, bereziki, Kenyako iparraldeko) neska eta nerabe gehienek naturala eta Jainkoak ezarritakoa dela uste dute oraindik. Horren ondorioz, gehienetan emakumeek uko egiten diote aldaketari, genero-indarkeriaren inguruko mezuak emakumeen eta gizonen jokabide egokiaren inguruko kultura-aginduen kontrako aberraziotzat hartu ohi baitituzte. Mendekotasuna iraunarazten duten faktore gehienak sotiltasunez errotuta daude kultura-jardunbideetan, arauetan, familiaren kode inplizituetan eta Kenyako legeriaren legezko eta ohiturazko xedapen diskriminatzailetan. Ondoren, Kenyako emakumeen mendekotasuna indartzen duten faktoreetako batzuk ikusiko ditugu.

Kenyan, Afrikako beste herrialde askotan bezala, emakumeek oztopo ugari dituzte gobernuan ordezkatuak izateko. Emakumeen parte-hartzea urria izan da, esparru "pribatura" mugatu behar dutela suposatzen baita. Ereku "publikoa" agintaritza politikoari lotuta dagoen bezala, eremu "pribatua" familiar eta etxeari lotuta dago. Emakumeak esparru pribatura baztertzeko automatikoki murrizten du emakumeek politikan jarduteko ahalmena. Eta familien barruko genero-desberdintasunak, etxeko lanen banaketa desberdinak eta genero-rolen inguruko kultura-jarrerak are neurri handiagoan azpiratzen dituzte emakumeak, eta mugatu egiten dute bizitza publikoan ordezkatuak izateko aukera. Oso patriarkalak diren gizarte askotan, emakumeen borroka eragozten duten tokiko botere-egiturak daude. Beraz, emakumeen interesak ez dira ordezkaturik egoten.

Kulturak Afrikako komunitateetan emakumeen menderatze patriarkalerako eta emakume horien aurkako indarkeriarako tresna gisa betetzen duen zeregina testuinguruan kokatzea: Kenyako iparraldeko esperientzia

Sophia Abdi Noor

## ■ Erlijioa

Edozein estatutako Konstituzioak bermatzen du herritarrek beren erlijioa inor tartean sartu gabe praktikatzeko duten eskubidea.

- Erlijioa emakumearen menderatzea sustatzen duten faktore nagusietako bat da. Izan ere, munduko erlijio-tradizio gehienak patriarkalak dira. Munduko erlijio nagusietan (kristautasuna, islama, hinduismoa, judaismoa eta budismoa), fundatzaile eta izen handi guztiak gizonezkoak dira. Tradizio horietako gainerako izen garrantzitsu gehienak ere gizonezkoak dira. Horregatik, kasu gehien-gehienetan, printzipio ideologikoei fedearen elementuak hartu zituzten, eta gurtzan erabilitako irudiak gizonenak dira. Eliza Katolikoan adibidez, emakume gehienak elizkoiak badira eta fedearen printzipio eta ideologiei tinko jarraitzen badiete ere, emakumeak ezin dira diakonoak edo apaizak izan.
- Bibliako kontakizunek ere oso garbi uzten dute emakumeek funtsezko zeregina bete zutela Kristoren lurreko ministerioa betetzeko, hala nola pizkundearen pasadizoan eta emakumeek igokundearen ondoren egindako lanean. Aldaketarekiko erresistentziaren arrazoa erlijio-tradizio patriarkalari eta gizonezkoen mesederako diren jardunbideei eusteko nahia da. Kristautasunaren kasuan bezala, Islamean pentsaezina da emakumeak imanak izatea.
- Erlijioa funtsezko arma da mendekotasuna betearazteko, afrikarren (eta bereziki Kenyako emakumeen) espiritueltasuna eta erlijioarekiko lotura oso handia baita. Agintaritzaren espiritualetan zaintzaileek jasotzen duten begirune nabariak ziurtatu egiten du aldarrikatzen dutena ia zalantzarik gabe onartuko dela.
- Erlijio-testuen interpretazio patriarkalak emakumeen egoera okerragotu eta gizonak/mutilak pribilegiatzen ditu. Emakumeek eta neskek obeditu egin behar dute gizarte-zigorak saihesteko edo zigor horiek ez betetzeagatik markatuta ez geratzeko. Azken batean, horrek desagerrarazi egiten du erlijio horien aurreikuspenen araberako portaera egokia arautzen duten eta ustez Jainkoak agindu dituen oinarriko printzipioei aurre egiteko aukera.

## ■ Kultura-arloko arauak eta jardunbideak

Emakumeen aurkako indarkeriaren arrazoi nagusizat hartu izan da kultura. Dirudenez, gizon batzuek oraindik ere babesten dituzte tradizio zaharkitu horiek. Adibidez, emakume baten aurkako tratu txarra diziplina mota bat da, eta onargarria da.

# 5

Kulturak Afrikako komunitateetan emakumeen menderatze patriarkalerako eta emakume horien aurkako indarkeriarako tresna gisa betetzen duen zeregina testuinguruan kokatzea: Kenyako iparraldeko esperientzia

Sophia Abdi Noor

- Orain arte, seme baten jaiotza alaba batena baino neurri handiagoan onartu izan da Kenyako komunitate gehienetan. Semeak garrantzitsuagoak dira, eta semeak dituen ama batek alabak dituen batek baino harrotasun eta segurtasun handiagoa izaten du. Komunitate batzuetan semeen amei ematen zaizkien pribilegioak esplizituak ez badira ere, haien nagusitasuna sotiltasunez agertzen da, keinu eta ekintzen bidez.
- Semeek familiaren abizena eramaten dute, eta ezkontzak desagerrarazi egiten ditu neska batek jatorrizko familian zituen eskubideak. Askotan, gizonak bigarren emaztea bilatzen du lehenak semerik ematen ez badio. Beraz, semerik ez duen emakume batek segurtasun-gabezia jasaten du gizartean, eta beste emakume batek norberaren hutsuneak betetzeko senarra eta etxea kenduko dion beldurrez bizi da.
- Semeak lehenestearen ondorioz, baliabide gehiago bideratzen dira semeen hezkuntza eta hazkuntzara, etorkizunean leinuaren biziraupen eta babeserako irabaz dezakeen diruan pentsatuta.
- Neskak, berriz, kontsumo-produktutzat hartzen dira. Izan ere, denborarekin, beste familia bateko kide batekin ezkonduko dira, seme-alabak izateko eta ezkontidearen leinuaren biziraupena ziurtatzeko.
- Emakumeen genitalen mutilazioak areagotu egiten du emakumeen gutxiagotasuna, gizonak pribilegiatzeko eta nesken kastitatea ezkondu arte gordetzeko asmo esplizituaren ondorioz. Birjintasunaren eta sexu-harremanen abinentziaren bertutea txalogarria bada ere (GIB/HIESaren aurkako borrokan bereziki), diskriminatzailea da kastitatearen aurreikuspena eta erantzukizuna emakume eta nesken zama bihurtzen denean, gizarteak gizon eta mutilen zitalkeria eta arrisku handiko sexu-portaerak onartzen eta sustatzen dituen bitartean.
- Afrikako komunitateetako zenbait kulturetan, emakumeen eta nesken jarauntsirik ezak emakumeen mendekotasuna areagotzen du. Jaraunspenaren inguruko kultura- eta erlijio-sistemak desberdinak dira etniaren eta erlijio-jardunbidearen arabera. Adibidez, Kenyako mendebaldeko Luo eta Luhya etnien jaraunspen-sisteman, gizonak ez dute inolako erantzukizunik emazte eta seme-alabekin. Senarra testamenturik egin gabe hiltzen bada, emazteak normalean ez du ezer jasotzen. Semerik ez badu, are okerragoa da tratua.
- Jabetza sexu berekoen artean baino transmititu ezin denez gero, emakumeek aitarengandik ere ez dute ezer jasotzen. Kenyako komunitate somaliar musulmanetan erlijio- eta kultura-sistemek aiten jaraunspenaren ehuneko bat alabentzat gordetzen badute ere, semeek jasotzen dutena baino askoz txikiagoa da.

- Ezkontza goiztiarrak ere areagotu egiten du emakumeek/neskek pobreziatik eta diskriminaziotik irteteko duten ezintasuna. Kenyako garapen-prozesuan parte hartzeko eta prozesu hori baliatzeko aukera kentzen die. Edonola ere, jardunbide horien aurkako legeria autonomiko aurrerakoi batzuek emakume eta nesken egoera hobetzeko aukera eskaintzen dute. Seguruenik, hori izango da Kenyako iparraldean –musulmana nagusiki– ezkontza goiztiarrak ohikoagoak izatearen arrazoia.

### ■ Genero-rolen sozializazioa

- Afrikako –eta, bereziki, Kenyako iparraldeko– gizarte patriarkal gehienetan bezala, mutilei menderatzaileak eta oldarkorrek (maskulinoak) izaten erakusten zaie. Neskek, berriz, adeitsuak, atseginak eta etxeko lanetan adituak (femeninoak) izan behar dute. Rol horiek nabarmendu egiten dira maila guztietako azalpen eta irakaskuntzetan eta sozializazio-prozesuan, komunikabideak barnean hartuta.
- Gainera, emakumeek etxean egiten duten lana gutxiesteko oso onartuta dagoen tresna tradizionala da genero-rolen sozializazioa. Etxea erreproduktio sozialerako lekua da funtsean, etorkizunean laneskuari eusteko. Produktibitatearen eta merkataritzaren sektorerako funtsezkoa den laneskuari eusteko duen garrantzia gorabehera, ematen zaion balio hierarkikoa gizonen ekonomia produktiboan egiten duten lanari ematen zaiona baino askoz txikiagoa da.
- Emakumeek etxean egiten duten lanaren errekonozimendurik ezak areagotu egiten du emakumeen ikusezintasuna. Halaber, genero-indarkeriako egoerak bultzatzen eta areagotzen ditu.
- Kenyako gizartean, emakume “zapalduak” orain arte ikusezinak izan diren zereginetarako balio berriak bilatzen dituztela eta emakumeek eta neskek gizaki gisa duten balioaren erabateko aldaketa bultzatzen dutela erakusten duten egoera asko eta asko daude. Munduko krisi ekonomikoen eta Estatu-ko emaitza ekonomiko txarren ondorioz emakumeen eta gizonen genero-rolak pixkanaka aldatu badira ere, emakumeek euskarri nagusi gisa betetzen duten zeregina onartzeko erresistentzia oso gogorra da oraindik ere. Emakumeek familiako eta komunitateko eragile ekonomiko nagusi gisa hartu dituzten rol berriak gizonak hornitzaile gisa duen rol tradizionalaren eraispentsatzen eta gizonen familiako buru eta botere politiko eta ekonomikoaren titular gisa duten autoritatearen kontrako zuzeneko erasotzat hartzen dira. Horrek areagotu egiten ditu, ezinbestez, genero-indarkeriako kasuak.

- Aipatu izan da, halaber, finantza-segurtasunik eza kontuan hartu beharreko faktorea dela. Gizona liderra eta hornitzailea izan da, eta arlo horietan bere autoritatea ezartzea lortzen ez duenean, tratu txar fisikoetara jotzen du azkenean.
- Tamalez, alkoholak eta drogek ere gizon asko bultzatzen dituzte emakumeen kontrako tratu txarrak erabiltzera.

### ■ Ezkontzaren instituzioa

Afrikan, ezkontzaren instituzioa oso garrantzitsua da oraindik, eta funtsezkoa da etxean produkzioa eta ugalketa antolatzeko. Lanaren sexu-banaketa sustatzen eta indartzen du, eta zehatz-mehatz mugatzen ditu autoritatea, erantzukizuna, ikusezintasuna eta nagusitasuna.

- Kenyan, ezkontza patrilineala da. Adibidez, Kenyako mendebaldeko Luhya komunitateek uste dute emakume bat gizon batekin ezkontzen denean familia osoarekin ezkontzen dela. Ezkontza-betebeharrak salbuetsita, ezkontidearen familiako kideak (gurasoak, anai-arrebak, aitona-amonak eta birraitona-amonak barne) ezkontidea bera bezala tratatzea espero da emaztearengandik. Senarrak, bestalde, familia eta emaztearen senideak hornitzen eta babesten dituen gizonaren genero-ideologia hartzen du.
- Oro har, gizonak eragile nagusi eta protagonista gisa duen nagusitasuna sendotzen du ezkontzak Kenyan. Gorteiatzea eta ezkontza-proposamena gizonak egin ohi du. Emakumeak ez dira menderatzaileak, eta kastuak izatera animatzen dituzte, etorkizuneko emazte eta ama onen itxura –kulturalki onartua– agertzeko. Beraz, jaiotzatik errotuta dagoen mendekotasun-ideologia finkatu egiten da haurtzaroan eta nerabezaroan, helduarora eta ezkontzara iritsi arte.
- Gizon gehienentzat, ezkonsaria ordaintzea jabetza bat (emakumea) eskuratzea da. Emazteek osotasun fisikorako eta segurtasunerako dituzten eskubideak urratzen dituzten senar-pribilegio jakin batzuk finkatzeko oinarria eskaintzen die gizonari. Askotan, emakumeak gizartean duen lekua asko aldatzen da ezkontzen denean. Ondasun bihurtzen da eta ez du inolako eskubiderik ezkontidearen familiaren gainean. Emaztegaiagatik ordaintzearen adierazpen sinbolikoa (familien arteko lotura gisa) emakumeen eskubideen transferentzia soil gisa hautematen da. Izan ere, emakumearen jatorrizko familiarik senarraren familia igoaritzen dira eskubide horiek. Truke-prozesu horren bidez zehazten da emakume baten gorputza balizko ugalketa-leku gisa merkaturatzearen fenomenoak.

Kulturak Afrikako komunitateetan emakumeen menderatze patriarkalerako eta emakume horien aurkako indarkeriarako tresna gisa betetzen duen zeregina testuinguruan kokatzea: Kenyako iparraldeko esperientzia

Sophia Abdi Noor

- Bestalde, gurasoek kultura-ekontzetan egiten dituzten adierazpenek eta ematen dituzten aholkuek zapuztu egiten dute emakumeek erabakiak baldintza berdinetan har ditzaketan ezkontide izateko aukera oro. Adibidez, emaztearen gurasoek ezkontza-erritu tradizioaletan egiten dituzten adierazpenek kostatuta ahala ezkontzara jarraitzea animatzen dute alaba, eta gurasoen etxean aterpea bilatzeko asmoa burutik kentzen diote albari, baita alabaren bizitza arriskuan jartzen duten egoeretan ere. Horren bidez, emaztea ezkontzaren arrakastaren edo porrotaren erantzule egiteaz gain, ezkontza-ituna betetzeko erantzukizunaz salbuesten da gizona aurrez.

Gizonak iraingarritzat hartzen dituen portaeren aurrean jarrera intolerantea agertzera bultzatzen dute faktore horiek. Intolerantzia horrek, halaber, emakumearen indarkeriazko jarrera eragin dezake (jipoiak, tratu txar psikologikoak eta euskarri ekonomikoaren ukapena). Dibortzioari, jaraunspenari eta haurren jagoletzari buruzko legezko xedapen kontraesankorrak direla-eta, emakume gehienak harrapatuta daude eta ezin dute ihes egin mehatxu-egoera horietatik. Emakumeak beren giza eskubideak baliatzen saiatu diren kasu gehienetan, genero-indarkeria jasan dute.

## 7. Genero-indarkeria eta patriarkatua: loturak

Gizona familiako burua eta familian, komunitatean eta esparru publikoan erabakiak hartzeko autoritate nagusia den ideiarene interpretazio okerrak eta orokortzeak genero-indarkeria eragiten du. Hori guztia gizonak portaera hori hitzez adieraztearen eta erradikalizatzearen bidez gertatzen eta areagotzen da. Izan ere, gizonak emakumeen eta nesken gizatasunaren esentzia kontrolatzen, baztertzen eta ezabatzen dute.

- Zenbaitetan, gizonak eta emakumeek ezkontza-instituzioaren barruan hartzen dituzten jokabide eta ezaugarrien kultura- eta erlijio-interpretazioa desitxuratu egiten da bikote-harremanetan gizonak emakumeen gainean ezartzen duten kontrola legitimatzen saiatzeko. Horren bidez, emakumeen eskubideak urratu egiten dira, eta senarrak ahalegin guztiak egiten ditu usuzko "emazte noragabea" azpiratzearen eta menderatzearen bidez geldiarazteko.
- Emakumeak kontrolatzeko beharra esplotazio patriarkalean oinarritutako kultura-sistemen azpian nagusi den printzipioan txertatuta dago. Hala ere, emakumeek gizonaren autoritateari men egiten diotela ziurtatzeko jarrerak ez

# 5

Kulturak Afrikako komunitateetan emakumeen menderatze patriarkalerako eta emakume horien aurkako indarkeriarako tresna gisa betetzen duen zeregina testuinguruan kokatzea: Kenyako iparraldeko esperientzia

Sophia Abdi Noor

dira etxeko patriarkaren nagusitasunera mugatzen; aitzitik, beste gizarte-harremant batzuetara zabaltzen dira. Oro har, beren familiarekiko, senideekiko eta haiekin inolako odol-loturarik edo ahaidetasunik ez duten beste gizon batzuekiko begirunea agertu behar dute emakume eta neskek.

- Emakumeen mendekotasunaren gizarte-aurreikuspena oro har onartuta dagoen fenomeno da, eta beharrezkoa du gizonek eta emakume gehienek kulturari eta tradizioari eustea. Kenyako ia komunitate guztietan, "emakumeen otzantasuna ezkontzaren parte gisa onartuta dago. Askok uste dute emazte batek etxean edozer gauza jasateko prest egon behar duela. Senarra sexualki asebate behar du eta obeditu egin behar dio, eta senarrak emaztea bortxatzeko eta jotzeko eskubidea du ezkontza-betebeharrak betetzen ez baditu".
- Emazteen finantza-mendekotasunak ere mugatu egiten du emakumeentzat mehatxua dakarten ezkontza-harremanetatik ihes egiteko aukera, norbera mantendu ezin izateko beldurra sortzen baita. Gizonak mendekotasun hori baliatzen dute, eta dibortzioarekin edo abandonatuta uztearekin mehatxatzen dituzte emazteak, erabat leialak izatera behartzeko.
- Kenyako emakumeen pobrezia analfabetismo-maila handiarekin ere lotuta dago. Izan ere, emakumeen eta nesken gizarte-maila baxuaren beste isla bat da analfabetismoa.
- Aipatu izan da, halaber, emakumeek heziketa-maila handiagoa eskuratzen dutenean sortzen dela bikote-harremanetan patriarkatuaren kontrako desafioa. Hezkuntzak emakumeei pobrezia uzteko aukera ematen badie ere, Kenyako emakumeek ezin izan dute jipoietatik eta bestelako indarkeria fisiko eta sexualetatik ihes egin. Kenyako prentsa-txostenetan adierazienez, hezkuntza formala eta ongi ordaindutako enpleguak ez dira eraginkorrak genero-indarkeria oztopatzeko. Emakumeen errespetuzko tratua jasotzen ohituta dauden gizonek indar basatiaren bidez betearazten dute beren autoritatea, gizonaren edo emakumearen kultura-maila edozein izanik ere. Heziketa jaso duten emakumeek benetako arriskua dute beren ezkontza-harremanetan genero-indarkeria areagotzeko, hezkuntza formalaren prozesuan ahalduntze eta autoestimu handiagoa eskuratzen baitute.
- Kenyako ezkontza-harremanen barruan genero-indarkeriak gora egin duela kontuan hartuta, emakumeak beren identitatea ezkontzaren mugetatik kanpo zehazten hasi direla ondoriozta daiteke. Erljio- eta kultura-sozializazioak direla-eta ezkontza oraindik ere Kenyako emakume gehienek nahi duten instituzio bat bada ere, azken urteotan beren identitatearen eta aurreikuspenen ideia garbiarekin ezkontzen ari dira emakumeak. Gero eta neurri txikiagoan

Kulturak Afrikako komunitateetan emakumeen menderatze patriarkalerako eta emakume horien aurkako indarkeriarako tresna gisa betetzen duen zeregina testuinguruan kokatzea: Kenyako iparraldeko esperientzia

Sophia Abdi Noor

ikusten dute genero-indarkeria gauza normal bat balitz bezala. Erresistentzia mota hori genero-indarkeriaren aitzindaria izan daiteke etxe gehienetan.

- Gizonek genero-rolen aldaketa onartzeko agertzen duten erresistentziak, berriz, emakumeen aurkako genero-indarkeriaren areagotzea dakar sarritan, azpiratzeko tresna gisa.

## 8. Kenyako emakumeek hauteskunde-politikan tokia galtzen jarraitzen dute: datuak eta zifrak

Hautatzen dituztenean ere, emakumeek okarren balioetsitako sailak edo antzeko postuak izaten dituzte. "Industria bigun" esaten zaie, eta honako hauek dira: osasuna, kanpo-arazoak, turismoa, ingurumena eta abar. Ez da ohikoa emakumeek "maskulinitate" nozioarekin lotuta egon izan diren eremu garrantzitsuagoetan (finantzak, konderriko gobernadorea, gehiengoaren liderra edo Batzar Nazionalako presidentea) erabakiak hartzeko autoritatea izatea. Normalean, erakundeak zenbat eta botere handiagoa izan, orduan eta zailagoa izaten da emakumeen interesak ordezkatuta egotea. Gainera, herrialderik autokratikoenetan, emakumeek aukera gutxiago dituzte beren interesak ordezkatuta egoteko. Emakume askok ahaidetasun-loturen ondorioz betetzen dute kargu politiko bat, hau da, familian politikan inplikaturako gizonak dituztelako. Emakume horiek erosteko ahalmen handiagoa izan ohi dute, goi-klaseko familiakoak izaten dira eta, beraz, baliteke diru-sarrera txikiagoak dituzten familien arazoekin hain kontzientziatuta ez egotea.





# 5

Kulturak Afrikako komunitateetan emakumeen menderatze patriarkalerako eta emakume horien aurkako indarkeriarako tresna gisa betetzen duen zeregina testuinguruan kokatzea: Kenyako iparraldeko esperientzia

Sophia Abdi Noor

Gainera, emakumeek hainbat erronkari egin behar diete aurre, beren bizitza pribatuek beste gauza batzuk baitituzte ardatz (karrera politikoaz gain). Azpimarratu beharra dago, bestalde, Kenyako iparraldeko komunitate gehienetan emakumeen bizitza erromantikoa emakume horiek hainbat gairi buruz duten iritzia baino askoz garrantzitsuagoa dela herritarrentzat. "Ezkontza heterosexual monogamo batetik kanpo sexualki aktiboak diruditen emakumeek zailtasun handiagoak dituzte", beren bizitza erromantikoetan beren erantzukizun publikoetan baino interes handiagoa agertzen duten "suge maltzurtzat hartu ohi baitituzte". Ezkonduta badaude eta seme-alabak badituzte, beren lan-bizitza eta seme-alaben zaintza nola uztartzen dituzten galdetzen diete (gizonezko politikari bati inoiz ez liokete horrelakorik galdetuko).

Genero-indarkeria kezka-arlo esanguratsua da oraindik ere Kenyan. Historikoki, emakumeak eta haurrak izan dira sexu-indarkeria eta genero-indarkeria irautzen duten ideia eta jardunbideen ondorioak gehien jasan dituztenak. Egoera horiek eragin negatiboa dute emakume eta neskeengan, eta haiek herrialdeko aurrerabidean laguntzeko duten ahalmena mugatzen dute. 15-49 urteko emakumeen ehuneko 45 inguruk jasan du indarkeria fisikoa edo sexu-indarkeria. Bizirik atera diren askok mugatuta dute zerbitzu egokiak baliatzeko aukera. Arrazoi horrengatik eta beste askorengatik, erregistratuta dauden genero-indarkeriako kasuak (gizonen zein emakumeen aurkakoak) benetan gertatu direnak baino gutxiago dira. 2007ko hauteskunde orokorren aurretik, hauteskunde aldian eta hauteskundeen ondoren, genero-indarkeriak gora egin zuela egiaztatu zen.

Gaur egun, gobernuaren funtzionamendua eta herriarekiko harremana funtsean aldatzen duen egitura berri batean murgilduta dago Kenya. Deszentralizazio ize-neko ikuspegi horri jarraiki, 47 gobernu berri osatu dira konderrietan, gobernu nazionala berriz definitu da, eta gobernu nazionalak eta konderrietako gobernuak Kenyaren mesederako elkarrekin lan egitea lortu da. Deszentralizazioari esker, genero-indarkeriatik bizirik atera diren emakumeei laguntzeko beharrezkoak diren zerbitzuetako asko eskuragarri egongo dira konderri-mailan.

Nesken eta emakumeen rolen inguruko ideia tradizionalak mugatu egiten dute Kenyari egin diezaioketen ekarpena. Ideia horiek garapen-helburu garrantzitsuetan laguntzea eragozten diete emakumeei, hazkunde ekonomikoaren, nutrizioaren eta elikagaien segurtasunaren arloetan bereziki.

Kenyako emakumeak ez daude behar bezala ordezkaturik erabakiak hartzeko postuetan. Zailtasun handiagoak dituzte hezkuntza, lurra eta enplegua lortzeko. Landa-eremuetan bizi diren emakumeek ordu asko eta asko ematen dituzte ura eta egurra biltzen. Hori dela-eta, ezin dira eskolara joan eta denbora gutxi

geratzen zaie dirua lortzeko edota beste produkzio-jarduera batzuetan parte hartzeko.

Emakumeen eta nesken ustiatu gabeko ahalmena gero eta neurri handiagoan hartzen ari da kontuan Kenyan. 2010. urtean onartutako herrialdeko Konstituzio berriak ahalmen handiko esparrua ezartzen du genero-berdintasuna lantzeko. Horrek beste egoera bat sortu du Kenyako emakumeen eskubideen arloan, eta emakumeen bazterkeria tradizionala konpontzea eta emakumeek hazkundearen eta garapenaren alderdi guztietan bete-betean parte hartzeko aukera sustatzea du xede.

Kenyan, genero-indarkeriaren etorkizuna Konstituzioaren inplementazio zuzenari lotuta dago. Lege-esparru berriaren bidez, emakumeek beren eskubide politiko, zibil, ekonomiko eta sozialak baliatzeko dituzten oztopoak apurtu nahi dira. Era berean, emakumeek gobernu-maila guztietan erabakiak hartzeko aukera bermatzen du.

Konstituzioaren arabera, erakunde publikoetan jarduteko hautatutako edo izendatutako pertsonen bi heren izango dira sexu batekoak gehienez. 2013ko hauteskundeetan agindu hori betetzeko ahaleginetan, emakumeek bete beharreko hainbat gobernu-postu sortu dira. Kenyan Konstituzioak jasotzen duen genero-berdintasunaren promesa betetzeko lanean aurrera egin ahala, behar adina emakume postu gehigarriak sortu behar izan gabe aukeratzea espero du herrialdeak.

2013. urtean, presidenteak bete egin zuen genero-betekizun hori; Kabineteko 18 kideen artean, sei emakume izendatu zituen. Parlamentuak ez zuen arau hori bete, baina, hala ere, laurogeita zazpi emakume hautatu ziren Parlamentua osatzeko.

### ■ Genero-indarkeriaren % 90 emakumeen aurkakoa da

Kenyako emakumeek beren ahalmena gauzatzeko askatasuna dutenean, Kenyako familia eta komunitate guztiak indartsuagoak izango dira. Gizarte zibila eta garapenaren beste eragile batzuk emakumeak ahalduzko lanean ari dira, Konstituzioak bermatzen dizkien eskubideak balia ditzaten. Ildo horretan, kenyar guztien eskubideak errespetatu eta betetzera bideratutako honako programa hauek garatu dira:

- Emakumeak eta neskak indarkeriarik gabe bizitzeko gizarte seguruak sortzea;
- Genero-indarkeriaren biktimenezko arreta- eta tratamendu-zerbitzuak ematea;
- Emakumeei hazkunde ekonomikoaren onurak neurri handiagoan baliatzeko aukera emango dieten baliabideak eta aukerak eskaintzea;

# 5

Kulturak Afrikako komunitateetan emakumeen menderatze patriarkalerako eta emakume horien aurkako indarkeriarako tresna gisa betetzen duen zeregina testuinguruan kokatzea: Kenyako iparraldeko esperientzia

Sophia Abdi Noor

- Emakumeek erabakietan eta politiketan duten parte-hartzea areagotzea, maila guztietan;
- Emakumeei bakea finkatzeko eta gatazkei aurrea hartzeko eta murrizteko mahaian leku bat bermatzea; eta
- Hezkuntzan eta ikaskuntzan genero-desberdintasunak murriztea.

## ■ Kenyako bost emakumetik batek jasaten du sexu-indarkeria

- Datu hori Genero Indarkeriaren Errekuperazio Zentroaren (GVRC) estatistike-tatik atera da. Kenyako bost emakumetik batek (% 21ek) jasan du sexu-indarkeria;
- Kenyan, 15-49 urteko emakumeen % 45ek indarkeria fisikoa edo sexu-indarkeria jasan du. Emakumeak eta neskak salatutako genero-indarkeriako kasuen biktimen % 90 dira;
- Erasotzaile arrotzak genero-indarkeriako kasuen % 6 baino ez dira Kenyan. Bizirik atera ziren % 64k adierazi zuenez, erasotzaileak ezagunak ziren;
- Emakumeen aurkako indarkeria bikotekideak erabiltzen du gehienetan. Salatatutako erasotzaileen % 90 gizona da. Diotenez, gizonak eta mutilek jasandako indarkeria-kasuak gutxi samar dira, baina kasu gehienak salatzen ez direlako gerta daiteke hori (barregarri geratzeko eta estigmatizatze beldurrez nagusiki).

## ■ Genero-indarkeriaren aurkako borroka

- Genero-indarkeriari hainbat erakundek egin diote aurre Kenyan (USAIDek, adibidez), eta genero-indarkeriako programak sortu dituzte indarkeria mota horri aurrea hartzeko. Justizia eta babes-zerbitzu integratuak eskuragarriago izateko lan egiten dute, baita herritarrak, oro har, genero-indarkeriaren inguruan sentsibilizatzeko ere.
- Kenyako gobernuak, gainera, arreta berezia eskaini dio genero-indarkeriari. Sexu-delituei buruzko 2006ko Legea urrats handia izan zen Kenyako emakumeen aurkako sexu-indarkeriari aurre egiteko.
- Parlamentuko Legeak sexu-delituak, haien definizioa, prebentzioa eta legez kanpoko sexu-ekintzen aurrean pertsonak behar duten babesa aipatzen ditu.
- Genero-indarkeria –eta emakumeen aurkakoa bereziki– arazo garrantzitsua da oraindik ere Kenyan, eta bide luzea geratzen da gaitz hori desagerrarazteko.

## ■ Aldaketak egon badaude, baina emakumeek ez dute kargurik betetzen

- Emakumeek ez zuten behar adinako ordezkartzarik lortu azken hauteskundeetan, baina, hala ere, Kenyako hautesleen ehuneko 48 inguru ordezkatu zuten. Seguruenik, emakumeek "afirmazio-ekintzarik" gabe kargu gehiago betetzeko eta gizonen parean egoteko baliagarria izango da hori.
- Lehen, emakume gehienak urrundu egiten ziren politika aktibotik, baina gauzak aldatu egin dira. Horren erakusgarri, duela gutxi Konstituzio berriarekin egin diren lehen hauteskunde orokorretan emakume asko lehiatu ziren karguak lortzeko. Tamalez, gizonak nagusi diren eremu politikoan aurkeztu ziren emakume guztietatik, gutxi batzuk baino ez zituzten hautatu karguak betetzeko. Zehazki, 290 diputatutik, 16 emakume baino ez ziren hautatu.
- Karguak betetzeko interesa agertu zuten emakume gehien izan zituzten konderriak mendebaldekoa eta Nyanza izenekoak izan ziren, baina bi konderri horietan emaitzak oso txarrak izan ziren. Bi emakume baino ez zituzten hautatu Batzar Nazionalean parte hartzeko: berriz hautatu zuten eta Mbitako aulkia lortu zuen Millie Odhiambo diputatua, eta Batzarrean lehen aldiz sartu zen Mary Emaase, Teso hegoaldekoa.

## ■ Konderriek ez dute gainditu Emakumeen Ordezkaritzaren Testa

- 47 konderrietatik, bakar batek ere ez zituen 10 emakume hautatu konderriko batzarrerako, eta hori beharrezkoa zen bi herenen araua betetzeko. Gainera, 18 konderrik ez zuten emakume bakar bat ere hautatu.
- Konderri batek emakumerik hautatzen ez badu, nahitaezkoa da 15 emakume izendatzea eta, beraz, konderriko batzarreko kideen kopurua 45era igotzen da. Diru-sarrerak Esleitzeko Batzordeari (CRA) jarraiki, horrek esan nahi du zergadunek 3.000 milioi Sh baino gehiagoko ekarpena egin beharko dutela konderriko batzarretarako izendatutako emakumeei ordaintzeko eta, era horretan, araua betetzeko. CRAk martxoaren 4ko hauteskundeetan aurretik eman ziren kenyarrei kostu horren berri (ikus *Kenia Forum article, Women in politics in Kenya: Hurdles and 'Gender Parity'* artikulua, 2012ko urriaren 26koa).
- Emakumerik hautatu ez zuten konderriek garapenerako aurrekontua murriztu beharko dute izendatutako emakumeen soldatak ordaintzeko. "Konderri guztiei antzeko diru kopurua emango zaie. Ez dugu honako hau esan nahi: emakumerik hautatu ez duzuenek gero, diru kopuru gehigarria emango di-

zuegu. Emakumerik hautatu ez izanagatik ezarritako penalizazioa da”, adierazi zuen CRAko presidente Micah Cheserem-ek.

- Nakuruko konderriak emaitza ikaragarria izan zuen, zortzi emakume hautatu baitziren bertan. Horren atzetik, Kisumun sei hautatu ziren, eta Nairobi, Kitui eta Bungoman, berriz, bosna emakume.
- Konstituzioaren 177. artikulua dioenez, konderriko batzarraren herenak emakumez osatuta egon beharko du. “Konderriko ezein batzar ez da lanean hasiko legea betetzen den arte. Konderriko batzarrak ezin du ezein agendarik landu sexu bakoitzeko ordezkariari dagokienez beharrezkoa den kopurua betetzen ez badu”.
- Jakina, ez zen emakumerik hautatu maila handiko karguak betetzeko (gobernadore-karguak eta senatari-karguak, adibidez).
- Gizonezko aurkarietara lehia galdu zuten emakume gehienek adierazi zuten, kultura-estereotipoak eta genero-aurreiritziak izan ziren oztoporik handienak. Nambaleko parlamenturako aurkeztu zen eta UDFko John Bunyasi- ren aurkako lehian galdu zuen Pascalia Makonjio andreak 2013ko martxoaren 24an Sunday Nation egunkarian egindako adierazpenei jarraiki, behin eta berriz eskatu zioten “emakumeen ordezkarien aulkirako aurkezteko eta Bunge gizonentzat uzteko”.

### ■ Aurrerapena, baina...

- Emakumeek Kenyako politikan duten ordezkariaren inguruko berri guztiak ez dira txarrak izan. 11. parlamentuak herrialdeko historian izan den emakume kopururik handiena du gaur egun. Aurreikusitakoaren arabera, behe-ganberako 349 kideetatik 68 emakumeak izango dira. Hala ere, 117 behar dira heren baten genero-araua betetzeko.
- Kenya Afrikako Ekialdeko Komunitateko bazkideen arteko azkena da oraindik emakumeen parte-hartze politikoari dagokionez: Ugandak 135 emakume ditu Parlamentuan (386 kideetatik), eta Tanzaniak, berriz, 126 (350 kideetatik).
- Lidergo-postuetan eta hauteskunde-karguetan dauden emakumeek erakutsi dute funtsezkoak direla beste herrialde batzuetako demokrazia, garapen eta bakerako. Horregatik, Kenyako Foroak adierazi duenez, horrelako gehiago behar ditugu.

## ■ Jazarpen-kasuek gora egin dute Kenyan

Herrialdean bortxaketa-kasuen kopuruan izan den gorakada kezkarria da, baina are izugarriagoa da Parlamentuko kide ohoragarriek emakumeen aurka egingo dako sexu-jazarpenaren bolada berria.

- Azken kasuan, Imenti Erdialdeko diputatu Gideon Mwiti dago inplikaturatuta. Larunbat gauean bere Westlands-eko bulegoan emakume ezkondu bat bortxatu izana leporatzen diote. Biktima tratamendua jasotzen ari da Nairobiko emakumeen ospitalean, eta, adierazi duenez, diputatuaren harreman publikoak kudeatzeko kontratu bat sinatzeraz joan zen diputatuaren bulegora. Ustez, Mwitik GIBaren proba egitera behartu zuen emakumea. Proba inguruan zegoen mediku batek egin zuen. Ondoren, diputatuak eraso eta bortxatu egin zuen. Mwitik ezetzatu egin ditu akusazioak, eta bere errugabetasuna frogatzeko azterketa mediko bat egiteko prest dagoela adierazi du. Krimena Parklands-eko polizia-etxean salatu zen, eta polizia kasua aztertzen ari da.
- Ildo berean, parlamentuko batzorde bateko kide bat inplikatzeko duen antzeko kasu bat gertatu zen. Taita Taveta-ko emakumeen ordezkari Joyce Layk adierazi zuenez, Turboko diputatu Elisha Busienei bortitz eta erasokor jarri zen berarekin, Busieneiren sexu-proposamenei uko egin ondoren. Biak Defentsa eta Kanpo Arazoetako Batzordeko kideak dira, eta joan den astean Japoniara egindako estatu-bisitaldi batean Uhuru presidentearekin zihoan segizioan parte hartzen ari ziren. Joycek Batzordeko whatsapp-taldean zabaldu zituen bere kexak. Adierazi zuenez, Busieneik bidea itxi zion Joyce bere gelara zihoanean, eta bere gelara joatea aukera hobea zela iradokitzen hasi zen. Joyceren ezezkua jaso ondoren, "ezdeus" deitu zion.
- Hilabete honen hasieran, Jujako diputatu Francis Waititu-ren idazkari-lanetan ziharduen emakume batek salatu egin zuen diputatua, haren sexu-proposamenei uko egin ondoren. Susan Wambui-k bere kontra tiro egin izana leporatu zion diputatuari testu-mezu batean, eta diputatuak ustez bidali zion mezua erakutsi zuen. Horrelako kasuetan gertatzen den bezala: UKATU ETA UKATU! Waitituk akusazioak ezetsi, eta bere enplegatua zela frogatzen zuten dokumentu sinatuak aurkezteko desafioa egin zion Wambui.
- Joan den urtean, Bumula barrutiko Henry Nyongesa (MCA) salatu egin zuten eskola-adineko neska bat haurdun utzi eta abortatzen laguntzeagatik. Giza eskubideen aldeko taldeek egindako presioaren ondorioz, Fiskaltzako zuzendari Keriako Tobiko-k Nyongesa berehala atxilotzeko agindu zuen. Ustez, Nyongesak portaera frustragarria izan zuen, eta legeak bere bidea egitea eragotzi zuen. Horretarako, polizia erosi zuen eta, dirudienez, neskaren fami-

liari diru kopuru handia eman zion gertatutakoa ukatu eta kasua bertan behe-  
ra utz zezan. Lotsagarria, ankerra eta immorala da gizon batek emakume bat  
bortxa dezakeela sentitzea eta emakume bat bortxatzea, ahal duelako, bes-  
terik gabe. Oso aztoragarria da pentsatzea deskribatu ditugun kasu horiek  
gizartean autoritatea duten emakume helduei gertatu zaiela. Izan ere, hori  
ikusita, pribilegio gutxiago dituzten eta erasotzaileei aurre egiteko ausardia,  
baliabide eta indarrak ez duten neskekin eta emakumeekin zer gertatuko den  
galdetu beharra dago.

- Kenyan, bortxaketen edo sexu-jazarpenaren biktimek ia inoiz ez dute justi-  
ziarik lortzen, egileak zigortzeko frogarik ezagatik eta biktimak frustratuago  
uzten dituzten kalitate txarreko ikerketengatik nagusiki. Bada garaia legegile  
penagarri horiek beren krimenengatik zigortzeko, haien kideentzat erakusbi-  
de izan dadin.

## 9. Ondorioa

- Genero-indarkeria Afrikako (eta, batez ere, Kenyako iparraldeko) emaku-  
meen kontrolari eta mendekotasunari lotutako ideologia patriarkal tinkoetan  
errotuta dago.
- Patriarkatuaren boterea eremu pribatuan zein publikoan aldarrikatzen da,  
statu quoa indartu eta eusteko, Kenyan nagusi den esparru ekonomiko eta  
soziala edozein izanik ere. Horren guztiaren ondorioz, emakumearen estatu-  
sa oso baxua da Kenyan, eta hainbat alderditan nabari da hori: emakumeen  
marjinazioa erabakietan eta gobernantzan (maila guztietan), produkzio-balia-  
bideak eskuratzeko aukera mugatua emakumeentzat, botere politikoaren es-  
leipen desberdina, analfabetismo-ehuneko handiagoa emakume eta nesken  
kasuan, emakumeen nagusitasuna arautu gabeko eta sindikaturik gabeko  
sektore formalean, eta emakume eta nesken osasun- eta hezkuntza-adierazle  
etsigarriak.
- Kenyako gizartean, emakumeen balioa ezabatzen duten eta emakumeei gi-  
zarte-arauak eta gizarte-jardunbideak gainditzeko ahalmena mugatzen die-  
ten menderatzearen eta patriarkatu onberaren ezaugarriek gaur egun arte  
iraun dute. Joera patriarkalen normalizazioak ere murriztu egiten ditu emaku-  
meek azpiratzeari gogor egiteko duten ezkutuko ahalmena berraktibatze-  
ko aukerak. Emakumeek ahitzen dituzten botere horietaz babesteko duten ezin-  
tasuna gizarte kolonial gehienek nagusi kolonialen botere ikaragarriari gogor  
egiteko duten ezintasunaren antzekoa da. Joera nagusiekiko independen-

# 5

Kulturak Afrikako komunitateetan emakumeen menderatze patriarkalerako eta emakume horien aurkako indarkeriarako tresna gisa betetzen duen zeregina testuinguruan kokatzea: Kenyako iparraldeko esperientzia

Sophia Abdi Noor

tzia- eta erresistentzia-maila bat agertzeko ausardia duten emakumeak gizarteko "pariatzat" hartzen dira.

- Kenyan genero-indarkeriako kasuen kopuruan izandako gorakadak patriarkatuaren kontrako desafio baten ondorioa izan daiteke. Emakumeek maila guztietan nagusi den kontrolaren aurrean agertutako erresistentzia gero eta nabariagoa da emakumeen aurkako ekintzetan, eta patriarkatuaren kontrako desafioaren adierazgarria izan daiteke hori. Hori mesedegarria izan daiteke genero-berdintasunaren aldeko kanpainarako, ez, ordea, emakumeen eta haien senideen ongizate fisiko eta psikologikorako. Halaber, eskubideak berresteko aukera-kostua da.
- Botereak patriarkatua iraunaraztera bultzatzen du Kenyan, eta emakumeak eta neskak menderatzen jarraitzeko beharrezkoa den otzantasun-maila sortzeko tresna gisa erabiltzen da genero-indarkeria. Menderatzearen eta kontrolaren oinarriko elementuak funtsezkoak dira patriarkatuak indarrean jarraitzeko. Erraz konformatzen ez diren emakumeentzako ondorioa segurtasun fisikoaren eta duintasunaren urraketa izan ohi da, oro har. Horrek esan nahi du emakumeak eta neskak genero-indarkeria jasateko arriskuan daudela beren nortasuna eta aukeraketak baliatzen saiatzen direnean.
- Genero-indarkeriak emakume eta nesken osasunean eta ongizatean duen eragin negatiboa ongi dokumentatuta dago. Ahalegin handiak egin behar dira genero-indarkeria murrizteko eta, era horretan, emakumeek Nigeriako garapen sozioekonomikorako duten ahalmena baliatzeko. Genero-indarkeria murrizteko, sistema juridiko eta judizialak hobetu behar dira, biktimentzako babes egokia eta egileentzako zigorra berma dadin. Eskola eta unibertsitateetan, emakumeak zein gizonak genero-indarkeriaren, giza eskubideen eta giza segurtasunaren inguruan hezi beharko lirateke. Gainera, emakumeek prestakuntza-kanal formal eta informalen bitartez enplegu eta soldata onak lortzeko aukera hobetzea ere garrantzitsua da Nigeriako emakumeak ahalduentzeko.
- Horrela, beraz, garrantzitsua da garapenerako laguntzaren esparruan eragileak genero-harremanen transferentziari ekiten hastea eta, horretarako, psikearen berrantolamendu integralerako eredu batera jotzea, Kenyako emakumeentzat zein gizonentzat. Kenyako emakumeek beren ahalmena gauzatzeko askatasuna dutenean, Kenyako familia eta komunitate guztiak indartsuagoak izango dira. Gizarte zibilak eta garapenaren beste eragile batzuek emakumeak ahalduentzeko lan egin behar dute, Konstituzioak bermatzen dizkien eskubideak balia ditzaten. Ildo horretan, kenyar guztien eskubideak errespetatu eta betetzera bideratutako honako programa hauek garatu dira:



# 5

Kulturak Afrikako komunitateetan emakumeen menderatze patriarkalerako eta emakume horien aurkako indarkeriarako tresna gisa betetzen duen zeregina testuinguruan kokatzea: Kenyako iparraldeko esperientzia

Sophia Abdi Noor

- Emakumeak eta neskak indarkeriarik gabe bizitzeko gizarte seguruak sortzea;
- Genero-indarkeriaren biktimentzako arreta- eta tratamendu-zerbitzuak ematea;
- Emakumeei hazkunde ekonomikoaren onurak neurri handiagoan baliatze-ko aukera emango dieten baliabideak eta aukerak eskaintzea;
- Emakumeek erabakietan eta politiketan duten parte-hartzea areagotzea, maila guztietan;
- Emakumeei bakea finkatzeko eta gatazkei aurrea hartzeko eta murrizteko mahaian leku bat bermatzea; eta
- Hezkuntzan eta ikaskuntzan genero-desberdintasunak murriztea.

6

# Kultura emakumeen menderatze patriarkalaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren tresna gisa

**Fátima Djarra**

Asociación de Mujeres Africanas Flor de África - Nafarroa



## Sarrera

Afrikan, emakumeek egiten dituzte produkzio lanen % 80 eta ugalketako lanen % 100: landa-eremuan, nekazaritzaz, uraz eta sutako egurrez arduratzen dira; bestalde, familia zaintzearen eta merkataritza txikiaren ardura hartzen dute eta azkenik, familiako kide guztiei ongizate fisiko eta emozionala eskaintzen diete. Emakumeak dira Afrikaren etorkizuna; emakumeek izan behar dute kontinentearen garapenaren protagonistak eta ez soilik bizirauteko oinarriarenak, behartuta dauden moduan.

Pobrezia gainditzeko ahaleginean emakume askok migratu egiten dute baina hemen nahiz Afrikan entzunak izateko zailtasunak dituzte. Horren arrazoiak askotarikoak dira: familia berriz elkartzeko asmoz iristen direnean emakume askok bizileku-txartela besterik ez dute izaten eta ezin dute lanik egin; horrela beren senarrekiko mendetasun- eta sumisio-egoerak beren herrialdean zutenaren antzekoa izaten jarraitzen du eta kasu batzuetan, okerrera egiten du jatorrizko herrialdeetan zuten gizarte- eta familia-ingurunea galtzen dutelako.

Nafarroako gizartean emakume afrikarrei buruzko zenbait estereotipo atzematen dira; estereotipo horiek gainditu beharra dago emakume horiek gizartean integratzea eta parte hartzea lortzeko eta azken batean, gordeta dauzkan ikusezintasunaren beloa kentzeko. Emakume horiek inork baino hobeto adierazten dute alteritatearen paradigma: emakumeak dira, etorkinak eta gainera beltzak; beren larruazalaren kolorea emakume etorkinak izateari gehitzen zaion beste oztupo bat da. Emakume afrikarren inguruan eraikitako irudia ia beti negatiboa izaten da; ikuspegi etnozentrkotik eta androzentrkotik ikusten baditugu, Saharaz hegoaldeko emakume guztiak berdinak dira, denak mendean hartuta daude, denak pobreziatik, gerratik, bortxaketetatik eta praktika tradizional kaltegarrietatik ihesi doaz, denak analfabetoak dira; azken batean, denak gizon baten mende daude bizirauteko, denak dira **"besteak"**.

Emakume afrikarren ikusezintasuna gainditzeko eta irudi positibo bat eraikitzeko moduetako bat asoziazionismoa da. Emakume afrikarrek biltzeko ohitura dute beren jatorrizko herrialdeetan eta gainera, gizonak biltzeko guneeetatik banandutako guneeetan biltzen dira. Horrela egiten dute beraiek dutelako gazteenei heziketa, balioak eta jakintzak transmititzeko ardura. Hona iristen direnean biltzeko joerarekin jarraitzen dute eta emakume-elkarteak osatzen dituzte, askotan modu informalean baina hala ere, elkarte horiek gune propio bat eskaintzen diete, eza-gutzeko, berrezagutzeko eta ekintzarako gune bat hain zuzen ere. Saharaz azpiko emakumez osatutako elkarteak ikusezintasunaren aurkako erronka bat dira, Afri-

# 6

Kultura emakumeen menderatze patriarkalaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren tresna gisa

Fátima Djarra

kako balio tradizionalakiko aldaketa-proposamenak, baita etnia- eta genero-identitate berri bat sortzeko guneak ere.

Nafarroan emakume afrikarrez osatutako elkarte multietniko bat dago: Afrikako Lorea. Gaur egun Afrikako 12 herrialdeetako 60 bazkidez osatuta dago. Elkarteko ia bazkide guztiak Nafarroan bizi dira, gehienak Iruñean eta eskualdean; alabaina, elkarteko bazkide batzuk Donostian bizi dira. Elkarteko bazkide diren emakumeak gazteak dira, 18-55 urtekoak. Emakume hauek beren premia espezifikoak aldarrikatzeko zuten beharrak eragin zuen elkartea sortzea; izan ere, elkarte afrikar mistoetan ez zuten erabakiak hartzeko organoetan parte hartzeko aukerarik.

Afrikako Lorea elkarte legeztatu gisa 2010eko maiatzaren 20an sortu zen, hain zuzen ere emakumeen genitalen mutilazioaren prebentzioaren inguruan Nafarroako Munduko Medikuek elkarrekin egindako prebentzio-proiektuaren ondorioz. Proiektuan parte hartu zuten emakumeak konturatu ziren "antolatuta" egoteko beharra sentitzen zutela, beren elkarte mistoek nahiz Nafarroako gizarteak eragindako ikusezintasuna gainditzeko.

Bazkideek hileko kuota bat ematen diote elkarteari eta hilero bazkide baten proiektu jakin baterako izaten da. Proiektu horiek elkartasun-proiektu gisa ulertzen dira eta askotarikoak izan daitezke: Afrikako senitarteko bat hiltzen denean emakumeari laguntza ematea edo emakume baten seme-alaben testu-liburuak erostea.

Afrikako Lorea elkarrekin Giza Eskubideen eremuan lan egiten du: berdintasunerako eskubidea, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta haren aurkako borroka, praktika tradizional txarren inguruko (emakumeen genitalen mutilazioa, behartutako ezkontzak) sentsibilizazioaren eta haien prebentzioaren arloan oinarrituz, baita sexu- eta ugalketa-osasunaren eremuan ere; bestalde, eguneroko alderdi zehatzagoak ere lantzen ditu, esaterako laguntza ekonomikoa eta lege-izapideetarako laguntza, gaztelaniazko eskolak eta askotariko prestakuntza, betiere bazkide guztien artean elkartasun-sare indartsuak eta sakonak eratuz, jatorri geografikoa alde batera utzita emakumeak "identitate bakar batekin" identifikatu daitezkeen: "emakume afrikarren" identitatea hain zuzen.

Elkartearen helburua da Nafarroako emakume afrikarrak ahalduz, maila pertsonalean zein kolektiboan, haien autonomia ekonomikoa, gaitasun sozialak eta parte-hartzea indartzeko. Emakumeak gaitzea haien autonomia pertsonala eta gaitasun sozialak indartzeko baita gizartean parte-hartzea eta integrazioa ahalbidetzeko ere, betiere genero-ikuspegia oinarri hartuta eztabaida eta gogoeta bultzatuz.

Gure testuinguruko emakume afrikarrek pairatzen duten **indarkeria-egoera espezifikoa: Genero-indarkeria:** hierarkia-harremanetan oinarritutako indarkeria da, hau da, botere-harremanen arloan gizona emakumearen gainetik kokatzen duena, patriarkatuaren sisteman. Gizonek emakumeen gaineko boterea gauzatzeko dute, azken helburua emakumeak sumisio-egoeran bizitzea bermatzea izanik. Komunitate afrikarrean gauzatzen den genero-indarkerian eraso fisiko eta psikologikoak eta hitzezko erasoak gertatzen dira; Afrikako kultura tradizionalak eraso horiek normalizatu egiten ditu eta hori dela-eta eraso horiek salatzen dituzten emakumeek beren komunitateen estigma soziala pairatzen dute baita beren familiek baztertzea ere. Jakina, emakumeen genitalen mutilazioa emakumeen eta neskatuen osasunerako funtsezko eskubidea urratzen duen genero-indarkeriatzat hartzen dugu.

Gure gizartean genero-indarkeria familia bakoitzeko arlo pribatuari dagokio eta ez arlo publikoari, beraz, beharrezkoa izan da emakumeek onartzea indarkeria gizartearen arazoa dela; izan ere, edozein emakumek paira dezake indarkeria, nahiz eta hori gertatzeko kalteberatasun handiagoko faktoreak dauden, emakume migratzaile afrikarra izatea esaterako.

Elkartearen ekintzaren bidez erakusten dugu indarkeria ez dela berezko jarrera: ikasi eta desikasi egiten da. Hori dela-eta, indarkeria, bereziki, emakume migratzaile afrikarrek pairatzen dutena, desnaturalizatu egin behar dugu, haren aurka egin ahal izateko. Honako hauetaz ari gara: etxeko indarkeria, behartutako ezkontza, behartutako prostituzioa, gatazka armatuetan egiten diren bortxaketak, adulterioagatik edo "ohoreagatik" emakumeak erailteza, behartutako haurdunaldia, ohore- edo dote-arrazoiengatik tratatu txarrak, neska-hilketa, genitalen mutilazioa eta beste praktika eta tradizio kaltegarri batzuk. Baina baita indarkeria sinbolikoaz ere, hau da, diskriminazioa, baliabideak eskuratzeko desberdintasuna eta emakume afrikarren ikusezintasuna biltzen dituen.

Emakume migratzailea izateak egoera eta eragin konplexuak dakartza berekin. Hori horrela izanik, egoera horien konponbidea alde batetik baliabide sozialak eta baliabide ekonomikoak eskuratzeko zailtasunak, hizkuntza ez jakiteak eta familia-sarerik ez izateak baldintzatzen du, eta bestetik, bikotearekiko mendentasun-harremanak. Harreman horrek oinarri soziokulturala dauka, batzuetan etniarekin eta erlijioarekin lotutakoa, eta emakumea izatearen gutxiespena are gehiago indartzen du. Generoari lotutako desberdintasunaz gain kultura eta jatorri soziala hartu behar dira kontuan. Gorputzen identitatea eta gizarte-erakuntza sexuaren, hizkuntzaren eta erlijioaren elkarrekiko erlazioan gauzatzen dira. Oro har, emakumeen migrazioek familietan eta gizarteetan gunerak sortzen dituzte eta genero-ereduak eraldatu.

Alabaina, maila pertsonalean emakume bakoitzaren bizitza-proiektua hartzen du eraginpean; izan ere emakumearen mendetasun-egoera indartu dezake bere duintasuna kaltetuz edo are gehiago, duintasunari erasoz. Migrazioek biztanleria afrikarrean eragiten duten kultura-talkak besteekiko harremanetan gatazkak sor ditzake baita zenbait aldaketa eta balioak nahiz genero-rolak berriz definitzea eragin ere. Hori dela-eta komunitate afrikarretan gertatzen diren tratu txarren arrazoi nagusizat hartzen da.

Genero-indarkeriaren esparruan eta biztanleria afrikarraren ezaugarriak kontuan hartuta, ezin dugu aipatu gabe utzi emakumeen genitalen mutilazioa.

Gure ekintza emakume afrikarren ikusezintasuna gainditzera bideratuta dago, informazio- eta sentsibilizazio-proiektuen bidez gure burua Nafarroako gizartean ezagutaraziz.

## Honako biztanleria honekin lan egiten dugu: Nafarroan bizi diren emakume afrikarrak

### ■ Honako hauek dira garatzen ditugun jarduera nagusiak:

Sentsibilizazio-jarduerak (hitzaldiak, filmak, eztabaidak, gastronomia) Udalek eta beste erakunde batzuek antolatutako kultura-asteetan. Afrikaren Eguna ospatzen da kontzentrazio bat eta komunikatu bat eginez.

Genero-indarkeria prebenitzeko tailerrak: harreman batean eta harreman horren esparruan hartzen diren erabakietan negoziatzeko eta eragiteko gaitasuna gartztea, norberak emakume gisa dituen eskubide eta betebeharrak zein diren jakitea eta elkartera hurbiltzen diren pertsonetikiko errespetuzko diskurtsoa izatea.

Sexualitatea: Emakumeak sexu-osasunaren eta sexualitatearen esparruan gaitzea beren bikote-harremanak hobetzeko eta erabaki egokiagoak hartzeko.

Elkarte-mugimendua indartzea: emakume afrikarren parte-hartzea indartzea, esperientziak eta iritziak partekatzea eta interes komunak lortzea.

Gaztelaniazko eskola: zeharkako ildoak da gure jarduera guztietan; izan ere, emakumeek prestakuntza jasotzea eta harrerako gizartean parte hartzea eta integrazioa ahalbidetzen du.

Jarduera ludiko-kulturalak egun garrantzitsuak ospatzeko, esaterako otsailaren 6a (Emakumeen Genitalen Mutilazioaren aurkako Zero Tolerantziaren Nazioar-

# 6

Kultura emakumeen menderatze patriarkalaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren tresna gisa

Fátima Djarra

teko Eguna); emakumeen genitalen mutilazioa azaltzen duten sentsibilizazio-jarduerak antolatzen dira.

Maiatzaren 25a, Afrikaren Eguna; Afrikako gastronomia dastatuz ospatzen da, kultura afrikarra janariaren bidez erakutsiz.

Biztanleria afrikarrarekin lan egiten duten hainbat erakunderekin lotura daukagu, esaterako Munduko Medikuak, Afrika Behar Beharrezkoa partzuergoa eta hainbat herrialdetako elkarte afrikar mistoak.

Honako emakume-elkarte hauekin ditugu harremanak eta egiten ditugu baterako jarduerak:

- Berriozarko Kulturen Artean Elkarte: elkarten arteko topagunea.
- Nafarroako Emakume Aurrerakoiak: emakumeen genitalen mutilazioari buruzko tailerrak.
- COMFIN: Afrikako Lorea elkarteak Nafarroako Emakume Erakunde eta/edo Erakunde Feministen Koordinakundean (COMFIN) parte hartzen du.
- Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Kontseilua.

# Kultura menderatze patriarkaleko eta emakumeen aurkako indarkeriako tresna gisa - Indiako testuingurua eta aurrerapenak

**Neelavalli Prabhakar**

Initiatives Women in Development - India

<http://www.iwidindia.org/>





Kultura "Ongintza Unibertsalaren Arautzat" hartzen da eta jakintza autoktono eta tokikoan oinarritutako praktika seguru eta tradizionalak biltzen dira bertan. Kultura, era berean, gizartearen sektore jakin baten interesak beste sektore batzuen interesen aurrean defendatzeko "Arau Justifikatu" gisa hartzen da. Hainbat joera daude "Kultura" kontzeptua ulertzeko unean. Bigarren postura aktibista sozialen artean nagusitzen da: Indiako gizarteko arrazionalistek uste dute "kulturak kasten hierarkia defendatzeko balio duela". Feministek uste dute "kulturak patriarkatua defendatzeko balio duela". Ildo horretan, kultura-jardun eta kultura-arauek emakumeak izaki kaltebera bihurtzen dituzte, kulturaren izenean botere zapaltzailea bultzatzen duten gizonen aurrean. Emakumeak indarkeriazko esperientzia baten pean jartzen dituzte beren bizitzako etapa guztietan. Beste sektore batzuek, goi-teknologiaren gizarte modernoarekin bat ez datorren "praktika primitibo eta zaharkitu" gisa ikusten dute.

Lehendik aipatutako joerak kontuan izanik, zaindu behar den zibilizazio bat bezala edota arbuiatu behar den unitate zapaltzaile edo zaharkitu bat bezala ikusten da kultura. Eta beste sektore batek "hutsune kulturalaren" arriskuak adierazten dizkigu, gizakiei gizarte-sarea ukatzen diena eta "bakardadea", "identitate-krisia" eta "zaindu gabeko gizakiak" sortzen dituen.

Begi-bistako kulturak komunitate edo gizarte baten janzteko ereduetan, agurtzeko moduetan, elikatzeko ohituretan, jaialdi eta errituetan, dantza-moduetan eta musika-tresnetan eragina du. Errealitatean, kultura oso errotuta dagoen jarduera da, balioetan, arauetan, sinesmenetan, genero-roletan, ezkontza-arauetan, ogibide eta lanbideetan oinarritzen dena komunitatean, gobernuan eta abar. Komunitate jakin baten egitura sozio-ekonomiko, politiko eta erlijiosoaren adierazpena da kultura.

Aurrekoa ikusita, txosten honetan Indiako kultura aztertzen dut ondorioak arinegi atera gabe.

## **Kultura Indiako gizartearen testuinguruan**

Kulturak Indiako gizartearen testuinguruan betetzen duen papera ulertzea zaila da, "kultura-arauek" komunitate batetik bestera desberdinak direlako. Indian ez dago kultura-praktiken multzo bakar bat. India aniztasun handiko herria da. Mila kultura-komunitatetik gora daude beren tradizio propioak defendatzen dituztenak eta bizimodu, zeremonia, jaialdi, elikadura-ohitura eta hizkuntza desberdinak dituztenak. Indiak 398 hizkuntza desberdin ditu. Indiako eroldan, 1652 dialekto

daude erregistratuta<sup>1</sup>. 18 hizkuntza nazional eta ofizial daude, Estatuko hizkuntzak direnak. Munduan erlijio-aniztasunik handienetakoa duen nazioa da India, eta kultura eta gizarte erlijiosoenetakoak ditu. 2001. urteko errolda nazional baten arabera, biztanleen % 80aren erlijioa hinduismoa da. Biztanleen % 13 inguruk Islama praktikatzen dute.<sup>2</sup> 23 milioi kristautik gora daude, 19 milioi sikh baino gehiago, 8 milioi inguru budista eta 4 milioi inguru jaina. Herrixka txiki batean ere, hainbat kasta eta komunitate erlijioso eta etniko desberdin bizi dira bata bestearen aldamenean. Geografikoki hurbil bizi diren arren, baliteke komunitate batek beste komunitatearen praktikak sakonki ez ezagutzea.

Testuinguru horretan, ezinezkoa da Indiako kulturaren ikuspegi uniformeak. Gainera, mila komunitate baino gehiagok egiten dituzten "emakumeen aurkako praktika diskriminatzaileak" oso zerrenda luzea osatzen dute. "Berdintasunerantz"<sup>3</sup> izeneko lehen txostenak (Emakumeen Estatusari buruzko Batzordearen Txostena, Indiako Hezkuntza eta Gizarte Ongizateko Ministerioarena) 1974an erlijioek kultura-praktiketan zuten eragina eta emakumeekiko ekonomia, hezkuntza, sanitate eta politika arloko desberdintasuna nola eragiten zuten aztertzen zuen.

## Indiako emakumeengan eragina duten kultura-praktikak

**Sati** izeneko errituak "alarguntsari" lotutako errituetan bere forma bakunetan dirau oraindik ere. Erritua gure oroimenean eta gure esperientzietan dirauen eta oso errotuta dagoen hizkuntza da. Hildako senarrarekin batera Heriotzaren Errituen mende jarritako emakume batek "Hildako bizidun" gisa bakarrik jarraitzen du bizitzen. Legearen aldaketak ez dakar pentsamoldearen aldaketa, eta oso alargun gutxi ezkontzen dira berriz ere.

<sup>1</sup> Indiako erroldaren erregistroa, 1961.

<sup>2</sup> [DBiztanleen banaketa erlijioen arabera: India](#) (PDF). Indiako errolda, Indiako Gobernua. 2011.

<sup>3</sup> "Berdintasunerantz" - Emakumeen Estatusari buruzko Batzordearen Txostena. Indiako Hezkuntza eta Gizarte Ongizateko Ministerioa, 1974.

## Kultura-praktiken euskarria

Sustrai erlijiosoak edo sinesmenak ikertzeko joera orokorra dago, emakumeen aurkako kultura-praktiken erantzule direla uste delako. Zita erlijioso askok bilaketa hori justifikatzen dute. Baina IWID erakundea emakumeen aurkako indarkeria mota desberdinak eta diskriminazioa eragiten dituzten kultura-praktiken arrazoi ekonomiko eta politikoak aurkitzen ahalegindu da. Ehun komunitate baino gehiago aztertu ditugu, kultura-praktika asko aurkitu ditugu eta komunitateen ohitura ekonomiko patrilinealari eusteko sortu zirela ikusi dugu, non jabetza aitarengandik semearengana igarotzen den. Kultura-praktikak leunki inposatzen ziren alabak edo "errainak" jabetzara edozein eskubidetatik urrun edukitzeko. *Sati* errituaren praktikak (alargunak erretzea), adibidez, alargunaren bigarren ezkontza zigortzen du, alarguntsak emakumeek indarkeriazko esperientziak bizi izatea dakar, eta, aldi berean, praktika horiek bermatzen dute jabetzak gizonezko oinordekoen eskutan jarraituko duela. Jabetza alabekin partekatu behar izatea saihesteko, alabak beste herri batzuetan ezkontzen dituzte. Herrixka berean ezkontzea kulturalki debekatuta dago. Kalterik eragiten ez duen "Alaba herrixka berean ez ezkontzeko" praktika horrek era berean lurraren jabetza bermatzen du. Alabek ezin dute jabetza mugiezin hori inola ere berenganatu, eta aurrerantzean semeena izango da.

Jabetza amarengandik alabarengana igarotzen den komunitate matrilinealen azterketa transkulturalak gertakari hori frogatzen du. *Sati*, alarguntsa edo bigarren ezkontzaren zigorra bezalako praktikak ez dira gauzatzen gizarte matrilinealetan. Emakumeen aurkako indarkeria ere oso-oso txikia da gizarte horietan, gizarte patrilinealekin alderatuz gero.

Ez da nahikoa sinesmen erlijiosoen jarraipena egitea, horiek aldatzea eta berriz interpretatzea indarkeria murrizteko. Izan ere, ondoriozta dezakegu ekonomia patrilineala eta egitura politikoak defendatu nahi dituzten gizonezkoek bultzatzen dituztela sinesmen horiek (eta ez profetek).

## Nola egin aurre kultura-praktika zapaltzaileei eta nola aldatu gizarte-errealitateak

Emakumeak lurrarekiko eskubidea izatea IWIDek ezarri duen estrategia bat da, indarkeriazko kultura-praktiken ezkutuko indarraren aurka borrokatzeko. Aldi be-

rean, "emaztea senarraren jabegotzat" hartzen duen familia patriarkalak lurrarekiko eskuragarritasuna eta kontrola gizonari ematen dio, emakumeak lur horrekiko eskubidea baldin badu ere. Garrantzitsua da "lurrarekiko eskuragarritasuna eta kontrola" emakumeei bermatzea. IWIDek aurreikusi du "Laborantzako eredu PARTEKATUKO" estrategia bat abian jartzea, zeinaren bidez emakume talde bat elkartzen den eta lurra elkarrekin lantzen duten, lana eta produkzioa partekatuz. Horrela, beren gizonak alde batera geratzen dira eta emakumeek laborantzari lotutako erabakiak har ditzakete eta lurra kontrola dezakete. Elikadura-laboreen produkzioak botere handiagoa ematen du produkzioaren gainean, emakumeek produktu horiek etxeko kontsumora bideratzen dituztelako. Merkataritza-laboreetan jarduten badute, labore horiek gizonen kontrolatuko dituzte merkaturatzaile gizonen kontrolatzen dutelako. Gainera, elikadura-laboreek eta nekazaritzak elikagaien segurtasuna eta etxeko segurtasuna oro har bermatzen dituzte. IWIDek lehentasuna ematen dio "lurrarekiko eskuragarritasunari eta haren kontrolari" lurrarekiko eskubidearen ginetik. Taldean lantzeko lurra komunitatearen edo *panchayat* deitutakoaren (herrixkako toki-gobernua) lur komunitetik lor daiteke. Emakume nekazariak bere lur txikia beste emakume batzuekin parteka dezake, eta horrela haiek guztiak lankide bihur daitezke. Emakumeek era berean lurra eskura dezakete beren jabeen alokatuta.

Praktika horren eskala txikiko esperimentua ez da gizartean aldaketa bat markatzeko moduko nahikoa emakumerengana heldu. Gainera, talde horietan, emakumeek "denok elkarrekin eta maila berean" lan egiteari etekina ateratzen diote, elikagaien segurtasuna, duintasuna eta segurtasuna lortzen dutelako komunitatean. Emakumeen egoera hobetzen du, eta "lurraren langile" izatetik "nekazari" izatera igarotzen dira. Era berean, berdintasunezko jabetza-eskubideen legeak gizarte-errealitatea ere aldatuko du.

Komunitateen "egitura sozio-ekonomiko eta politikoetan" sakondu beharra dago emakumeen aurkako indarkeriaren aurka borrokatzeko. Azpimarratu beharra dago gizarte feudalek emakumeak gizonen jabego gisa tratatzen zituztela, gizonak baitziren ondasunen jabeak. Egungo gizarte modernoan, non "Merkataritza" jarduera ekonomikoaren oinarri den, emakumeak "kontsumo-artikulu" gisa tratatzen dituzte eta indarkeria-modu ikaragarriak jasaten dituzte.

Gizartea oro har hartu behar da, non "emakumeak gizaki berdine bezala tratatuko diren", eta berdintasuna bermatu behar da errealitate nabarmen gisa.

Garapenerako Estrategia Positiboen X. Jardunaldiak

## Emakumeak Erresistentzian: indarkeria matxistari aurre egiteko esperientziak, Afrika eta Asiakoak

Bilbo, 2015eko apirilaren 15 eta 16a  
Bizkaia Aretoa UPV/EHU-Baroja Aretoa

